

Helen Frankenthaler

Araurik gabe margotzen

GUGGENHEIM BILBAO

ERAGINAK, AFINITATEAK, ADISKIDETASUNAK.....	3
ZIRKULUAREN BARRUAN: GUTUN-TRUKEAREN PASARTEAK	28
KRONOLOGIA HAUTATUA.....	56

ERAGINAK, AFINITATEAK, ADISKIDETASUNAK

DOUGLAS DREISHPOON

Helen Frankenthaler entzuleria adi baten aurrean agertu zen Guild Hallen, East Hamptonen (New York). 1994ko uda zen. Bere lanari buruzko hitzaldia ematera zihoan, eta aldean eraman zituen 1950eko hamarkadako diapositibak, argazkiak (“urrezko erlikia [...] berpiztuak”) eta New Yorkeko eszenako oroitzapenak. Oroitzapen haietako batek lotura zuen Jackson Pollockekin. Ordurako, hirurogeita bost urte zituela eta amerikar artista handi modura mundu osoan ezaguna zela, hari buruz pentsatzen zuena esateko eskubidea aitor ziezaiokeen Frankenthalerrek bere buruari, eta honela mintzatu zen prestakuntza-aldian nabarmen eragin zion baina une hartan oroitzapen mingarria zekarkion artista hartaz: “Jackson”, gogoratu zuen, “gizon gozoa, atsegina, oso azkarra, oinazetsua eta herabetia zen hordi ez zegoenean. Haren irribarreak eta barreak ezohikoak ziren, baina egiaziak. Gizon depresiboaren eta amorrutaz betearen portaera zuen, oro har, ordea. Elkarriketa ez zen erraza harentzat; erlazionatzea, ia ezinekoa, oro har”¹.

Imajinatu besterik ezin dugu egin zer-nolako elkarriketak izango zituzten Frankenthalerrek, Clement Greenberg kritikariak (Frankenthalerren bikotekidea, garai hartan) eta Lee Krasnerrek, Pollocken emazte eta margolariak, Pollocken estudio zarpailan, margolan artean heze bat ikusiz biltegiko zoruan zabaldua. Ezagutzen zaila izango zen Pollock pertsona gisa, beharbada. Baina Pollock margolaria zen benetan distiratsua, harrigarria. Hogeitaka urteko Frankenthaler gazteak margolaritza zenari eta izan zitekeenari buruzko pentsaera zorrotz bat ikasi zuen harengandik. Margotzeko astotik pintzelera, pinturretatik koadroetara, bere egin zuen Pollocken erradikaltasuna: koreografia eta eszenaratze erritualista; gorputz-keinu inprobisatu eta fisikoa, “esmalteko mordoilo zabarrak, bilbeak, eta sorbaldatik lan egitea, eta ez eskumuturretik”; *dena ala ezer ezko* erasoa; eta pintura kontzientzia jarioekin nahasteko aukera (“edozein margolanek funtziona dezan eta mezu bat helaraz dezan ahalbidetzen duen *je ne sais quoi* magiko horren parte”)². Pintura hutsetik berpentsatzeko gonbita egiten ari zitzaigun.

Aurreko eserlekuak

New Yorkeko hirian sortu, eta Upper East Side auzoan hazi zen Frankenthaler, eta ezinbestean izan zen emakume anbiziotsua, bere buruaz segurua eta talentuduna. New Yorkeko Estatuko Auzitegi Goreneko epaile baten hiru alabetan gazteena zen, aitaren kuttuna, “fantastikoa”³. Artista izateko erabakia hartu zuelarik, bizitzaren puzzleko piezak bata besteari egokitzen joan zitzaizkion pixkanaka. Vermonteko Bennington Collegen, Paul Feeley irakasle eragingarriaren eskutik ikasi zuen kubismo analitikoa, baita margolan batzuk besteak baino hobeak zerk egiten zituen ere, eta artearen konstelazio historikoko izar distiratsuenak nor ziren. Graduatu eta New Yorkera itzuli ondoren, arte abstrakturantz lerratu zen: arte abstraktua erakusten zuten museo eta galeria guztietara joaten zen, eta New Yorkeko Eskolako margolari eta eskultoreekin alderatuz neurtzen zituen bere aurrerapenak; hain zuzen ere, Frankenthalerren iparrorratz bihurtu zen talde hura, elkarrekin harreman estua zuten gizon nagusiki adineko eta zuriek

osatua. Talde hartako artista batzuk (Mark Rothko, Barnett Newman, Adolph Gottlieb, Theodore Stamos, Franz Kline, Willem de Kooning eta Ad Reinhardt) bere lagun-taldeko kide ere bihurtu ziren, Greenberg bikotekidearen eta, gerora, Robert Motherwell margolari eta lehen senarraren bidez.

Bera baino hogeitaz zaharragoa eta ordurako eragin handiko artista zen Greenberg, eta garai hartako New Yorkeko artearen mundurako bidea ireki zion Frankenthaler hasiberriari: benetan garrantzizkoak ziren irudiengana hurbiltzeko lasterbide bat eskaini zion⁴. Astero, Goi eta Behe Manhattanen ibiltzen zen bikotea; 14. kaletik hegoaldera nahiz hirigunean kokatutako galeriak bisitatzen zituen (Kootz, Willard, Sidney Janis, Betty Parsons, Stable); lagun idazle eta artistekin edaten eta afaltzen zuten; eta artisten estudioak bisitatzen zituzten, hirikoak nahiz hiritik kanpokoak. Pollockek Long Islanden zuen estudioa asteburuetan egindako txangoak, adibidez, benetan esanguratsuak izaten ziren. Orobat izan ziren gogoangarriak David Smith eskultorea bisitatzera estatuaren iparraldera, Bolton Landingera, egindako bidaia luzeagoak. Argazki jada horituak dira, orain, bisita haien lekuko. Greenberg eta Frankenthaler ageri dira irudi horietan, Smithen terrazan elkarren alboan eserita, zerua eta landa margotzen; Frankenthaler irribarretsu, *Heroia* (*Hero*, 1951–52) obraren atzean [pertsonaiari generoa atxiki aurretik]; eta bikotea Chevrolet kabriolet baten aurreko eserleketan eserita, abiatzeko prest.

Manhattaneko hiri-saretik aldendu eta Adirondack mendietara alde egitea, Lake Georgera, beste mundu batean sartzea bezala zen; altzairuzko eskultura totemikoetatik zintzilik ageri ziren hodeiak, eta arrano-zaintzaile bat zegoen zelatan. Smithen hormigoizko blokeko estudioan sartzean, sumatzen zen arriskuz eta aukeraz beteriko espazio izugarri bat, metal astun galdatu eta soldatuekiko borroka prometeikoa. Laster ohartu zen Frankenthaler Smithen jenioaz: haren irudimen mugagabeaz, eskultura “espazioan marrazte” gisa hartzeko zuen ahalmenaz eta eskulturaren arauak etengabe berrasmatzeko zuen bulkada ausartaz. Ezinezkoa izango zen Pollock ongi ezagutzea, beharbada, baina arima bikia, mentore eskuzabala eta artista lankidea topatu zuen Smithengan Frankenthalerrek, eta bizitzaren gorabeherak partekatu zituen harekin, aurrez aurre, telefonoz nahiz gutun-truke oparo baten bidez. [Ez da harritzekoa Smithen *Arrano zaintzailearen erretratua* (*Portrait of the Eagle's Keeper*, 1948–49) izatea margolariak erositako lehen artelanetako bat, beti hurbil eduki zuen talismana] Frankenthalerri, zeinak ikusi baitzuen dena aurreko eserleketatik, ez zitzaion oharkabean igaro Smith Pollocki loturiko erreferentzia gisa agertu izana Greenbergen gerraondoko amerikar artearen azterlan kritikoa⁵.

Pollocken *14. zenbakia* (*Number 14*, 1951) izan zen Frankenthalerrek 1951 udazkenean Betty Parsons Gallery aretoko hormetan ikusitako olio-pintura zuri-beltzetako bat, Greenberg eta biak erakusketara joan zirenean ikusia, eta arrasto biziki sakona utzi zion. Handik urte batzuetara, Barbara Rose kritikari eta lagunarekin hitz egin zuen obra haren aurkikuntzari buruz⁶. Margolanak oso itxura abstraktua zuen arren, irudi esanguratsuak sortzen ziren pintura-mordoi lotik. Ikonografia subliminal baten iradokizunak intriga sortzen zion. “Rorschach metodoa” eta “errealismo abstraktuko edo surrealismoko elementuak” aipatuz deskribatzen zuen gai latenteak biltzen zituen pintura oro, zeina baitzen ongi ikasitako irakasgai bat⁷. Frankenthalerren arabera, aurreko urtean Pollockek Parsons egindako lehen erakusketa ikustea izan zen atzerriko herrialde batean lur hartzea bezala: atzerriko herrialde batean, non bizi nahiko bailuke berak baina zeinetako hizkuntza ez baitzekien oraindik. Ironikoki, baliteke Frankenthalerren ama aleman juduak antzeko irrika sentitu izana alabari aurpegiratu zionean Upper East Sidetik hirigunera aldatu izana.

Bizimodu bohemioa

Frankenthalerrek artista izateko erabakia hartu izana ez zen batere harritzekoa, oso gaztetatik sentitu baitzuen arterako zaletasuna, baina anatema izan zen haren ama handiustearentzat, zeinak aurre egin behar izan baitzien gizarte-konbentzionalismoei eta baitzen okerrena etor zitekeenaren beldur. Upper East Sideko etxebizitza dotorea utzi eta Chelseako ur berorik gabeko etxebizitza kaskar batera aldatzea Martera aldatzea bezala zen⁸. “Bizimodu bohemioa egiten genuen”, idatzi zuen Frankenthalerrek handik hamarkada batzuetara, gogoratuz nola fakultatetik itzultzean egoten zen olgetan Greenwich Villageko San Remo jatetxean, bigarren hezkuntzako garaietatik laguna zuen Gaby Rodgersekin —“neska judu zoragarri batzuk, Benningtongo eta Mount Holyokeko ikasleak”—⁹. Rodgers eta biak Europan izanak ziren aurretik, 1948an, graduatu aurreko udan. Nolatan ez zuen, bada, bizi nahiko erdigunean, non gertatzen baitziren gauzak, non neska aberats batek albora baitzitzakeen bere pribilegioetako batzuk eta artista izan nahi zuen hura inguratu baitzitekeen bere tankerako jendeez eta lor baitzezakeen arrakasta.

Frank O'Hara olerkari-kuratoreak Frankenthalerri idatzi zion (Museum of Modern Arteko goiburua zuen orri batean) 1959an, Gabon bezperetan. Azken ukituak ematen ari omen zitzairen Frankenthalerri buruz Jewish Museumen egitekoa zen lehen erakusketa handiaren katalogoko kronologiari. Erakusketaren komisarioa izanik, egiaztatu nahi zuen ez zitzaiola ezertxo ere ahaztu. “Baliteke zuk zerbait erantsi edo aldatu nahi izatea”, iradoki zion, “bereziki 1951–54 urteei buruzko atalean, non aipatzen baititut maiz ikusten zenituen beste margolari batzuen izenak. Zalantzarik gabe, zuk beste inork ezin du horri buruzko erabakirik hartu, eta buruz aritu naiz ni; beharbada, aipatu nahi dituzu, adibidez, Lee eta Jackson, eta [Robert] Goodnoughen lagun mina izan ote zinen (ni ez, eta horregatik ez daukat jakiterik). Gainera, bitxia gerta lekieke harrezkero harreman estuagoa izan duzun zenbaiti. Badakit hala gertatuko zaizula [...]”¹⁰.

Argitaratutako bertsioan, non aipatzen baita Goodnough, baina ez Krasner eta ez Pollock, gaingiroki azaltzen da 1958an Motherwellekin ezkondu bitartean Frankenthalerrek eduki zuen inguru bohemioa: Frankenthalerren debuta, 1950ean, Kootz Galleryn antolatutako Fifteen Unknowns erakusketan, eta hurrengo urteko 9th Street Exhibition of Paintings and Sculpture erakusketa, “transzendental” (O'Haren hitzetan); bakarkako lehen erakusketa, Tibor de Nagy Galleryn, 1951n; Alfred Leslie, Joan Mitchell, Larry Rivers, Grace Hartigan, Friedel Dzubas eta Goodnoughekin egindako adiskidetasun-harreman berriak; De Nagy Galleryren bidez poeta eta antzezleekin izandako harremana; eta Cedar Street Tavern eta The Club lokaletako eztabaida sutsuetan izandako parte hartzea. Giro horretan Greenbergekin zebilen garaian sartu izanak markatuko zuen zenbaitek Frankenthalerri buruz zuen ikuspegia, neurri batean, baina horrek ez zion eragotz bizitza sozial bizia egitea kritikariarekin nahiz kritikaria gabe¹¹. Haren bizimodu librearen parte ziren London Terraceko apartamentuko jaiak, Cooper Squareko 5. zenbakiko Five Spot lokalera jazz entzutera egindako gaueko irteerak eta lankideek elkarren estudioetara egiten zituzten bisitak. Bizimodu bohemioa egiteak ez zuen esan nahi uko egiten zienik heziketa pribilegiatu bat jaso izanaren onura sozialei. Frankenthalerrek xarmagarriki “karratu” edo konbentzional gisa deskribatu zuen bere burua aurrerago¹². Gerraondoko Amerikako bohemio petoen artean, karratua izateak, moderno-cool/aren kontrakoa izateak, joera orokorrari jarraitzea adierazten zuen. Gizona izanik, flanelazko traje grisa janztea, zeina baitzen enpresaburuen nortasun-ikur: korporatiboa, kontserbadorea, konformista¹³. Errebeldea eta bohemioa bazinen, beste bide bati jarraitzen zenion, bide alternatiboa, librea eta mugarik gabea: errazagoa zen esatea egitea baino. Bereziki, asmo artistikoak zituen emakume independentea izanik¹⁴. Frankenthalerrek karratu edo konbentzional gisa ikus zezakeen bere burua, jakinik, artista zen heinean, beti izango zuela bere sormenari hobekien egokitzen zitzaion

moduan adierazteko erabateko askatasuna. Bere estudioan, bakarka, berak nahi zuen hura izan zitekeen. Han gertatzen zena berea zen, eta parteka zezakeen, baldin berak hala erabakitzen bazuen. Estudioan, etengabe berrasma zezakeen bere burua askotariko margolaritza ekintzen bidez: nahitakoak eta asmo argikoak, bat-batekoak eta ausartak, ilunak eta hunkigarriak, jostariak eta dibertigarriak. Bere nortasunaren edozein alderdi adierazteko modua zuen. Ez zeukan bere burua erreprimitu beharrik, nahiz eta horrek huts egitea ekarri batzuetan berekin. Artista izateak esan nahi zuen izatea bohemio, beti gazte.

Belaunaldi baten krisia, hurrengo belaunaldiaren erronka

Gerraondoko urteetan, toki gutxi zeuden non elkartu baitzitezkeen Behe Manhattanen artearen arloan buru-belarri zebiltzan artistak egiten ari zenari buruz hitz egitera eta sozializatzerara. 8. Kaleko Hans Hofmannen School of Fine Arts arte ederren eskola eta Motherwellen Subjects of the Artist School eskolaren iterazio batzuk irizpide pedagogiko jakinei jarraitzen zieten irakaskuntza-plataformak ziren. Aldiz, Ekialdeko 8. kaleko 39. zenbakian kokatutako The Club aretoa, Philip Pavia eskultoreak 1948an sortua, oso bestelako tokia zen, hezkuntza-gunea ez ezik baita soziala ere, espazio seguru bat artista esperimentalentzat. New Yorkeko Eskolaren lehen belaunaldiko margolari eta eskultoreen bilgune txiki baten modura hasi zena nabarmen handitu zen Ninth Street Show erakusketaren ondoren; hain zuzen ere, belaunaldi gazteago batek, zeinaren parte baitziren Frankenthaler, Robert Rauschenberg, Leslie, Hartigan eta Rivers, “The Club hartu zuen” Paviaren hitzetan¹⁵.

The Club ideien haztegi bihurtu zen diziplina askori zegokienez: poesia, zinema, psikologia, arkitektura, erlijioa, mitologia, filosofia eta musika. Esparru harrigarriki zabala landu zen Paviak 1948 eta 1955 bitartean antolatutako saioetan¹⁶. Frankenthalerrek Benningtonen gradua eskuratu ondoren Columbia Universityn Meyer Schapiroekin artearen historia ikasteko saiakera epel bat egin zuen, baina ez dirudi haren premia izango zuenik ere, The Club aretoan zer mailatako jardueretan parte hartu zuen kontuan hartuta. Zehazki zein izan ziren eta berak haiei nola erantzun zien oraindik erantzuteke dauden galdera interesgarriak dira. Artistek, oro har, aukera estetiko bat eskain diezaiekeen edozein iturritatik hartzen dute behar duten hori. Artistak ez dira akademikoak; ideia konplexuak planteatzen dituzte oso modu pertsonalean. Belaunaldi bakoitzak bere lehentasunak finkatzen ditu. Belaunaldi baten krisia bihurtzen da hurrengo belaunaldiaren erronka.

Merezi du aipatzea Frankenthaler The Cluben sartu zenean zer auzi zeuden han puri-purian: geometriaren krisia eta surrealismoarekiko arbuioa. Auzi konplikatuak eta ñabardura askokoak biak ala biak, armistizioaren ondoren polemika bizia sortu zutenak. Aurreikusi ezinezko moduan eragin zien gerrak artisten gogoari. Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketen ondoren, susmagarri bihurtu ziren aurretiko abangoardiako mugimenduak, hala nola neoplastizismoa, konstruktibismoa eta Bauhaus, asmo utopikoak eta aurrerapen zientifikoak oinarri zituztela-eta. Izan ere, aurrerapen zientifikoak bizi-kalitatea hobe zezakeen, baina, gerra nuklearraren bidez, suntsitu ere egin zezakeen. Geometria jopuntu bihurtu zen giza subjektibotasuna gutxiesten zuen munduaren ikuspegi mekanizarentzat. New Yorkeko Eskolako margolarien lehen belaunaldiak —haien artean zirela Newman, Clyfford Still, Rothko, eta Reinhardt— geometria “haustea” hartu zuen helburu edo, gutxienez, haren joera zorrotzak leuntzea¹⁷. Ez ote zen, ba, aurrera begirako erronka goresgarria euklidear geometria humanizatzea, haren eszentrikotasuna agerian utziz?

Frankenthaler abstrakzio biomorfikora iritsi zen senez. Wassily Kandinsky, Joan Miro, Arshile Gorky, Willem de Kooning eta Pollockekin izandako lehen topaketek berretsi zuten haren senak zioena, zeinaren arabera baitzen abstrakzioa morfologia organikoek, prozesu heuristikoez eta anbigutasun nabarmen batek aberastutako hizkuntza sinboliko bat. Frankenthalerren eremu amorfoetan zirkuluak, karratuak eta triangeluak agertzen direnean, batzuetan dirudite osagai arrotz moduko batzuk, konposizioan txertatuak baina modu apetatsuan irudikatuak gorputz hizkuntzaz eta umorez. Newman eta Stillentzat dilema etikoa izan zena erronka formala bilakatu zen Frankenthalerrentzat, bere margolanak antolatzeke eta haiei bizitasuna emateko modu berri bat.

Newman eta Rothko ez ziren izan surrealismoaren bultzatzaileak, haien hasierako abstrakzioetako batzuek marrazketa automatikoa oinarri bazuten ere, Pollocken all-over mihiseak bezalaxe¹⁸. Pavia eta The Clubeko kide zaharrenek onartzen zuten marrazketa automatikoa, baina ez surrealismoak “ametssekiko” zuen miresmena¹⁹. Nazionalismoak —gerraren garaian Manhattanen bizi ziren etorkin surrealisten presentziak areagotua— eragina izan zuen zenbait artistak eta kritikarik —Greenbergekin, esaterako— gaiari buruz zuten iritzian²⁰. Joera horrek, zeina baitzegoen Daliren *Memoriaren iraunkortasuna* (*La persistencia de la memoria*, 1931) obrari lotuago Miroren *Munduaren jaiotza* (*El nacimiento del mundo*, 1925) obrari baino, zorrotzegia, estuegia eta destainaria dirudi gaur egun, batez ere Frankenthalerren moduko artista batentzat, ez baitzuen ikusten modu naturalean ateratzen zitzaion zerbait arbuizatzeko arrazoirik.

Abstrakzioa, marrazki inprobisatuekin aurrez prestatua, ongi egokitzen zitzaion Frankenthalerren izaera artistikoari: irudimena proiektatzeko modu bat eskaintzen zion (zeinu piktoriko, sinbolo eta eszena gisa), hura erabat ezagutarazi gabe ere. Pintura abstraktua proposamen ireki gisa eta marrazkiaren sinonimo gisa ikusteko bidea eskaini zion Pollockek Frankenthalerri. Bere marrazkilari-mentalitatea eta irudien sorkuntzarako jarrera desinhibitua izan zituen katalizatzailetzat haren lehen lan arrakastatsuak, *Mendiak eta itsasoa* (*Mountains and Sea*, 1952) ezagunak: ikatz-zirizko lerro sorta bat, estudioko zoruan zabaldutako mihisean zirriborratua, eta disolbatzailetan diluitutako pinturekin inprimaziorik gabeko kotoizko mihisean egindako keinu inprobisatu batzuk. Mendiak eta itsasoa lanaren ondoren egin zuen obra guztian nagusitasuna izan zuen koloreak (orban eta marken pirrintak, zipriztinak eta lainoak), baina, hala ere, garrantzitsua izaten jarraitu zuen marrazkiak.

Adierazpen artistiko erradikalak oker interpretatuak dira, sarritan, agertzen diren garaian. Hor ditugu, esate baterako, Beethovenen *9. sinfonia* (1824), Stravinskyren *Udaberriaren sagaratzea* (1913), James Joyceren *Ulyses* (1922) eta Miles Davisen *In a Silent Way* (1969). Frankenthalerren *Mendiak eta itsasoa* bera ere Manhattango Tibor de Nagy galerian erakutsi zutelarik (1953ko neguan, 100 dolar inguruko salneurriarekin), saldu gabe geratzeaz gain, haren irudi lausoek eta ezohiko egikerak (margoa isuriz eta orbanak nahieran zabaltzen utziz) txundituta utzi zituzten kritikariak (baita gertuko lagun batzuk ere). Ulertzekoa da zergatik. Izenburu onbera zuten margolanen ondoan —*Zeru-arraska* (*Skyscape*), *New Jerseyko paisaia* (*New Jersey Landscape*), *Zuhaitza* (*Tree*) eta *Krisantemoak* (*Chrysanthemums*), 1952koak guztiak—, ekintza desafiataile gisa nabarmendu ziren Mendiak eta itsasoa eta, harekin batera, *Eszena, biluziarekin* (*Scene with Nude*, 1952) lotsagabeki erotikoa. Azken lan hori (hanka batzuk, zabal-zabalik, pubiseko ilea ikusten dela pintura gorritz zipriztinduta) 1970eko hamarkadaren hasierako pintura abstraktu baina ez gutxiago probokatzaile batzuen atarikotzat hartzen dugu orain. Ordurako desagertua zen AEBetako gerraosteko (nekez irabazitako gerra baten osteko) margolaritza mota baten gainazal zakarki enpastatu hura, testosterona eduki handikoa. Batzuen ustez, Frankenthalerren mihise arinki orbanduak

sobera sinplistik ziren, femeninoak, errezesiboak, pasiboak. Ez zuten, itxuraz, “borroka” edo “gatazka” zantzurik erakusten²¹.

Frankenthalerren lanak ez zuen berehala lortu arrakasta, baina ez Greenbergen erruz. Aitzitik, Greenbergekin berehala aintzat hartu zuen margolari gaztearen lorpena, eta artista-talde txiki bat eraman zuen (Kenneth Noland eta Morris Louis tartean, Washingtonetik etorriak biak) Frankenthalerren estudioa, mihisea ikustera, erakusketa bertan behera gelditu baino aste batzuk lehenago²². Baliteke Mendiak eta itsasoa lanak batzuk gogaitu izana, baina ez artista bera. Izan ere, Frankenthalerrek konfiantza hartu zuen bere buruarengan, eta, bere senari men eginez, tamaina handiko mihiseak marrazten eta margotzen hasi zen handik aurrera. Hala ere, arrakasta handi batek ez du zertan beste bat ekarri. Arrakasta eta porrota elkarren eskutik joan ohi dira; bata bestea bultzatzen du.

Horma irekia (*Open Wall*), Frankenthalerrek *Mendiak eta itsasoa* margotu eta urtebetera Ekialdeko 23. kaleko estudioan ondua, norabide posibleen laborategi bizi-bizi bat da. Margolan horrek Motherwellen *Elegia* (*Elegy*) lanarekin edo Newmanen kolore-eremu monokromatikoetako batekin dituen kidetasunek margolari gaztearen erreferentziazko iturrietako batzuk iradokitzen dizkigute, ikaskuntza-kurba azeleratu bateko pautak. Hormak estatikoak izan ohi dira, ezin barneratuzkoak. Aitzitik, argi- eta kolore-izpiek zeharkatutako horma ireki batek arnasa hartzen du. Frankenthalerrek klabe desberdinetan entzuten diren forma sentikorrak barreiatzen ditu bere horman. Margolanaren erdialdera, hiru hatz markaz inprimatutako pintura-lagin gorri batek ikuslearen arreta erakartzen du, odolezko azkon bat bailitzan. Ingerada gorabeheratsua duten forma eszentrikoak pilpiratu eta kulunkatu egiten dira.

Mendebaldeko ametsa (*Western Dream*, 1957) margolaneko zirkuluak eta karratuak (erdialdetik ezkerretara) unibertso propio bat okupatzen dutela dirudi. Zirkulua lerro uhindu batek zeharkatuta dago, eta karratuari eta puntu-multzo bati lotuta, zirkulu-formako lerro beltz baten bidez. Konfigurazio diagramatiko horrek mezuren bat helarazi nahi ote digu? Amets gehienak, zertzelada geografikoak gorabehera, misterioz beterik dira oraindik. *Mendebaldeko ametsak*, urte bereko *Zazpi anbigutasun mota* (*Seven Types of Ambiguity*) margolanak bezala (anbigutasunak ingeles literaturan izan duen paperari buruz William Empsonen idatzitako liburutik hartzen du izena margolan horrek), iniazio-erritu gisa gorteatzen du anbigutasuna. Poesia helburu duten margolanek norberaren arabera esanahia hartzen dute. Gaiak aurre egiten dio anbigutasunari, baina ez du zertan hura deuseztatu.

Pentsamendu mediterraneoak (*Mediterranean Thoughts*, 1960) margolaneko bi irudi gorriak inguratzen dituen lerro gorria gorantz eta ezker-eskuin mugitzen da margolanean zehar, harik eta buelta hartu eta, zuzen-zuzen, lauki urdin baterantz jotzen duen arte. Lauki urdinaren azpian, bihotz urdin bat dago, Zazpi anbigutasun mota margolanean ageri denaren edo ezkondu ziren urtean Frankenthalerrek Motherwelli eskaini zion beste maitemindu-bihotz haren ez oso desberdina. Pentsamendu mediterraneoak margolanaren eskuineko aldean, zango meheak eta buruaren ordean orban beltz bat dituen irudi lirain bat karratu asimetrico baten barruan dagoen antzeko beste orban batekin komunikatzen da. Margolanaren ertzetan, kromatismo bizia nabarmentzen da: kolore horiak, urdinak eta berdeak. Lerro batzuk lausotuta ageri dira, merkuriozko ukitu eta zipriztinen ondorioz. Frankenthalerren pinturretan irudi berezi batzuk azaltzen dira, maitasunak elkartutako bikoteak bailiran, hura Motherwellekin ezkondu zenez geroztik. Antzeko garapen bat ikusten dugu Motherwellen obran ere²³. Zer da, zehazki, irudi bat? Arte plastikoetan, irudi gehienek giza presentzia adierazten dute, baina irudi geometrikoak ere izan daitezke. Irudi musikalek tonu luzeak edo nota bat baino gehiagoko esaldiak adierazten dituzte. Dantzako koreografia bateko irudia mugimenduan dagoen gorputzaren keinu bat da. Frankenthalerren irudimen artistikoan, irudiek hainbat forma eta itxura hartzen zituzten: antropomorfikoak, amorfoak, geometrikoak.

Pentsamendu mediterraneoak lanean, margolari batek ezkontzari egindako oda dirudite irudi pare abstraktuok.

Modan dago karratua izatea

Ezinezkoa zen tximiniaren gaineko koadroari —Rothko bat (*Titulurik gabea*, 1949)— ez erreparatzea. Frankenthaler eta Motherwell senar-emazteen Upper East Sideko etxebizitzako egongelan, Rothkoren pintura multiformeaz gain, baziren beste hiru margolan aipagarri —Smithen Arrano-zaintzailearen erretratua, Frankenthalerren Mendiak eta itsasoa eta Motherwellen Espainiako Errepublikarentzako elegia 70. zk. (Elegy to the Spanish Republic No. 70, 1961)—, goi-mailako laukotea osatuz. Hamahiru urtez (1958–71), adreilu gorrizko etxe hura bizitzaz beterik egon zen: elkargune bat zen, non gonbidatuek arte eklektikoko bilduma bat ikusi, janari goxoak dastatu nahiz arte-munduko beste kide batzuekin ezaupideak egin zitzaketen. Anthony Caro eskultore britainiarrak maitasunez gogoratu zuen New Yorkera egin zuen lehen bisitaren kariaz 1959an Ekialdeko 94. kaleko 173an senar-emazteek haren omenez antolatu zuten afaria: Hady Lamarr aktorearen ondoan eseri zuten, eta, aktorearen beste aldean, David Smith eskultorea²⁴. Anne Truitt, eskultorea hura ere, bizi-bizi gogoratzen zituen egongela eta tximinia: “Frankenthaler zoragarri bat zeukan [ezkerrean]; eta, eskuinean, Motherwell zoragarri bat. Ikusgarria”²⁵. Matisse, Miro eta Rodinen brontzezko eskulturek Ameriketako kolonurreko, Afrikako, Egiptoko eta Indiako objektuekin partekatzen zituzten kafe-mahaiak eta beirazko apalak. “Bi margolari handik” gustu onez diseinatuak, etxebizitzak bazuen nortasunik aski. Ez zen harritzekoa beste lagun batek, Alexander Liberman Vogueko argazkilari, artista eta zuzendari editorialak, bere aldizkarian erreproduzitu izana²⁶. Aurrerago, Anthony Caroren altzairuzko bi eskultura —*Kaxa* (*The Box*, 1971) eta *Babesa* (*Fender*, 1972)— ezarri zituzten atzeko lorategian apaingarri; eta barruan, Nolanden margolan bat, *Helenen hautua* (*Helen's Choice*, 1977), eta Morris Louisen *Aleph saila V* (*Aleph Series V*, 1960)²⁷.

Frankenthalerrek eta Motherwellek 1958an ezkontza-botoak elkarri eman zizkiotenerako, Frankenthalerrek bazuen margolari gisa osperik: eginak zituen erakusketa aipagarriak, jasoak kritikarien aipamenak; bazuen obrarik ikusgai museoetan (museoek erosita), eta bazuen mireslerik ere, gero eta gehiago. Hamalau urteko aldea zegoen bien artean, eta oso desberdinak ziren izaeraz (Frankenthaler irekia, lagunartekoa eta bihurria zen; Motherwell, lotsatia, ikastuna eta itxia), baina inguru pribilegiatuetan haziak eta heziak ziren biak, estimu handitan zeuzkaten bizitzako plazerak eta margolaritzari emanak bizi ziren nola bata hala bestea. Hiru hilabeteko eztei-bidaia egin zuten, Espainia eta Frantziako kostaldeko hiri eta herriak bisitatuz, eta, hasieratik bertatik, arte-sorkuntza (nonahi zeudela ere, edozein ostatutan egonda ere, eskura zuten edozein materialekin artea sortzea, alegia) izan zen senar-emazteak bidaian zehar batuta mantendu zituen itsasgarria. Pinturarekiko isilpeko fideltasun-boto bat partekatzen zuten.

Bidaian zehar bisitatu zituzten tokien artean baziren batzuk besteak baino egokiagoak. Italiako kostaldeko Alassio hiriak, 1960ko abuztuan hara iritsi zirelarik, “durduzatuta” utzi zituen²⁸. Horixe adierazi zion Frankenthalerrek David Smithi idazmakina eramangarri batean idatzitako hiru orrialdeko eskutitz batean. Izan ere, uda zen, eta herriko kaleak, baita bide nagusiak ere, autoz eta turistaz gainezka zeuden; hotelak, dendak eta kafetegiak bezalaxe. “Nazkatuta gaude”, kexatu zitzaion handik zortzi egunera Frankenthaler James Schuyler poetari. Uda hartan alokairuan hartu zuten etxeak “funtzionatzen ez zuten gauza txiki mordo bat zituen (komuna, berogailua, argiak eta gisako gauza txiki horiek)”, baina bazituen langela gisa ondo funtzionatzen zuten espazioak ere. Schuylerri margolan berriak erakusteko irrikaz zegoen. Batzuk “aztoragarriak” gertatzen zitzaizkion; beste batzuk, “zoragarriak”²⁹.

Hiri turistiko horren izena daraman margolan horizontalean, karratu bakarti bat ageri da haizeak astindutako itsas paisaia baten gainean. Karratuaren aldeetako batean, behean, bi puntu gorri ikusten dira aurrez aurre, hidren buruak dituzten bi besoren artean eutsita azpitik. Alassion, Frankenthalerrek beirazko ateetan zehar fotografiatu zuen senarra, hura patioan zutik zela. Marra zuri-urdinekiko elastikoa eta kotoizko galtza zuriak soinean, lokarriak gabeko zapata pare baten gainean jasota galtza barrenak, zorionsua eta osasuntsua dirudi gizonak, pozik. Walter Silverrek Frankenthalerren New Yorkeko estudioan ateratako beste argazki batean, bikotea eztei-bidaia itzuli berritan egina seguru asko, artean sinaduraz identifikatu gabe zegoen bere margolanaren aurrean eserita dago Frankenthaler, karratuaren eskuinaldean. Mihisean zehar zabaldutako kolore lausoko margo-orban zentrifugo zirimolatsuen testuinguruan, karratuak egonkortasun lasaia adierazten bide du. Frankenthalerrek, Behe Manhattaneko modako jendearen artean ibilia baitzen, bazekien giro hartan norbaitengatik oso karratua zela esateak besteak beste esan nahi zuela maitasun-harreman egonkor bat edukitzea. *Alassio* (1960) margolaneko karratu hori batasun artistikoaren —artista-bikoteen historiako batasun emankorrenetako baten— ezaugarria ote da? Irudi sendo hori, kolore gorri eta beltzeko ukitu bikoitzek laztandua, Frankenthalerren senarraren ordezkio erretratuak izan ote liteke?³⁰

Artista-bikote batek elkarren sormen-bideek modu magikoan bat egiten duten gune sendo bat baldin badu, Frankenthaler-Motherwell senar-emazteena 1959tik 1969ra familiakoekin eta lagunekin Cape Coden (Massachusetts) igarotako udak izan ziren. Haien lehen uda-etxea Falmoutheko itsasertzean alokatutako bat izan zen. Margotzea beti izan zen lehentasuna haientzat, baina ez inola ere lagunak gertu izateko aukeraren kaltetan. Uda hartan, hondartzan egon ziren Mark eta Mell Rothkorekin, eta bidaia egin zuten Amagansettera, errepidez, Rothkoren lagun on bat, Herbert Ferber eskultorea, eta haren bigarren emaztea, Ilse Falk arte-historialaria bisitatzerako joateko. David Smith, etxean hartu zuten lehen gonbidatuetako bat, giro hotzerako prestatuta azaldu zen, galtzak eta mahuka luzeko alkandora jantzita. 35 mm-ko kamerarekin, hondartzako aulki tolesgarri batean eserita fotografiatu zuen Frankenthalerrek laguna, etxe aurrean, kopa bat hartzen senarrarekin. Beste batean, bere estudio inprobisatuan, eskultorearen erretratu samurrenetako bat egin zuen, hura eserita zegoela bere azken margolanaren aurrean: *Sehaska-kanta* (*Mother Goose Melody*)³¹.

Hurrengo udatik aurrera, senar-emazteek Provincetown hartu zuten erretiro-leku iraunkortzat. Han ere, New Yorken bezala, margotzen jarduten zuten, lan eta lan, eta, lanorduen ondoren, arte munduko gonbidatuak hartzen zituzten. Ugariak dira lagunarteko bileretako argazkiak, horietako asko Frankenthalerrek berak egindakoak. 1963ko udan, hantxe agertzen dira, Sea Barneko etxeko patioan eserita, Henry Geldzahler eta William Seitz komisarioak, Irma Seitz, Motherwell, haren alaba Jeannie eta Lise, eta Hans Hofmann margolariaren alboan eserita. Hantxe dago Frank O'Hara ere, urtebete geroago, Motherwellekin batera patio horretan atsedean hartzen. Hantxe Smith, Cleve Gray margolaria eta haren emaztea, Francine du Plessix Gray idazlea, Bryan Robertson komisario britainiarra eta Paul Huxley idazlea, 1964an. Eta 1968ko udako argazki polit bat batean, hantxe agertzen dira Frankenthaler eta Barbara Rose arte-historialaria, birentzako besaulki batean eserita atsedean hartzen.

New York eta Provincetownen arteko leku-aldaketa ez zen hain erraza gertatzen margoketa-lana udako lan-erritmora egokitu behar zenean. Distrakzioak mugatu eta adimena baretzeko, ezinbestekoa zen egokiro uztartzea familia eta lagunak estudioko etengabeko lanorduekin. Era bateko edo besteko distrakzioak gorabehera, Provincetowneko udaldiak zein New Yorkeko negualdiak guztiz emankorrak izan ziren Frankenthalerrentzat. Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, margotzeko modu berriak deskubritu zituen, material berriak, eta akrilikoekin esperimentatzen hasi zen³². Hiri-kumearen begirada etxe orratzen

arteko arroiletatik hodeietara aldatzen zelarik, zerua zabalagoa egiten zen eta haren irudimena askarazten zuen. Bestelako abstrakzio mota bat inspiratu zioten itsasertzeko hodeiei begira egoteak eta hodeitza zeru urdin bilakatzen ikusteak. *Forma beltzak karratutik at* (*Black Shapes in Off-Square*), *Zirkuluaren gainean* (*Over the Circle*), *Irudi karratua* (*Square Figure*), *Laranja-kolorea bidea irekitzen* (*Orange Breaking Through*), *Provincetown I*, *Beltxargen aintzira I* (*Swan Lake I*) eta *Forma urdina eszena batean* (*Blue Form in a Scene*) margolanak (1961ekoak guztiak) deigarriak eta eskematikoak dira, aztoragarriak eta lirikoak aldi berean. Karratu eta laukizuzenek zirkuluekin eta beste irudi sentikor batzuekin eragin-trukean dihardute eszena lasaietan. Mihise batzuek —*Uda freskoa* (*Cool Summer*, 1962), *Hiru bola gorri* (*Three Red Balls*, 1962), *Lurmuturra* (*The Cape*, 1962) eta *Olatuhorma* (*Breakwater*, 1963)— leku zabaletako bilera sozialen sentsazioa iradokitzen dute.

1964an, *Lurmuturra* (*Provincetown*) [*Cape (Provincetown)*] margotu zuelarik, Frankenthalerri iruditu zitzaion akrilikoa hobeto egokitzen zitzaiola berak egin gogo zuenari. Halaxe adierazi zion Henry Geldzahlerri elkarrizketa batean, abstrakzio gestualetik haragoko urratsa egitea “norberaren marka propioari uko egiteko modu” bat bezala deskribatzean³³. “Norberaren marka propioari uko egite” horrek markatu zuen Frankenthalerren ustez Pollocken gestualitate bizitik —marraskia imitatzen zuten markak eginez— harago jo ahala egin zuen trantsizioa. Norberaren markari uko egiteak keinua eta marraskia beste testuinguru piktoriko batean zer izan zitezkeen berrirudikatzea esan nahi zuen. Honela azaldu zuen hori Hunter Collegeko arte-ikasle batzuen aurrean: “Marraskia koloreen formatatik sortu beharko litzateke, eta ez ‘hau lerroen edo muga-ertzen edo patroien arabera antolatzetik’. Eta nik asko sinesten dut marraskian, gehienbat marraski gisa agertzen ez denean”³⁴. Ertzak lerro gisa marrazteko asmo berria kolore akrilikoarekin egindako esplorazioak bistartzeko modu bat zen, hiru urte geroago Frankenthalerrek Barbara Roseri azaldu zionez: “Beste hitz batzuetan esanda: ezohiko kolore-tonuak nahasten eta erabiltzen nituen, baina nire koadroko marrazkiari mugimendua atxikitzen ziotelako. Ez kolorea sartzeko ideia gustukoa nuelako. Baina kolore haiek ziren nire marrazteko modurako baliabide egokiena, eta ‘marraztea’ diodanean, ez naiz ari ‘lerro bat egiteaz’ —lerroa ere balia nezakeen arren—, marrazteko, irudikatze edo lan egiteko nire moduaz baizik”³⁵.

Lurmuturra (*Provincetown*) lanak, Frankenthalerren aldi horretako margolan “karratu eta enkoadratu” ugarietako batek, antzekotasun nabarmenak ditu Rothkoren 1940ko hamarkadaren bukaerako mihiseekin³⁶. Gatozen berriro egongelako Rothkora (Motherwelli egindako opari bat), eta egin ditzagun zenbait galdera: Han bilduta zeudenek hitz egiten ote zuten pintura horri buruz? Rothkoren portale argitsu eta lauso haiek gogora ekarri ote zizkieten karratua erabili zuten beste margolari batzuei buruzko ideiak (Mondrian, Malevich, Albers, Reinhardt)?³⁷ Rothkoren karratu eta laukizuzenek eragin ote zituzten bestelako asoziazio batzuk, arinagoak, hala nola etxeari, ezkon-bizitzari edota etxeko bizimoduari buruzkoak?

Frankenthalerrentzat Pollock izan zena berrogeita hamarreko hamarkadan Rothko izan zen hirurogeiko hamarkadaren hasieran: beste mota bateko irudi abstraktuak margotzeko katalizatzailea, alegia. Berrogeiko hamarkadaren erdialdean eta amaieran, artean bere burua surrealistentzat zeukala, Rothkok “dramak” balira bezala irudikatzen zituen koadroak, eta haietan agertzen ziren formak, berri, “interpreteak” balira bezala, “artegatu gabe modu adierazkorrean mugitu eta lotsatu gabe keinuka ari zitezkeen” antzezleak balira bezala³⁸. 1949rako, Rothkoren aktoreetako asko desagertuak ziren, isiltasunak apaindutako aldamio zuzen eta goranzko bat soilik utzita. Robert Plantek *Stairway to Heaven* abestu baino hamarkada batzuk lehenago, Rothkok margotua zuen huraxe. Espazio zehaztugabe batean igerian bezala zeuden argizko portale haiek ez ziren artean Frankenthalerren gogoan izango bere lauki sareak

sortu zituen³⁹. Bere estudioan gertatzen ari zenarekin hunkituta, Sonya Rudikoff lagun minari idatzi zion, “forma sinpleak eta kolore distiratsuak [pintura plastikoa (akrilikoa)]” zituzten “koadro handi” batzuk deskribatuz. “Lanok”, onartu zuen, bere ohiko estilo jostarian, “alaiak, distiratsuak eta arinak dira itxuraz, baina indartsuak eta agian ez hain alaiak, izatez”⁴⁰. Rothkoren belaunaldiko artistak bere metodo eta irudien jabe izan zitezkeen (artista baten markaren baliokidea da hori). Zer pentsatzen ote zuen Rothkok bere ideietako batzuk moldatzen zituen margolari gazteago hartaz?⁴¹ Arreta handiagoz aztertu beharrekoak dira Rothkorekin, Motherwellen *Uda Italian* (*Summer in Italy*, 1960) margolanen oinarrian dauden itsas olatuen zerrenda ildaskatuekin eta are Philip Gustonen beraren 1950eko hamarkadaren amaierako eta 1960ko hamarkadaren hasierako margo multiforme batzuekin zituen antzekotasunak⁴².

David Smithen altzairuzko eskultura margotu bat eta Anne Truitten zurezko zutabe margotu bat —biak 1960ko hamarkadakoak— Frankenthalerren *Tutti-Frutti* (1966) eta *Giza muga* (*The Human Edge*, 1967) lanen galeria berean ikustean, erraz ulertzen da zergatik egin ziren hain lagunak hiru artista horiek. Tutti-Fruttiko hodei arinak lasaikeriaz mugitzen badira, Giza mugako bandera lerrozuzenak monolito baten eran egiten dute behera. Giza mugak ez dira nahitaez zuzenak. Bere pinturetan umorea sartzen zuen espiritu berarekin onartzen zituen Frankenthalerrek akatsak. Itxaropenak berdintzen zituzten bi gauzek. Araurik ezean, norbera libre da bitartekoak nahieran nahasteko, parekatzeko eta konbinatzeko, bai eta ustekabekoa bilatzeko ere.

Smith eskultoreak margolari baten moduan pentsatzen zuen, hasieran margolari izan zelako. Bere azken eskultoretako batzuei kolorea ematea erabaki zuenean, jakinaren gainean hartu zuen erabakia. *Titulurik gabea* (*Zig VI*) [*Untitled (Zig VI)*, 1964] eskuz margotuta dago, kolore horiko hainbat geruzatan. Pinturak bizitasuna eman zion eskultura lan hari, bigarren azal bat erantsiko balio bezala, trantsizioak azpimarratuz eta tentsio espazialak sortuz. Smith, Frankenthaler bezala, formen sortzaile bikaina zen: forma eta irudi eszentrikoak sortzen zituen metal-xaflak ebakiz eta soldatuz. Eta geometriarekin zuen harremana, era berean, ludikoa izan zitekeen. Irribarrea eragiten du *Titulurik gabea* (*Zig VI*) bezalako pieza batek —bata bestearen gainean pilatutako habe astunak, soldatuak, gurpiltxo batzuen gainean muntatuak, Tonka markako haur jostailu monumental baten antzera—. Gauza bera gertatzen da bere lagunari oparitu zion brontzezko *Titulurik gabea* (1961) piezarekin: elkarren gainta jarritako piezen nahaste-borraste bat da, *Tutti-Fruttiren* indar orgiastiko berak animatua. *Titulurik gabea* bezain determinatuta da geometrikoki, eta inflexio figuratiboak ditu. Smithen giza irudiarekin zuen harremana Frankenthalerrek zuena bezain mugagabea zen. Margolari espresionista abstraktu zale amorratuenentzat pintzelkada zer, horixe bera zen gerraosteko eskultoreentzat irudia: funtsezko auzi bat, norberari eta gizateriari buruzko oinarritzko galderak adierazteko bitarteko bat. Smithen Bolton Landingeko etxean egin zituen friso-itxurako ehunka marrazkiak —lanordu luzeen emaitza— garai hartako kritikari entzungor egiten zion irudimen eskultoriko baten testigantza dira⁴³.

Frankenthalerrek eta Truitten lagun eta bizi esperientzia berdinak izan zituzten: antzeko jarrerak artearen munduarekiko, familiarekiko eta, azkenik, arazo eta kezka berak zahartzearekiko. Noland eta Greenbergen bidez ezagutuko zuten elkar, seguru asko⁴⁴. Truitten New Yorkeko Andre Emmerich galerian egin zuen lehen erakusketa, 1963an, eta, geroztik, posta bidezko harremana izan zuten biek hogeita hamar urte luzez. Nola bata hala bestea erabat lotu zitzaizkion margolaritzari, eta Truitten, Smithen berak bezala, eskultura-lanarekin batera nahiz modu independentean landu zuen arlo hori. Truitten *Hazia* (*Seed*, 1969) lanak dimentsionaltasuna irabazten du bere gainazal margotuen bidez. “Nire zutabeetako bati angelu batetik begiratuz gero, kolorea ‘nabarmetzen’ da beti”, idatzi zion Frankenthalerri 1991n⁴⁵. Truitten Cleveland Parkeko (Washington D.C.) estudioan sartzen bazinen ilunabarrean, bazitekeen argi leun

batez blaitutako koloretako zentinela-talde batekin topo egitea aurrez aurre. Eskultoreak oso aintzat hartuko zuen margolariak giza-mugei buruz egiten zuen interpretazioa. Truitten zutabe baten ertzak nahita lerrokatuta dauden arren, momenturen batean beste zutabe mota bat irudikatu zuen, kurba organiko bat izan zezakeen bat, “Partenongo zutabeen kurba delikatuaren antzeko bat, Antzinako Greziako kurba arin hori, forma askatzen duena”⁴⁶. Hirurogeita hamar urte betetzean, University of Maryland College Park unibertsitateak erretiroa hartzera behartu zuen Truitt (eta beste irakasle titular batzuk). Diru-faltagatik kezkatzen hasia zela, biziki damutu zitzaion hainbat urtez “barne-begiaz” ikusten ziharduen hura, egunen batean “gauzatzea” espero zuena, gauzatu ezin izana⁴⁷. Gaur, figura horiek nolakoak izango ziren imajinatu besterik ezin dugu egin. Frankenthalerrek atseginez ikusiko zituen, seguru asko, haien kurbadura sotilak, oso maite baitzituen kurbak eta lerro zuzen humanizatuak.

Eskultoreen pintorea

Frankenthalerrek oso gogoko zuen eskultura. Hiru dimentsioko lanerako begia garatu zuela eta eskulturez inguratuta egon nahi zuela esaten zuen⁴⁸. Guztiz erakargarria zitzaion eskulturaren materialtasuna, haren eta espazioaren artean sortzen zen eragin-truke hori. Eskultore lagunak izateak haren behar estetiko bat asetzen zuen. Caro 1959an sartu zen haren lagun zirkuluan, eskultorearen debuta ospatzeko Ekialdeko 94. kaleko etxebizitzan egin zuten festaren ondoren⁴⁹. Urte batzuk geroago, Nolandek eta Smithek gomendatuta, Bennington Collegen eskultura eskolak emateko kontratatu zuen Feeleyk, eta, ordutik aurrera, denbora gehiago eman zuen Estatu Batuetan. Vermontera iritsi aurretik, Smithek lanari ekin zion soldadura-saila ekipo eta hornidura berriekin osatzeko. Carok Smithenganako zuen begirunea, Greenbergen babesak areagotua, ez zen inoiz ahuldu, ezta Smithen heriotza goiztiarraren ondoren ere, kritikariek haren ondorengo izendatu zutelarik⁵⁰.

Caro eta haren emaztea, Sheila Girling margolaria, Frankenthalerren familia zabalean sartu ziren. Apopilo jatorrak eta atseginak izan ziren. Berrogei urte baino gehiagoan egindako bisitetako batzuk argazkietan jasota daude, eta haien adiskidetasunaren lekukotasun adierazgarria dira. Caro eta Girling senar-emazteak Venezian elkartu ziren Frankenthaler eta Motherwellekin (1966), Frankenthaler Bienalerako aukeratu zutela eta Carok Britainiar Pabiloian parte hartzen zuela ospatzeko, eta Motherwellek argazkiak atera zizkien hirurei Lidon; bost urte geroago, 1971ko udazkenean, Frankenthalerrek Caro bisitatu zuen Benningtonen; lau urte geroago, Caro, Greenberg eta Michael Steiner eskultorea Frankenthalerren New Yorkeko estudioan agertu ziren; handik urtebetera, Frankenthalerrek Washington D.C.ko National Gallery of Art bisitatu zuen Carorekin (eta Nolandekin). 1977an, Frankenthalerren New Yorkeko estudioan agertu zen Caro, Perry Miller Adato zinema-zuzendariarekin eta haren taldearekin batera, Adato margolariari buruz egiten ari zen dokumentalean parte hartzeko; 1982ko maiatzean, Andre Emmerichek argazkia atera zion Carori (modu informalean jantzita zegoen: mahuka motzeko alkandora, galtza kakiak eta kirol-zapatilak), Frankenthalerrekin hizketan ari zela, margolariak bere estudioan bi astez lan egitera gonbidatu zuen batean; 1987ko maiatzean, La Poligrafa, S.A. argitaletxean zegoela, Frankenthaler Carorekin elkartu zen Bartzelonako Triangle Taller lantegian; eta hiru urte geroago, 1990eko udan, berriro elkartu zen harekin, bera artista bisitari zela oraingoan, Pine Plainseko (New York) Triangle Workshopen egoitza nagusian. Frankenthalerrek 1993ko maiatzean Stephen DuBruli egin zion argazkia —Carori besoaz helduta, barrez, eskultorearen Londresko estudioan— haren bizitzaren beste atal baten lekuko da; handik gutxira, Stephen DuBrulekin ezkondu zen.

Carok —gazteagoa— Frankenthalerren *Daviden gurdia* (*David's Chariot*) eskulturari argazkia atera zion aurrerantz makurtuta; hura izan zen Frankenthalerrek 1972ko udan Caroren Londresko estudioan egin zituen hamar eskultoretako bat. Baliteke Frankenthalerrek ateratakoa izatea Caro jarrera hartan ageri den argazkia —Frankenthalerrek Smithi eskainitako eskulturari argazkia ateratzen ari zaiola—. Adiskidetasunaren irudi bitxia benetan! Frankenthalerrek Caroren estudioan egin zuen bi asteko egonaldi hartako eskultura askok Smith dakarte gogora; izan ere, Smithek animatu zuen behin eta berriz Frankenthaler eskulturak egitera, eta, animatu ez ezik, lanabesak, materialak eta lanlekua ere (Bolton Landingen) eskaini zizkion maiz. Lagun eskultorea ohoratzen dute ez bakarrik erabili zituen materialek (horietako batzuk Smithen estudiotik bertatik ekarriak), baita horiek manipulatzeko, ebakitzeko, soldatzeko eta konposatzeko moduak ere. Margotzen zuen modu berean heldu zion Frankenthalerrek eskultura-lanari: intuizioz. Carok noizbait esan zuenez, bere gonbidatua “prest sentitzen zenean, lan egiten zuen” eta “nekatuta zegoenean, gelditu egiten zen”. Erabateko konfiantza zuenez bere intuizioan —bere interpretazioan—, “freskotasan handiko” obra bat izaten zen beti emaitza⁵¹. Frankenthalerren metodoak bateragarriak ziren Carorenekin. Caroren *Eskaileretan gora* (*Ascending the Stairs*, 1979–83) izeneko obra, Frankenthalerrek eta biek Washington D.C.ko Gallery of Arten Smithi buruzko sinposio batean parte hartu ondoren amaitu zuen lan kutuna, atalez atal garatu zen, soldaduraz soldadura, Frankenthalerren *Matisse mahaia* (*Matisse Table*), Londresko hiriguneko mapa (*Heart of London Map*) eta *Patioa* (*Yard*), 1972koak guztiak, garatu ziren modu berean. Denbora errealean zehar garatzen zen ikuspegi konstruktibo bat zuten biek, Smithek bezalaxe. Obrak asebetetzen ez bazituen, haren zati bat desmunta zezaketen, edo erabat baztertu. Eskaileretan gora eskulturaren atzeko partean, kubo txiki bat ageri da. Altzairuzko eranskin baten azpian dago kokatuta, eta oharkabea pasa daiteke erraz asko. Smithen Cubi saileko azken lanaren erreferentzia maltzur gisa ere interpreta lezakete batzuek: adiskideen arteko ezkutuko lokarri bat bezala edo.

Patioaren eta Smithen *Arrano-zaintzailearen erretratuaren* arteko loturak nabariak dira altzairuzko plaka soldatuetan, haien ertz horzdun eta proiektzio mehatxatzaileetan. Ez dago ezer estatikorik Frankenthalerren piezan: xafla ganbiletan ebakitako ateetan zehar zirkulatzen du espazioak berak ere. Ateetako batek zulo txoak ditu bere zirkunferentziaren buelta osoan, eta erliebedun buloiak, milaka ilargiz inguraturiko eguzki baten antzera. Beste ateak Smithen olio-tangaren arrastoak ditu; tanga bat zentrotik kanpo soldatua, eta bi buloi dituen, bi begi irtenen antzera nabarmentzen direnak. Altzairu xafla desberdinez loturiko bi irudiek erresistenteak dirudite, gogorrak.

Matisse mahaia, bere gainazal makurtuarekin, haizemaile-itxurako formekin eta natura hil batetik hartuak diruditen elementuekin, bere iturri historiko-artistikoari egiten dio erreferentzia, zalantzarik gabe. Matisseren *Barne gorri handia* (*Grand intérieur rouge*, 1948) lanean irudikatuta dauden lau mahaietatik Frankenthalerrek inspiraziotzat hartutakoa da, alde handiz, abstraktuena; eta bere interpretazioan nabarmendu nahi izan zituen atalak irudikatu zituen Caroren estudioko horman zintzilik dagoen Matisseren margolanaren posterrean oinarrituta egindako zirriborro txikian: 122 cm-ko altuera duen habe bat (haren goiko aldeak etxe orratz baten gailurra gogorarazten du), disko erdi bat soldatuta duena, eta herdoil-patina bat duten bi forma heraldiko elkarrekin gurutzatuta, horietako bat ertzean soldatuta. Mahaia ezegonkorra dirudi; azpian, erdialdea, esfera baten itxurakoa, sabelduxea dago. Smithen azken eskultura zirkularren eta Nolanden ituen erreferentzia iragankor batek justifika ditzake, nolabait, mahaia idiosinkrasietako batzuk, baina ez, inola ere, Matisseren margolaneko ananaren ordezkari hiru zisku konkaboak, zeinak sentsualitate lotsagalduko forma misteriotsu gisa nabarmentzen baitira.

Cindy Nemser arte-kritikariak Arts Magazine aldizkarirako elkarriketa egin zion Frankenthalerri 1971ko udazkenean, artistak bi erakusketa zituela aldi berean martxan, Goi eta Behe Manhattanen, Andre Emmerich Galleryren bi egoitzetan⁵². Hamasei lanetik gora zituen erakusgai, haien artean *Goizak* (*Mornings*, 1971), zeinak ezustekoan harrapatu baitzituen bisitari asko, Nemser bera barne: hain zuzen ere, irudi probokatzailerik haiek zer esan nahi ote zuten eta zeri erantzuten ote zioten jakiteko irrika sortu zitzaion⁵³. Kritikaria saiatu zen, itxura denez, margolariak konposizio haien gaiei buruzko informazioa eman ziezaion. Frankenthaler, anbiguotasunaren betiereko erregina, ordea, irmo agertu zen eta azaldu zuen nagusiki auzi estetikoek zihardutela bere koadroek. Hara nola hasten den bien arteko elkarriketa:

Cindy Nemser: Badakit behin baino gehiagotan galdetu izan dizutela zure obrak naturari erreferentzia egiten dioten. Helen Frankenthaler: Natura hitzarekin zer esan nahi den, horren arabera. Zer da zuretzat natura?

CN: Kanpoko munduarekiko erreferentziak esan nahi dut.

HF: Tira, ez naiz ari paisaiak margotzen.

CN: Baina zure koadroetan paisaia dagoela esan liteke.

HF: Uste dut badagoela, egon, baina ez ahalegin kontziente baten ondorioz. Ez natzaio naturari lotzen *per se*. Irudiak sortzeari lotzen natzaio. Uste dut zuk natura deritzozun hori badela nire koadro batzuen ezaugarria. Baina, askotan, “naturarekiko” loturak helduleku modura erabiltzen dituzte askok, pintura abstraktu bat nola irakurri jakiteko pista modura [...] Beren arazoa da hori, natura egon nahiz ez⁵⁴.

Sesamo (*Sesame*, 1970) obra formazio geologikoen edo barrunbe somatikoen tankera duten irudi-sorta baten aitzindaritzat har liteke. *Barruti malba* (*Mauve District*, 1966), Frankenthalerren Whitney Museumeko 1969ko atzerabegirakoan erakutsia, 1969an, irudi profetiko bat da: inprimaziorik gabeko mihiseak eratutako argi-izpi bat sartzen da goiko aldeko ezkerretik eta beheantze egiten du kolorezko beloak zeharkatuz. Andre Emmerich galerietan erakutsitako zenbait margolan —*Benetako urdina* (*Genuine Blue*, 1970–71) eta *Kontseiluko presidentea* (*Chairman of the Board*, 1971)— monumentalak ziren. Eszentrikoak direla esanez deskriba litezke lan horiek. Eta haiei buruz orobat esan liteke sentsualak direla.

Amildegia tankerako bailara bat halaber hauteman liteke erditze-bide gisa ere. Kolorezko orban eta isuriak, gorputz organiko txikiak itxuratzen dituztenak, Matisse mahaia laneko hiru elementuen tankerakoak batzuk, ageri dira pasabide estuak betez. Forma anatomikoak iradokitzen dira, sotilki, *Zartada malba* (*Lashing Mauve*), *Ilargiko enbaxadorea* (*Ambassador to the Moon*) —biak 1971koak— eta *Kobrezko arratsaldeak* (*Copper Afternoons*, 1973) lanetan. Eta, barrunbea kolorez beteta dagoelarik ere —adibidez, *Kablea* (*Cable*), *Pistatxoa* (*Pistachio*), *Pasabidea* (*Passage*) eta *Goizak* (*Mornings*) koadroetan (1971koak guztiak)—, haren presentzia eta pultsua sumatzen da⁵⁵. Kolore beltz eta gorrizko pintzelkada nahaspilatu batzuk ikusten dira pasabidean zirriborratuta edo ile-xerlo nahasian tankeran hartatik barreiatuko balira bezala. Lerro batzuk dardaratiak dira, eta halako umore edo erotismo ukitu bat darie; beste batzuk, adibidez *Goizak* koadroko itsas apar zurian iltzatutako dardoak agresiboagoak dira, labankaden modukoak.

Barbara Rosek bilakaera horren zantzuak ikusi zituen Frankenthalerren Ekialdeko 83. kaleko estudioa bisitatu zuenean, 1970eko udazkenean Kaliforniako Unibertsitatean artearen historia irakastera

Mendebaldeko Kostaldera itzuli aurretik⁵⁶. Irvinetik Berkeleyra bidaiatu zuen, University Art Museum bisitatzeko asmoz, non baitzegoen ikusgai Frankenthalerren lehenagoko mihise bat, *Haitzuloen aurretik* (*Before the Caves*, 1958). Hotelera itzulita, hamar orrialdeko gutun bat idatzi zion Rosek lagunari. Obrari behatzean, asaldura eragin zioten zenbait lotura etorri zitzaizkion burura. Lehenik, “ikustean” “173” zenbakia koadroaren goiko aldean, eskuinean, nabaritu zuen “sentsazio izugarri erdiragarri bat” sabelean. Itxura denez, zenbaki hark garai zoriontsuagoak ekarri zizkion gogora; hain zuzen ere, bere bigarren senarrarekin, Frank Stella margolariarekin, Frankenthaler-Motherwell bikoteak Ekialdeko 94. kaleko 173an zuen etxean izan zireneko garaiak. Baina dibortziatu berriak zirelarik, “egun haiek”, adierazi zuen Rosek, Stella aipatuz, “betirako joan dira”. Gero, gogoratu zituen Frankenthalerren estudioan ikusitako margolanak, eta adierazi zuen “zinez sakonak” zirela. “Xarmatu eta aztoratu ninduten”, eta miretsi zuen Helenen “talentua, egia kontatzeko gaitasuna, egia gogorra delarik ere”⁵⁷. Modu askotan ager daiteke egia. Handik bi urtera, 1960ko hamarkadaren hasieran Columbia Universityko graduondoko ikasketak egiten ari zenean izandako legez kanpoko abortuaren kontakizun lazgarri bat argitaratu zuen Rosek New York aldizkarian⁵⁸.

Zer aztertu asko dago Frankenthalerrek 1969 eta 1973 artean margotutako koadroetan. Lehenik, pinturari dagozkion auziak aipa daitezke: nola dauden eginak, nola aktibatzen dituen espazioak forma, koloreak irudia eta lerroak gainazala. Abstrakzio gisa, anbiguoak dira oraindik. Edonola ere, artea bere esanahiari kolorea eman diezaioketen inguruabarretan oinarritzen da. Rose ez zen ezkonbizitzan arazoak zituen lagun bakarra. 1971ko martxoan, Truitt ere senarrarengandik dibortziatu zen. Eta Frankenthalerren beraren ezkontza 1971ko uztailan amaitu zen. Hiru emakumeek trantsizio traumatikoei aurre egin behar izan zieten. Gainera, Estatu Batuetako joera kulturean norabide-aldaketa aipagarri bat gertatzen zen, AEBko Goi Auzitegiak Roe Waderen kontra kasuan hartutako erabaki historikoaren bidez. Ahalduntzea datza sentitzean gai zarela zure irizpide propioaren arabera hitz egiteko, idazteko, jarduteko edo margotzeko. Baita historiaren mihisea bermargotzean ere.

1973–74 urteetako irudi horizontal ikusgarrien sorta batekin —*Karratu zurixka* (*Off White Square*), *Bassano ukitu bat* (*Hint from Bassano*), *Urdin mugikorra* (*Moveable Blue*) eta *Apirileko gogoaldartean* (*Under April Mood*)—, Frankenthalerrek maila harrigarri batera eraman zituen orbantzeko teknikaren mugak⁵⁹. Urdin mugikorra maisulanak erakusten du, besteak beste, nola lan egiten zuen, konfiantza osoz pintura isuriz, margotuz eta marraztuz. Bolada onean zegoen, bere bulkadei jarraitzen zien eta dena jartzen zuen jokoan, irudi bakoitzaren dinamika espazialari adi beti. Horrek egiten edo desegiten du irudi bat, gorarazten du amets bat bezala edo deuseztatzen du. *Ocean Drive West #1* (1974) obra monokromatikoa bada ere, zeru-urdinez betea, gainazalari bizitasuna ematen diote lerro prismatikoen bidez nabarmendutako ukitu zuriek.

Connecticuteko Shippan Pointeko estudioko egongelatik, Long Islandeko itsasartearen ikusmira zabala zuen Frankenthalerrek⁶⁰. Atsegin ematen zion uretatik hurbil egoteak, Provincetownen igarotako uda ugarietan bezala. Itsas ikuspegiak gehitu zitzaizkien paisaiei, margolan abstraktuagoetan —lan tonalak eta atmosferikoak, gainazalean artikulazioak eta ñabardurak zituztenak, nahiz ez—. 1970eko hamarkadaren erdialdean “zerrendak” margotutako obren sail batek hiri-ingurune bateko goranzko lerroak iradokitzen ditu. *Plexoa* (*Plexus*, 1976) lanaren albo bietan ikusten diren zerrenda bertikal zuriek gainazalean halako arnasbide edo zirrikitu batzuk irekitzen dituztela dirudi. Baina aldi berean konprimatzen dute konposizioaren erdigunea, belakia edo pintzela erabiliz leunki lausotutako kolorezko hodeiak. Frankenthalerren zerrendek *Giza muga* (*The Human Edge*) obrako banderen energia erratiko bera adierazten dute. Newmanen zipekin (kremailerekin) duten afinitatea Frankenthalerrek oraindik

interesgarria zeritzon artea egiten zuten beste artista adinkide batzuekin zuen lotura jostagarriaren beste erakusgarri bat da⁶¹.

Atalaseak

Adin ertainera iristea igarotze-erritu bat da edonorentzat. Frankenthaler bezalako artista batentzat, adin ertainaren atalasea zeharkatzeak errealitate berriei aurre egitea esan nahi zuen. Bazekien zer garrantzitsua zen New York hirian presente egotea beste artisten lanak ikusteko eta negozioak egiteko. Bazekien, halaber, lasaigarria ez ezik berarentzat funtsezkoa ere bazela denbora gehiago ematea hiritik kanpo, zalapartatik urrun, inguru lasaigoetan, uretatik hurbil. Oreka topatzea zen kontua. Frankenthalerren 80ko eta 90eko hamarkadetatik 2000ko hamarkadako lehen urteetara bitarteko agendak eta egutegiak aztertzean, etengabe batetik bestera ibiltzen zen pertsona bat ageri zaigu. Bere bi estudioetako batean margotzen edo lantegietako batean grabatuak egiten ari ez bazen, artelanak ikusten, sozializatzen, higiezinak ikusten, estudioak eta etxeak berritzen, hitzaldiak eta eskolak ematen, sariak jasotzen edo bidaiatzen ari zen. Errutina zorrotza zuen, eta erresistentzia harrigarria. Hala ere, haren bizitzak 180 gradu bira eman zuenean, ondoan izan zituen lagun zaharrak, laguntzeko prest beti.

1983ko urtarrilean Caro eta Girlingi urte berri ona opatzeko idatzi zien sei orrialdeko gutuna zer pentsatua ematen duen errealitate-dosi bat bezala interpreta daiteke. “Belztasun moduko batean” murgilduta egon zen. Gero eta arrakasta gehiago izan arren, “bat-batean zaharrago” sentitzen zen. Bizitzak “hutsa eta galderaz betea” zirudien. Gorputzez ere “hauskor eta baldar” sentitzen zen. Adinak berekin dakarren aldaketa erabateko hori ari zen sumatzen, “adinak historia luzatu ahala gero eta mingarriago zaizkigun galera haien inguruko pentsamendu ilunak”. Giroz aldatzeko beharra zuen, eta bidaia txikiren bat egin ahal izatea espero zuen. Astebete opor hartu eta Floridara edo Europara joango zen agian, “aldi baterako”, Stamfordeko (Connecticut) etxea eta estudioa atzerriko beste bizileku eta lanleku batekin trukatu⁶². Goibelaldiak ez zion eragotzi eskuartearen zituen proiektuen inguruan harro agertzea: batetik, paper gaineko lanen erakusketa bat prestatzen ari zen Guggenheimerako, bere laguntzaile Maureen St. Ongerekin eta Karen Wilkin artelaren arduradunarekin batera; baita berari buruzko liburu monografiko bat ere, John Elderfield kuratoreak idatzia⁶³. Gainera, Elderfielden monografiaren argitalpena berrogei margolanen atzera begirako erakusketa batekin (1989, Modern Art Museum of Fort Worth) batera gertatu zen⁶⁴.

Elderfielden luxuzko liburua atzerabegirako inprimatu baten parekoa zen, nolabait esateko, artistaren bizitza osoan zeharreko lanaren azterketa egiteko beste aukera bat. Frankenthalerrek artearen historiari beti izan zion begirune hori, Feeleyrengandik Benningtonen jaso zituen eskoletan jada elikatzen hasia, ez zen inoiz itzali. Paleolitoko haitzuloetatik hasi eta Moneten lgebelarrak ospetsuraino, garai guztietako artean inspiratu zen Frankenthaler etengabe, eta 70eko eta 80eko hamarkaden amaieran inspirazio eraberritua aurkitu zuen maisu zaharren margolanetan⁶⁵. Nola heltzen dio sortzaile plastiko batek arte historikoari? Nola interpretatzen du ikusten duena? Artearen hizkuntza tekniko (espazioa, kolorea, egikera...) pinturen gainazalean idatzita dago, haiek hurbiletik aztertuta ikus daitekeenez. Xehetasun hunkigarrienetako batzuk abstraktuak izan daitezke⁶⁶. Barbara Rosek 1968an Frankenthalerri galdetu ziolarik maisu zaharren zer margolan zituen kutunenak eta zer ikusten zuen haietan, hauxe erantzun zuen margolariak, eta pista bat ematen digu erantzun honen bidez: Tiziano, Velazquez eta Piero della Francescaren pinturetako “argiak irudi abstraktuatarako begia zorrotzu” ziola⁶⁷. Maneten Traperoaren atorra zikina, Tizianoren banderari eusten dion modeloaren soineko harroa eta Rembrandten Margaretha

Tripén mahuka zuriak eta zapi mundu alternatibo bihurtzen dira Frankenthalerren eskuetan, denbora gainditzen duten teknika-zertzelada distiratsu.

Eskalea (Beggars, 1979), *Zuriz jantzitako dama baten erretratua* (Portrait of a Lady in White, 1979), *Argi-iluna* (Chiaroscuro, 1979), *Margaretha Tripén erretratua* (Portrait of Margaretha Trip, 1980) eta *E.M.-rentzat* (For E.M., 1981) margolanekin, Frankenthalerrek atalase tekniko bat gainditu zuen, eta belo garden, hondo tindatu, ur-kolore sotil eta gardenkien unibertso tonal batean barneratu zen⁶⁸. Beste mota bateko espazio bat eta argi bat aurkitu eta bere obrara ekarri balitu bezala da, hala nola *Ekialdeko argia* (Eastern Light, 1982) eta *Katedrala* (Cathedral, 1982) lanetara. Gainazal irisatu, zerrenda trinko eta pikortsuetan aplikatutako pinturak urruntasun sentsazioa eragiten du. Margolan baten nortasunak hura pintatzeko modua islatzen du. Katedralak goizaldeko lainoaren baretasuna du. Ekialdeko argia margolanetik sortzen diren argi-pirrinta ilunek wagnertarrak dirudite. 1990eko hamarkadan, Frankenthalerrek lan egiteko bi modu deskribatu zituen; bi modu, zeinak has baitzitezkeen, berez, bat-batean, baina ebatzi, ondotik, modu desberdinetan. Gerta zitezkeen bi lan-moldeak saio batean batzea ere, ukitu txiki batzuk besterik egin gabe. Horren adibide dugu, esaterako, Mendiak eta itsasoa. Hogeita hamabi urte geroago, emaitza bera lortu zuen *Madril* (Madrid, 1984) lanean: kolore bakarreko hondo baten gainean nahita egindako isuriekin eta pintzelez aplikatutako margo-zerrendekin. Beste lan-moldeak —denbora eta lan gehiago eskatzen dituen “koadro salbatuak”— gainalde “landuago edo arraspatuagoak” eragiten ditu, “ilunagoak, trinkoagoak askotan”⁶⁹. Ikuspegia edozein zela ere, “irudi eder” bat lortu nahi zen horrela, “bat-batean sortua” izan zelako itxura emango zuena, hura “egiteko zenbat ordu, aste edo urte behar izan ziren kontuan hartu gabe”⁷⁰.

Denborak aurrera egin ahala, onenarekin geratzen gara

Frankenthalerrek ez zion inoiz bere buruari galdetu ez zergatik margotzen zuen, ez norentzat margotzen zuen ere. Txikitatik hartu zuen bere burua artearen bidez adierazteko ohitura. Artea sortzeak bere energia emozionala bideratzen laguntzen zion, zentratuta eta egonkor mantentzen zuen. Artista konprometitua izateak kanpoko kezkei lekua egiteko moduak aurkitzea esan nahi zuen, oso ondo jakinda ere estudiotik kanpoko mundua ez zela inoiz izango barne-mundua bezalakoa, non aurrez aurre eta beldurrik gabe borrokatu behar baitira aingeru eta deabruak. Margotzeko prozesua etengabe aldatzen ari zen zerbait zela ikusirik, ulertu zuen garrantzi iraunkorra aitortu behar zitzaioela pinturaren bitartekoari. Erronka hori handituz joan zen 70eko hamarkadatik 80ko eta 90eko hamarkadetarako tartean, krisi kulturelek aldarazi ahala besteek hari eta haren arteari buruz zuten ikuspegia⁷¹.

Estudioko margolari bakartia izateak ez zuen eragotzi Frankenthalerrek bizitza betea izatea. 1990eko eta 1991ko udetan, bi bidaiak egin zituen Santa Fera (Mexiko Berrira), eta eskola magistrala eman zuen Santa Feko Arte Ederren Institutuan (orain Santa Feko Arte Institutua). Bi egonaldiak, labur samarrak izan arren, emankorrak izan ziren oso⁷². 1990 eta 1991 bitartean osatutako lan ugarietatik, badira bi mihise, *Yin Yang* eta *Janu* (Janus), biak 1990ekoak, lehena Santa Fen bertan margotua eta bigarrena hara joan aurretik, anaia-arrebak balira bezala komunikatzen direnak. Hasiera, trantsizio, pasabide eta amaieren jainko erromatar aurpegi bikoaren omenez jaso zuen titulua Janok; lurraren mugetan bizi zela eta gatazken hasieraren eta amaieraren arteko bitartekaria zela uste zen. Yin Yang ere indar osagarrien jokoari lotuta dago eta adiskidetze-zikloaren irudia adierazten du Txinako kosmologian. Yinek printzipio femeninoa irudikatzen du, eta, Yangekin konbinatuta, bide ematen dio izango den guztiari.

Elkarren aurkakoen elkargune diren margolan horietan guztietan ageri dira hondo tindatuak, geruzakako gainaldeak, kolore hori, gorri, beltz eta urdineko pintzelkadez tantotutako bektore zehaztugabeak, lerro meheak, pintzel-ukituak orbanak... Zenbait zatitan, su txinpartatsuzko lorratzez inguratutako edo tanto beltzez zipriztindurik, beste galaxia batzuetarako sarrerak dirudite. Aurretiko margolan batek ere xehetasun kosmologiko agerikoak ditu: *Izarrei begira* (*Star Gazing*, 1989), bere izar-nebulosa, eguzki-orban, zulo beltz eta argi sarkorreko korridoreekin. Zeruko lainotik azaleratzen diren zutabe monolitikoek hildakoen arimen omenezko monumentuak dirudite. Frankenthalerren beranduko obraren parte handi batek, 1994–95eko paper gaineko pintura monumentalek ez beste guztiak, fisikotasun trinkoa dauka. Ezaugarri bereziki nabarmena da, besteak beste, lan hauetan: *Arrasteluaren arrastoa* (*The Rake's Progress*, 1991), *Fantasiatzko lorategia* (*Fantasy Garden*), *Mailegatutako ametsa* (*Borrowed Dream*) eta *Zurrunbiloa* (*Maelstrom*), 1992koak guztiak. Horietako bakoitzean, margolariak esperimentuak egin zituen, akrilikoarekin nahasitako gel-ingurune bat eta arrastelua, paletak, espatulak, belakiak eta zaliak erabiliz. Produktu horren bila luzaro ibili ez bazen ere, emaitza guztiz eskultorikoak lortu zituen horrela, Stanley Boxer, Jules Olitski eta Larry Poonsen antzeko zenbait lanetakoak bezalakoak, non margolanak batzuetan gehiago baitirudi eгина margotua baino. Mailegatutako ametsa eta Zurrunbiloa mihiseetako gainazal aratu eta leunduek —zakarrak, irregularrak, erradikalak— artista baten azkenaldiko ekoizpenari buruzko galdera existentzialak planteatzen dizkigute⁷³.

Frankenthalerrek arazorik gabe aldizkatu zituen mihise gaineko pintura eta paper gaineko pintura. Papera mihisearen alternatiba bat zen, manipulatzeko eta, behar izanez gero, baztertzen eta ordezkatzeko ere errazagoa. Paperak margoa xurgatzeko eta bere baitan zehar iragazteko gaitasun handiagoa izateak ere erakartzen zuen artista. Eraldatu ahala, modu naturalean alda zitezkeen ideiak ingurune batetik bestera. Paperaren eta mihisearen arteko etengabeko elkarriketa hori adinari loturiko planteamendu bat izan zen. Fisikoki gogorregia egin zitzaionean zoruan zabaldutako mihiseetan lan egitea, zoruan jarritako mihisean sortzeko koreografia, paper-orri handiak (batzuk eskuz eginak) erabiltzen hasi zen Frankenthaler, zailtasunik gabe. Estudioan zeukan laguntzaileak lurrian zabaltzen zizkion, edo astoen gainean bermatutako mahai goratuetan ipintzen. Mihisea astoen gainean bermatzeko eta goratzeko erabakia ez zen adinak baldintzatuta etorri, berez, kontuan hartuz gero Frankenthaler 60ko hamarkadan hasi zela era horretan margotzen⁷⁴. Baina praktikotasuna nagusitu zen une jakin batean⁷⁵.

Artea eta bizitza modu misteriosuetan nahasten dira bata bestearekin. 1994an, Frankenthaler Stephen DuBrulekin ezkondu zen, eta handik aurrerako margolanek, paper gaineko pinturek, bizi-aukera berri bat ospatzen dutela dirudite. Iraganeko harremanak ere ohoratzen dituzte, itxura batean. Cassis (1995) eta *Eguzki-bulkada* (*Solar Imp*, 1995) lanetan, adibidez, nagusi da baikortasuna, kaligrafiaren argitasunak eta fantasia alaiak areagotua. Paperaren gainean belaki zabal batekin irarritako laukizuzenak ageri dira bi margolanetan. Eguzki-bulkada izenekoan (1995eko martxoa), laukizuzenak bi forma beltzen azpian agertzen dira, eta elkarrekin ezkondata egon ziren hamaika urteetan Frankenthalerrek eta Motherwellek hainbat margolanetan eta paper gaineko obretan egin zituzten irudiak gogorarazten dizkigute. [Forma beltzok, odol gorriaren koloreko arterien bidez bihotz urdin batera konektatuak, Pentsamendu mediterraneoak laneko zirkuitu emozionala gogorarazten dute]. Elementu horiek guztiak beheagoko esfera urre-koloreko batekin loturik daude, kolore zuri sakoneko espazio baten gainean nabarmenduta, eta *Lurmuturra* (*Provincetown*) lanaren konposizio “karratu eta enkoadratua” gogorarazten duten eremu hori eta laranja banaz inguratuta. Sentimentalismoaren eta gozamen pikaro baten konbinazioak azal dezake zergatik agertzen diren bi figura beltzak Eguzki bulkadaren koloretako laukizuzenen ondoan, maitasunaren eta ezkontzaren iraganeko eta oraingo ospakizun bat bezala, eta zergatik agertzen diren bost hilabete geroago kolore berdintsuko irudiak andere-mahatsaren koloreko hodei batean igerian,

munduaren gailurrean baleude bezala. Frankenthalerrek ez zion inoiz uko egin edertasuna bilatzeari, ezta zenbaitek “zaharkitutzat, zentzurik gabekotzat” jo eta baztertu zutelarik ere⁷⁶. Giza bizitzak jokoan daudenean, HIESaren krisialdian gertatu zen bezala, erraz politizatzen da artea. Baina edertasunak ez ditu maite definizio sinpleak; aurpegi asko ditu: batzuk argiak, beste batzuk ilunak, batzuk gordinak eta zakarrak, beste batzuk graziaz beteak. Frankenthalerrek edertasunari buruz zuen ikuspegiak giza kondizioaren barnekotasunak islatzen ditu. Hala ere, tirabira politiko handiko garai batean irudi ederrak defendatu izanak erasoen jomuga bihurtu zuten (baita haren obra ere). Batzuetan etsita sentitu arren, edertasunaren bila aritu zen etengabe, estudioan beste inon baino gehiago, eta beti saiatu zen, margotzeko orduan, berarengandik espero zen neurria ematen. Jendearekin izandako bilkura gogoangarriekin, artearen historiako irudi multzo zabal baten ezagutzarekin eta trebetasun tekniko bikainekin saritua izanik, bere gogo aldartera eta irudimenera hobekien egokitzen zen norabidera lerratzen zen artista. Haren azken lan hunkigarrienetako batzuek —hala nola *Hegoalderako esposizioa* (*Southern Exposure*, 2002), espazioaren isiltasunean barreiatzen doazen akrilikozko arrastoen modura sortua— denbora iheskorrenen beloak dirudite. *Ekialderantz gidatzen* (*Driving East*, 2002) margoari begiratzean, helburua sumatu dezakegu, baina nekez jakin daiteke zerumugan nimirka ari den argia gorantz edo beherantz doan. Zer da, egunsentia ala ilunabarra?

Zahartzeak gogoeta filosofikorako gonbita dakar, argi eta garbi. Edozein diziplinatan zahartzen den artista batek (plastikoa, literarioa, musikala, antzerkikoa, zinematografikoa, koreografikoa) eragin nabarmena izaten jarrai dezake kulturaren esparruan, nork bere historiaren balantzea egin ahala. Frankenthalerren ibilbidea adiskideekiko harreman estu, zaindu eta kutunek markatuta egon zen. “Esango nuke adinean aurrera egin ahala orduan gehiago estimatzen dugula adiskidetasunaren iraunkortasuna, oraina nostalgiarekin partekatze dohain zorionekoa”, aitortu zion artistak Carori⁷⁷. Bere lagun maiteenak ideia eta sentimenduen babesleku, beldur eta enigma babesleku seguru izan zituen beti. Caro, Truitt, Hartigan eta Rudikoffi idatzitako gutun eta postal zintzo eta sentibere agerian uzten dute bizitzako une horretan zer arazori aurre egin behar izan zieten. “Long Islandeko itsasarteari eta inguruko txoriei, arbolei eta koloreei begiratzen diet, hausnartzeko, margotzeko eta umoreari eusteko aukera emango didaten atsedena eta bakea aurkitzeko”, idatzi zion Truitti 1991n⁷⁸. Bere erronka fisiko eta emozionalak gorabehera —eta makina bat izan zituen bizitzako azken hamarkadan—, margolariak konprometituta jarraitu zuen artearekin eta axola zitzaizkion pertsonekin. “Denborak aurrera egin ahala, onenarekin geratzen gara”⁷⁹; horrela laburbildu zuen araurik gabeko arte baten bila egin zuen bidea. Ahalegin betean bizita, ez zegoen bestela pentsatzeko arrazoirik.

[Itzulpena: Rosetta testu zerbitzuak]

Oharra

1. Helen Frankenthaler, “Seventh Annual Pollock Krasner Lecture”, Guild Hall, East Hampton, New York, 1994ko uztailak 31, transkripzioa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
2. *Ibid.*
3. Barbara Rose, “Oral History Interview with Helen Frankenthaler”, Archives of American Art, Smithsonian Institution, 1968. www.aaa.si.edu/collections/interviews/oralhistory-interview-helen-frankenthaler-12171.

4. Haien arteko harremana ez zen dimentsio bakarrekoa, inondik ere; horren erakusgarri da Frankenthalerrek aurkeztu izana Greenberg Feeleyri, zeinak ahalbidetu baitzion kritikariari bere komisariotza–sena fintzea Bennington Collegen, erakusketasorta iragarle batekin, Pollock eta David Smithenak, lehenik, 1951–52an; ikus Dreishpoon, “Imperfections by Chance”, *Imperfections by Chance: Paul Feeley Retrospective, 1954–1966*, erak. kat. (Buffalo, NY: Albright-Knox Art Gallery, 2015), 8–9. Pollocken erakusketa Williams Collegerekin lankidetzan antolatua eta partekatua izan zen; ikus Francis V. O'Connor, *Jackson Pollock* (New York: Museum of Modern Art, 1967), 68.
5. Greenbergekin gerraondoko amerikar eskulturrekiko zuen zaletasun irmoa aztertu dut nire saiakeran: “Sculptors and Critics, Arenas and Complaints”, in *Action/Abstraction: Pollock, de Kooning, and American Art, 1940–1976*, ed. Norman L. Kleeblatt, erak. kat. (New York: Jewish Museum, 2008), 215–29.
6. Barbara Rose, “Oral History Interview with Helen Frankenthaler”.
7. *Ibid.*
8. Lauren Mahonyk identifikatuta dauzka Frankenthalerrek 1950etik 1955era erabilitako estudioen kokalekuak; ikus “Chronology 1950–1955”, in *Painted on 21st Street: Helen Frankenthaler from 1950 to 1959*, erak. kat. (New York: Gagosian Gallery, 2013), 45–56.
9. Helen Frankenthaler, “Memories of the San Remo”, *Partisan Review* 49, 3. zk. (1982ko uda), 412.
10. Frank O’Harak Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1959ko abenduaren 16koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
11. Hobeto ulertzeko Color Field painting (Kolare-eremuen pintura) esapidea finkatu aurretik Frankenthaler inguratu zuen olerkarien eta margolarien “camp” giro bohemioa ikus Katy Siegal “Contextually Boundless”, in *“The heroine Paint” After Frankenthaler* (New York: Gagosian Gallery, 2015), 9–32.
12. Ikus Frankenthalerrek 1962ko uztailaren 29an David Smithi idatzitako gutuna, non margolariak aitortu baitzuen igaro zuela “uda ‘karratua’, zinez, eta oro har ‘aspergarria’”, “baina izugarri gustatu” zitzaiola. David Smith Archive, The Estate of David Smith, New York. Ikus, halaber, Frankenthaler, “Memories of the San Remo”, 413; eta Deborah Solomon, “Artful Survivor”, *The New York Times Magazine*, 1989ko maiatzak 14, 31, non, handik urte batzuetara, aitortu baitzuen zeramala “bizimodu karratua eta burgesa”.
13. Gerraondoko Estatu Batuetako kulturaren goraldia hazkurri ideologikoa izan zen bohemio irmo gehienentzat; ikus Paul Goodman, *Growing Up Absurd: Problems of Youth in the Organized Society* (New York: Vintage Books, 1956); David Riesman, with Nathan Glazer eta Reuel Denny, *The Lonely Crowd* (New Haven, CT: Yale University Press, 1950); William H. Whyte, *The Organization Man* (New York: Simon and Schuster, 1956).
14. Mary Gabriele aztertu du zer-nolako estutasunak izan zituzten emakume artistek gerraondoan; ikus *Ninth Street Women: Lee Krasner, Elaine de Kooning, Grace Hartigan, Joan Mitchell, and Helen Frankenthaler: Five Painters and the Movement That Changed Modern Art* (New York: Little, Brown, 2018), 547–59.
15. Paviaren “Summary of 1951” testuak honela dio: “The Ninth Street Show erakusketak agerian utzi zuen zer-nolako indarra zuten abstrakzioak eta espresionismoak. Gerora, artista gazteenek The Club hartu zuten, kideen kopurua hirurogei lagunetik ehun eta hogeira igo zen. The Club ospea hartzen hasi zen abangoardiaren ikur modura, eta haren izen ona kultura orokorrera hedatu zen. Garai hartan jarri zen modan, halaber, Cedar Tavern. The Club itxi ondoren, gauean, artista batzuk Cedarrera joaten ziren berriketan jarraituz; aurrez kafea edaten genuen”; ikus Philip Pavia, *Club Without Walls: Selections from the Journals of Philip Pavia*, ed. Natalie Edgar (New York: Midmarch Arts Press, 2007), 165.
16. Paviak oso hurbiletik jarraitu zuen arte abstraktua eta ongi zekien nola lortu emaitza onak. Artistek konfiantza zuten haren sen zorrotzean, gai jakin batzuei eta saioetarako balizko partehartzaileei zegokienez. Frankenthalerri dagokionez, bereziki kontuan hartzekoak dira 1952–55 bitartean antolatu zituen saioetako batzuk: “Espresionismo abstraktua” ardatz zuten zazpi panel, bakoitza parte-hartzaile jakin batekin; “Poeta berriak”, Larry Rivers moderatzaile zela; “Irudia pinturan”, Joan Mitchell

- moderatzaila zela; "Natura eta arte abstraktua", lau panel, Frank O'Harak gidatuak; ikus Pavia, *Club Without Walls*, 165–78.
17. Barnett Newmanek, adibidez, enfasi handia jarri zuen "geometriaren gailentasuna" heriotzarekin uztartzean. Geometriak adierazten zuen "krisi moral bat". Newmanek interes handia izan zuen arte primitiboarekiko, "The Ideographic Picture", alternatiba atabiko gisa: sinboloen eta irudien arte abstraktu bat, "ezagutezina denaren izuak" blaitutako arte anonimo eta erritualak; ikus *Barnett Newman: Selected Writings and Interviews*, ed. John P. O'Neill (Berkeley: University of California Press, 1990), 107–08, 179. Studio 35eko artisten saioen hirugarren egunean planteatu zelarik inprobisazioaren eta geometriaren gaia, Ad Reinhardtek aldarrikatu zuen "geometriaren enfasia jartzea 'ezagun' den horretan, ordenan eta jakintzan enfasia jartzea da"; ikus "Artists' Sessions at Studio 35 (1950)", in *Modern Artists in America*, ed. Robert Motherwell eta Ad Reinhardt (New York: Wittenborn, Schultz, 1951), 19.
 18. Surrealismoak Estatu Batuetako artean izan zuen inpaktuari buruzko azterlan askok adierazgarriak izaten jarraitzen dute; ikus Robert C. Hobbs eta Gail Levin, *Abstract Expressionism: The Formative Years*, est. erak. (New York: Whitney Museum of American Art and the Herbert F. Johnson Museum of Art, Cornell University, 1978) eta Jeffrey Wechsler, *Surrealism and American Art, 1931–1947*, est. erak. (New Brunswick, N.J.: Rutgers University Art Gallery, 1977).
 19. Surrealismoaren bideragarritasunari dagokionez, iritzi irmoa zuen Paviak; ikus Pavia, *Club Without Walls*, 21–26.
 20. Greenbergekek surrealismoarekiko zuen herrak, 1944an argitaratutako hasierako kritika baten ondoren, haren izaera organikoa eta biomorfikoa izaten zuen ardatz, haren ustez arriskuan jartzen zituelako pinturako eta eskulturako joera aurrerazaleak; ikus Clement Greenberg, "Surrealist Painting", *The Nation*, 1944ko abuztuak 12 eta 19, eta *Horizon*, 1945eko urtarrila; hemen berrargitaratua: Clement Greenberg, *Collected Essays and Criticism*, ed. John O'Brian (Chicago: University of Chicago Press, 1986), 1. lib., 225–311, "Review of an Exhibition of Arshile Gorky", *The Nation*, 1945eko martxoak 24, hemen berrargitaratua: *Collected Essays and Criticism*, 2. lib., 13–14; "Review of an Exhibition of David Hare", *The Nation*, 1946ko otsailak 6, hemen berrargitaratua: *Collected Essays and Criticism*, 2. lib., 55–56; "David Smith", *Art in America*, Winter 1956–1957, hemen berrargitaratua: *Collected Essays and Criticism*, 3. lib., 276.
 21. Larry Riversek, adibidez, "oso erreakzio konplexua izan zuen erakusketarekiko", eta bi orrialdeko gutun bat idatzi zuen, nola sentitzen zen azaltzeko. Frankenthalerren erantzun bareak pintura abstraktuari buruzko nahi gabeko manifestua dirudi gaur egun. Ikus Larry Riversek Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1953ko otsailekoa, eta Helen Frankenthalerrek Larry Riversi idatzitakoa, 1953ko otsailekoa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 22. Nolandek Black Mountain Collegen ezagutu zuen Greenberg, eta Morris Louis eta Anne Truitt aurkeztu zizkion kritikariari. Denborarekin, Greenbergekek aintzat hartu zuen Anne Truitten lana, eta bere babesa eskaini zion.
 23. Jack Flamek "irudiak" aipatzen ditu Motherwellen ezkontza-urteetako lanari buruzko saiakera batean; ikus Jack Flam, "Paintings, 1958–1967: Two Figures", in *Robert Motherwell: Paintings and Collages, A Catalogue Raisonné, 1941–1991*, 1. lib., Jack Flam, Katy Rogers, eta Tim Clifford (New Haven, CT: Yale University Press, 2012), 93–109.
 24. Anthony Caro, "Frankenthaler's Sculpture: A Reflection", in *Frankenthaler: Sculpture*, erak. kat. (New York: Knoedler & Company, 2006), 5.
 25. 2001eko ekainaren 28ko sarrera, in Anne Truitt, *Yield: The Journal of an Artist* (New Haven, CT: Yale University Press, 2022), 84.
 26. Robert Motherwell, "The Motherwell Collection", *Vogue*, 1964ko urtarrilak 15, 88–91, 118. Zenbaki berean agertu ziren "The Greenberg Collection", kritikarien aipamen bat eta guzti, eta "The William Burden Collection".
 27. Upper East Sideko etxebizitzako artelanen kokaera 1971n bikotea dibortziatu ondoren aldatu zuten, baina Frankenthalerrek hura birmoldatzen jarraitu zuen gerora ere, 1998an etxebizitza saldu zen arte.

Helenen hautua (*Helen's Choice*, 1977) lana, arkatzez egindako oharra eta lerroak eta guzti, forma eta zerrendez osatutako mihise bat bilaka zitekeen, Frankenthalerrek eragotzi izan ez balu. Haren izaera bitxia, ur koloreak eta ertz inperfektuak erakargarri gertatu bide zitzaizkion. Morrisen *Aleph saila V* (*Aleph Series V*, 1960), bere erdigune ilunduarekin, hautu argigarria da. Frankenthalerrek honela deskribatu zuen Greenbergekin eta Nolandekin aurkeztu eta 1950eko hamarkadan hobeto ezagutu zuen pertsona: “Hainbat urtez hark New Yorkera eta nik Washingtonera egindako bisitetan, hura eta haren emaztea [Marcella Brenner] ikustera joaten nintzelarik, oso gizon serioa eta lasaia iruditzen zitzaidan. Pinturan buru-belarri sartuta bizi zen, gainerako guztia ia alde batera utzita. Erretzaile porrokatua zen. Ez zuen irribarre askorik egiten, baina oso atsegina zen, oso jatorra. Oso entzule ona. Harira jotzen zuen beti. [Gogoan dut] Clem eta biok koadroak zabaltzen ibili ginela Louisen Washingtingo etxeko egongelan. Hara joaten ginenean, berriki margotutako mihise pila izaten zituen Morrisen, biribilkaturik jasota, eta guk sototik edo estudiok ekartzen genituen. Banan-banan zabaldu egongelako hormarik handienean, eta ordu luzez aritzen ginen haiei buruz hizketan. Eta hori oso hartu-eman zirraragarria izaten zen beti denontzat”. Ikus Anita Faatzek Frankenthalerri egindako elkarrizketa, Morris Louis hizpide hartuta, *Archives of American Art*, 1971/4/27, transkripzioa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.

28. Helen Frankenthalerrek David Smithi idatzitako gutuna, 1960ko abuztuaren 11koa, David Smith Archive, the Estate of David Smith, New York.
29. Helen Frankenthalerrek James Schuylerri idatzitako gutuna, 1960ko abuztuaren 23koa, James Schuyler Papers, MSS 78. Special Collections & Archives, UC San Diego Library.
30. Egon ote liteke korrelaziorik Frankenthalerrek margolan jakin batzuetan karratua erabiltzearen eta Motherwellek karratuari gerora eman zion erabileraren artean? *Beltza zuriaren gainean 4. zk.* (*Black on White No. 4*, 1968) ertz leuneko marrazki txikiak keinu xume gupidatsua dirudi. (Margolana Frankenthalerren jabetzakoa da). Motherwellen ezkondu osteko *Irekia* (*Open*) sailean, karratua, partzialki irudikatzen duelarik, irekia da, itxuraz, zaurgarria berez, egongaitza.
31. Bai *Sehaska-kanta* (*Mother Goose Melody*, 1959), bai *Mendebaldeko ametsa* (*Western Dream*) lanek karratu bana dute, eta karratuaren barruan zirkulu bana.
32. Frankenthalerrek denbora behar izan zuen akrilikoarekin seguru sentitzeko. Teknika hori ezin iragarritzko bideetatik eramateko irrikak luzatu zuen, seguru asko, prozesua. Baina tinko eutsi zion bide horri, baita 1962 eta 1963 artean oliopintura erabiltzen segitu zuelarik ere. Ikus Dreishpoon, “It’s a Matter of How You Resolve Your Doubts”, in *Giving Up One’s Mark: Helen Frankenthaler in the 1960s and 1970s*, erak. kat. (Buffalo, New York: Albright-Knox Art Gallery, 2014), 7–8, 4. oin-oharra; Elizabeth A. T. Smith, “Redefining a Practice: Helen Frankenthaler and Painting in the Early 1960s”, in *Helen Frankenthaler: Composing with Color: Paintings 1962–1963*, erak. kat. (New York: Gagosian Gallery, 2014).
33. Henry Geldzahler, “An Interview with Helen Frankenthaler”, *Artforum* 4, 2. zk. (1965eko urria), 36–38.
34. Helen Frankenthaler, hitzaldia eta diapositiba-emanaldia Hunter Collegeko Arte Sailean, New York, 1965eko apirilaren 28a, transkripzioa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
35. Barbara Rose, “Oral History Interview with Helen Frankenthaler”.
36. “Karratuaren eta enkoadratzearen ideia hori”: horrelaxe deskribatu zizkion Frankenthalerrek bere lagun Sonya Rudikoffi margolan horiek; ikus Frankenthalerrek Rudikoffi idatzitako gutuna, 1964ko apirilaren 26koa, Sonya Rudikoff Papers; Manuscript Division, Department of Special Collections, Princeton University Library.
37. Bere estilo umoretsu eta ironikoan, Ad Reinhardtek eskuzabal eskaini zion bere gurutze-formako konfigurazioa Frankenthalerri, 1960ko hamarkadaren amaieran idatzitako postal batean: “Helen maitea, proiektu handi horietako edozeinetarako ideia onak behar badituzu, jakinaraziezadazu. Badaukat banda bertikal hau horizontal batez gurutzatuta, eta ematen dizut, zuretzat da, gorde nahi baduzu. Nahieran erabil dezakezu: karratuan, goitik beherako hori maskulinoa da, hura ezker-eskuin zeharkatzen duen beste hori, berriz, femeninoa; gizon-mendi-emakume-ur koadro txinatar hori bezala, hortxe ideia on bat zuretzat”. Ikus Ad Reinhardtek 1966 edo 1967an Helen Frankenthalerri idatzitako postala, Helen

- Frankenthaler Foundation Archives, New York. 1948an Josef Albers New Havenera iritsi zen Yale Universityn kolorearen teoria irakasteko, eta iritsi berri egin zituen aurreneko gauzetako bat etxea erostea izan zen, bere lehenengo etxea. *Karratuaren gorazarrea* (*Homage to the Square*) saila bere bizitzako aldaketa momentu horretan sortu zuen. Kointzidentzia deigarria ote? Egoera berriari emandako erantzun modernoa ote?
38. Mark Rothko, "The Romantics Were Prompted", *Possibilities 1* (1947–48ko negua), 84.
 39. Karratuak dituzten lehen margolanen artean, aipatzekoak dira Frankenthalerrek Andre Emmerich galerian aurkeztu zuen bakarkako lehen erakusketarako (1959) sortutako paper gaineko obra (1958) eta *Karratu gorria* (*Red Square*, 1959). Baita geroagokoak diren *Hondartzako eszena* (*Beach Scene*), *Irudi karratua* (*Square Figure*), *Laranja-kolorea bidea irekitzen* (*Orange Breaking Through*), *Provincetown I*, eta *Beltxargen aintzira I* (*Swan Lake I*) ere (1961ekoak guztiak).
 40. Helen Frankenthalerrek Sonya Rudikoffi idatzitako gutuna, 1964ko apirilaren 26koa, Sonya Rudikoff Papers; Manuscript Division, Department of Special Collections, Princeton University Library.
 41. Rothkoren eta Frankenthalerren arteko gutun bakarra Helen Frankenthaler Foundation fundazioaren artxiboetan gordetako 1961eko barkamen-ohar bat da. Bertan, hauxe idatzi zuen Rothkok: "Helen maitea, barkamena eskatu nahi dizut atzo esan nizkizun hitzengatik. Ez naiz horrela sentitzen eta ez dut horrela pentsatzen, eta mila aldiz nahiago nuke hura gertatu ez balitz". Mark Rothkok Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1961eko azaroaren 7koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York. Urte batzuk geroago, 1980ko maiatzean, Menilgo Dominquek eta Susan Barnesek Robert Motherwelli Rothko kapera zela-eta (Houston, Texas) egindako elkarrizketa batean, Motherwellek 1960ko hamarkadako lehen urteak aipatu zituen, Frankenthalerrek akrilikoekin egindako esperientzia eta Rothkok haren teknikei egindako kritika. Motherwellen arabera, kritika horiek lekuz kanpo zeuden, Rothkok edozein informazio "tekniko" zabaltzea eta "pintoreen lanaz hitz egitea" saihesten zuela kontuan hartuta. Ikus Dominique de Menilek eta Susan Barnesek Robert Motherwelli egindako elkarrizketa, 1980ko maiatzak 10, Menil Archives, Houston, TX. Nire esker ona Menil Artxiboetako Lisa Barkleyri transkripzioa eskuratzearagatik.
 42. *Philip Guston: Painter; 1957–1967*, ed. Paul Shimmel, erak. kat. (New York: Hauser & Wirth, 2016).
 43. Smithen obraren alderdi hori Dreishpoonen "Sculptors and Critics, Arena and Complaints" lanean aztertzen da, in *Action/ Abstraction: Pollock, De Kooning, and American Art, 1940–1976* (New Haven, CT: Yale University Press, 2008), 222–23.
 44. Nolandek 1948an ezagutu zuen Truitt, eta ondoren Greenberg aurkeztu zion, zeina bihurtu baitzen eskultorea ezagutzera emateko funtsezko kritikaria; ikus Clement Greenberg, "Changer: Anne Truitt", *Vogue* (1968ko maiatza), 212–13, 284. Truitten eskultura engainagarriro abstraktuak Ad Reinhardt eta Barnett Newmanen margolanetan inspiratuta egoteak eta latexeko pintura-geruza bat zuten forma geometrikoetan destilatutako oroitzapen emozionaleratik eratorriak izateak ez zuen eragotzi Greenbergekin halako "sentsibiltate femenino" bat antzematea haien gainazal margotuetan, haien poetikotasuna erabat ahanztirik. Greenbergekin femeninoa hobesteko zuen joeraren erakusgarri izan daiteke pieza *Vogue*en enkargatua izana.
 45. Anne Truittrek Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1991ko ekainaren 8koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 46. *Ibid.*
 47. Anne Truittrek Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1961eko azaroaren 28koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 48. Helen Frankenthaler, "Making Sculpture", in "Frankenthaler: Sculpture", 8. Frankenthalerren eskulturari buruzko artikulu berri baterako, ikus Lauren Mahony, "Helen Frankenthaler: A Painter's Sculptures", *Gagosian Quarterly* (2021eko uda), 114–19; eta Lauren Mahony, "A Silence of Understanding: Helen Frankenthaler and David Smith, 1950–1965", *Helen Frankenthaler and David Smith*, erak. kat. (New York: Craig F. Starr Gallery, 2014).

49. Frankenthalerrek ez zekien ziur noiz ezagutu zuten elkar. Carori bidalitako gutun batean, gogoratzen zuen Londresen ezagutu zuela, 1954an, Clement Greenbergekin hiri horretara egindako bidaia batean. Ikus Helen Frankenthalerrek Anthony Carori idatzitako gutuna, 2000ko ekainaren 18koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
50. Greenbergen kritikaren analisi baterako, ikus Douglas Dreishpoon, "Sculptors and Critics, Arenas, and Complaints", 223. Smithek Benningtoneko arte-departamentuan izandako parte-hartzea kontatzen du Michael Brensonen. Ikus Brenson, *David Smith: The Art and Life of a Transformational Sculptor* (New York: Farrar, Straus and Giroux, 2022), 607–14.
51. Anthony Caro, "Frankenthaler's Sculpture: A Reflection", in *Frankenthaler: Sculpture*, 6.
52. *Helen Frankenthaler* erakusketa 1971ko azaroaren 6tik abenduaren 1era egin zen, Emmerich's Midtown espazioan, Ekialdeko 57Kaleko 41ean eta SoHon, West Broadwayko 420. zenbakian. Autobus pribatu bat ibili zen espazio batetik bestera bi erakusketen inaugurazio egunean, azaroaren 6an.
53. Hilton Kramerrek, *New York Times*entzat idatzitako artikulua batean, adierazi zuen margolariak zein moduzolian erabiltzen zuen kolorea eta nola adierazten zuen paisaia, baina zalantzan jarri zuen bat-batean agertzen ziren "zuloak". "Kolorea argia eta gardena da halere, eta funtsezkoa", idatzi zuen, "eta paisaiaren irudien elementuek —denborak xehetasun oro ezabatu dizkien paisaien oroitzapenek— sendoak izaten jarraitzen dute. Baina, esan liteke bat-batean zuloz beteak diruditela koadroek. Kolorezko eremu distiratsuek gainaldea definitzeari utzi diotela eta gainaldeko zirrikitu batzuk artikulatzen dituztela, ezusteko arrakalak multzoaren ideia gidarian"; ikus Hilton Kramer, "Frankenthaler Paintings Displayed in 2 Galleries", *New York Times*, November 20, 1971, 27. Lawrence Allowayk, *ARTnews*erako idatzitako artikulua batean, aditzera eman zuen nola margolanek "iradokitzen duten paisaien ikonografia bat"; ikus Lawrence Alloway, "Frankenthaler as Pastoral", *ARTnews* 70, 7. zk. (1971ko azaroa), 66–68, 89–90.
54. Cindy Nemser, "Interview with Helen Frankenthaler", *Arts Magazine* 46, 2. zk. (1971ko azaroa), 51.
55. Ikus *Kablea (Cable)* eta *Pasabidea (Passage)* lanen erreprodukzioak hemen: John Elderfield, *Frankenthaler* (New York: Abrams, 1989), 220, 226; eta *Goizak (Mornings)* eta *Pistatxoa (Pistachio)* lanenak hemen: Elderfield, *Frankenthaler* (New York: Gagosian, 2024), 262, 263.
56. Rosek *Barruti malba (Mauve District, 1966)*, *Urrezko eguna (Golden Day, 1967)*, eta *Eszenaurre laranja (Orange Proscenium, 1968)* irudiak ikusi bide zituen; guztien erreprodukzioak ageri 1972an Frankenthalerri buruz landu zuen monografian.
57. Barbara Rosek Helen Frankenthalerri idatzitako gutuna, 1970eko azaroaren 9koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
58. Barbara Rose, "The New York Abortion", *New York* 5, 22. zk. (1972ko maiatzak 29), 72–73.
59. Ikus *Karratu zurixka (Off White Square)* eta *Bassano ukitu bat (Hint from Bassano)* obren erreprodukzioak hemen: Elderfield, 2024, 276–77 eta 280–81. *Apirileko gogo-aldartean (Under April Mood)* hemen ageri da erreproduzituta: Elderfield, 1989, 252–53.
60. Frankenthalerrek bi urtez alokatu zuen Ocean Drive Westen lehen jabetza, Shippan Pointen, 1974tik 1976ra, eta udako hilabeteetan erabili zuen, nagusiki, harik eta lau urte geroago, 1978an, etxea erosi zuen arte hondartzan, Saddle Rock Roaden (Shippan Point).
61. Udan Skowhegan School of Painting and Sculpture eskolan emandako hitzaldi batean, Frankenthalerrek "hortz artean barre" egin zuen *Sentsazio termikoa (Chill Factor, 1973)* deskribatu zuelarik bere "Barney Newman etapa" gisa; ikus Helen Frankenthaler, "Lecture by Helen Frankenthaler", 1986ko ekainak 26, transkripzioa, Skowhegan School of Painting and Sculpture Archives, Skowhegan, Maine. Argi ikus daiteke zergatia, koadroaren bertikaltasuna eta argiz beterik irudikatutako barrunbea kontuan hartuta. Baina afinitatea argiagoa da beste margolan batzuetan, hala nola *Tulipa-tindua (Tulip Tint, 1975)*, *Red Zinger infusioa (Red Zinger, 1976)*, *Hauspo urdinak (Blue Bellows, 1976)*, eta *Plexoa (Plexus, 1976)*, non zerrendak imitatzen baitu Newmanen "kremailera" (*zip*).
62. Helen Frankenthalerrek Tony Caro eta Sheila Girlingi idatzitako gutuna, 1983ko urtarilaren 19koa, fotokopia, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York, jatorrizkoa Anthony Caro Centren, Londresen.

63. Karen Wilkin, *Frankenthaler: Works on Paper, 1949–1984*, erak. kat. (New York: George Braziller, 1984). Une egokia izan zen Frankenthalerrek paper gaineko obrarekin zuen harremana baloratzeko.
64. E. A. Carmean, Jr., *Helen Frankenthaler: A Paintings Retrospective*, erak. kat. (New York: Abrams, 1989).
65. Maisu handi horien lanen artean daude Edouard Maneten *Traperoa* (ca. 1865–70) eta *Arraina* (*Natura hila*) (1864); Tizianoren *Zuriz jantzitako dama baten erretratua* (ca. 1561); eta Rembrandt van Rijnen *Jacob Tripen emazte Margaretha de Geerren erretratua* (1661). Ikusi Frankenthalerrek maisulan horietan inspiratuta egindako margolanak: *Eskalea* (*Beggar*, 1979); *Zuriz jantzitako emakume baten erretratua* (*Portrait of a Lady in White*, 1979); *Margaretha Tripen erretratua* (*Portrait of Margaretha Trip*, 1980).
66. Arte historikoari artista baten begietatik begiratzea, elaborazio handiagoa aurreikusten duten xehetasun periferikoetan zentratzea da. Barnes Bildumara egindako bisita batean, Matisseren *Bizipoza* (*Le Bonheur de vivre*, 1905–06) lanaren aurrean nengoela, margolanaren ezkerreko goialdeko xehetasun batek eman zidan arreta, bata bestearen ondoan sotilki jarritako koloretako hodeien elkarguneak, hain zuzen. Bakarturik antzeko pasarteak iradokitzen dituzten xehetasunak ageri dira *Tutti-Frutti*, *Uholdea* (*Flood*, 1967) eta *Naturak gorroto du hutsa* (*Nature Abhors a Vacuum*, 1973) lanetan ere. Frankenthalerren abstrakzioek asko zor diete beren aurrekari figuratiboei, irudi nagusiaz harago berrirudikatutako xehetasunei.
67. Barbara Rose, “Oral History Interview with Helen Frankenthaler”.
68. *Argi-iluna* (*Chiaroscuro*) hemen dago erreproduzituta: Elderfield, 1989, 312. Ikus *Eskalea*, *Zuriz jantzitako emakume baten erretratua*, *Margaretha Tripen erretratua* lanen erreproduzioak hemen: Elderfield, 2024, 313, 315, 324 eta 326.
69. Margotzeko “modu” horiez gehiago jakiteko, ikus Douglas Dreishpoon, “Painting to Finish”, in Helen Frankenthaler: *Late Works, 1988–2009* (Santa Fe: Radius Books, 2022), 71, 21.
70. Helen Frankenthaler, “Thoughts about Painting”, Palm Springs Art Museum emandako hitzaldia, 1996ko martxoak 14, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York, hemen berrargitaratua: Dreishpoon, *Late Works*, 73.
71. 1980 eta 1990eko hamarkadetan, HIESak eragindako heriotzen kopurua gora egiten ari zela, kalean gero eta artista gehiago mobilizatzen ari zirela, berekoia eta lekuz kanpokoia iritzi zion askok Frankenthalerren estudioko jarduera bakartari, abstrakzio-lanera eta edertasunaren bilaketara emana buru-belarri.
72. 1990eko udan, hogeita bost lan egin zituen (sei mihise gainean eta hemeretzi paper gainean). Hurrengo urtean, beste hainbeste ia.
73. Azken etapa artistikoari heltzea zeregin zaila da berez. “Jakintsuago bihurtzen gara adinarekin?”, galdetu zuen Edward Saidek bere azken saiakeran: *On Late Style: Music and Literature Against the Grain*. “Pertzepzio- eta forma-ezaugarri bereziak al dituzte artistek, adinaren ondorioz, beren karreraren azken etapan?” Saidek onartu zuen bazela “adin eta jakituriaren halako nozio bat azken lan batzuetan, heldutasun berezi bat, adiskidetzeta lasaitasun-espíritu berri bat islatzen dutenak, askotan errealitate komunaren itxuraldatze gisa adierazia”. Baina orobat onartu zuen atzerapen artistikoaren beste dimentsio bat, “ez harmonia eta ebazpen gisa, baizik eta intransigentzia, zailtasun eta konpondu gabeko gatazka gisa”. Ikus Edward W. Said, “Timeliness and Lateness”, *On Late Style: Music and Literature Against the Grain* (New York: Pantheon Books, 2006), 6–7.
74. Grace George Alexander, “Interview with Helen Frankenthaler”, WNYE, 1969ko martxoak 10, transkripzioa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York. Elkarrizketan, artistak deskribatzen du gerri parean astoen gainean zabaldutako mihise batek “ingurune fisikoan aldaketa bat” eragin dezakeela, eta ezusteko emaitza eragin.
75. Ikerketaren erregistroek agerian uzten dute zer gertatu zen artistak 1991 eta 2001 bitartean paper gaineko lanetara jo zuelarik, eta 2002an, azken aldiz, tamaina handiko mihise bat margotzekari ekin ziolarik. 1992tik aurrera, paperak mihisea ordezkatu zuen berrir. 1993an ez dago margotutako mihiserik, paper gaineko hamar lan eta bi xilografia [*Erorketa askea* (*Freefall*) eta *Erradioa* (*Radius*)] baino ez. 1994an, mihise bat gehitu zitzaion paper gaineko hogeita hemeretzi lani. Hurrengo urtean, paper gaineko hogeita bi lan egin zituen; 1996an, hiru mihise txiki eta paper gaineko hogeita hamahiru lan; eta

- 1997an, zortzi mihise txiki eta paper gaineko hamazazpi lan. 1998tik 2001era, paper gaineko lanak eta grabatuak bakarrik egin zituen; eta 2002an gorakada nabarmena izan zen: tamaina ertaineko zazpi mihise eta hogeita hamaika lan paper gainean. 1992tik 2002ra, Frankenthalerrek inprimaketa-tailerretan jardun zuen aldizka, eta 2003tik 2009ra, lankidetzan jarraitu zuen Universal Limited Art Editions (ULAE) eta Pace Editions, Inc. konpainiekin. Maureen St. Ongek bildutako datuak.
76. Frankenthalerrek “zaharkitua” eta “zentzurik gabea” hitzak erabili zituen, edertasuna hizpide zutela, *Voice of America* aldizkariko berriemaile Susan Logueri 1993an egin zizkion adierazpen batzuetan, hirurogeita bost urte bete zituen egunaren biharamunean: “Gaur egun, artearen munduan zabaldu den moda baten arabera, edertasun hitza ostrazismora kondenatzen da, zaharkitutzat jotzen da, zentzurik gabekotzat, arteari buruzko beste kontsiderazio batzuk askoz garrantzitsuagoak omen direlako. Edertasuna oso hitz konplikatu da, eta nik erabiltzen dudana moduan ordena eta zuzentasun-sentsazioa esan nahi du, hunkitzen zaituena eta, oro har, pinturaren eskalarekin, argiarekin, tradizioarekin eta gainerako guztiarekin zerikusia duena”. Ikus “Helen Frankenthaler at 65”, Susan Logue Kosterrek 1993ko abenduaren 13ko *The Magazine Show*, *Voice of America* saioan Helen Frankenthalerri egindako elkarrizketa, transkripzioa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 77. Helen Frankenthalerrek Anthony Carori idatzitako gutuna, 2000ko ekainaren 18koa, fotokopia, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 78. Helen Frankenthalerrek Anne Truitt idatzitako gutuna, 1991ko otsailaren 17koa, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
 79. “A Conversation: Helen Frankenthaler with Julia Brown”, in *After Mountains and Sea: Frankenthaler 1956–1959*, erak. kat. (New York: Solomon R. Guggenheim Museum, 1998), 41.

ZIRKULUAREN BARRUAN: GUTUN-TRUKEAREN PASARTEAK

Helen Frankenthaler artista izan ez balitz, ederki asko izango zatekeen idazlea. Bennington Collegen ikasle izandako garaian han topatu zuen giro literarioak eta MKR's Art Outlook aldizkarian egindako praktikek idazle-sena ernarazi zioten. Pinturarako bidea hartu zuen azkenean, patuaren gorabeherak bultzatuta, baina, berriemate ona izaki, pintzela bezain aberatsa izan zuen idazluma. Berrogeita hamar urtean zehar hiru eskultoreekin —David Smith, Anne Truitt eta Anthony Caro— izandako gutun-truke oparoak ezin hobeki aditzera ematen du nola garatu ziren haren adiskidetasun-harreman artistiko batzuk hitzaren bidez.

Frankenthalerrek oso goiz sentitu zuen eskulturarako erakarpena; tridimensionaltasunak interes bizia sortu zion, eta bere lehen obra eskultorikoak sortu zituen 1972an, Carok Londresen zeukan estudioan egindako bi asteko egonaldian. Clement Greenberg kritikariaren eskutik ezagutu eskultoreen hirukote hura, David Smith aurreran, zeinaren objektu moztu, soldatu eta, batzuetan, margotuak ikusi baitzituen New Yorkeko galerietan eta estatuaren iparraldean, Adirondack mendietan (Bolton Landing), Smithen etxearen eta estudioaren inguruko zelaietan. Brearen tankerako espiritu bat topatu zuen Smithengan, eta lagun minak egin ziren biak, Frankenthaler Robert Motherwell margolariarekin ezkondu ondoren. Hain zuzen, Smithen adoretu zuen arriskuak har zitzen, etengabe berriak zitzen sorkuntza artistikoaren arauak. Haren heriotza goiztiarra izugarritzko galera izan zen eta nabarmen eragin zion haren zirkulu osoari, bereziki eskultoreei, ongi ulertzen baitzuten Smithen irudimen malgua. Hemen inprimatutako pasarteak ardatz bat izatekotan, Smith litzateke ardatz hori; eta, hain zuzen ere, harekiko gutun-trukearekin hasten da atal hau, non gogoratua baita modu hunkigarrian, behin eta berriz.

Hiru artisten artean trukatu zituzten gutun eta postal asko eskuz idatziak dira; batzuk, mekanografiatuak. Smithenek (oro har, Terminal Iron Works lantegiaren idazpurua zuten paperetan eskuz idatziak) eskulturan egin zituen aurrerapenen berri ematen dute, baita haren bizitza pertsonaleko garrantzi handiko xehetasunen berri ere. Eta gauza bera esan liteke Truitt eta Caroren gutunei buruz. Oro har, akats ortografikoak zuzentzearen aldeko hautua egin dut. Hala ere, Smithen prosa zuzenak bere horretan gordetzen ditu haren berezitasun estilistikoak: haren transkripzioen formatuari dagokionez, aintzat hartu da Michael Brensonen berri artistari buruz idatzitako biografiarena eta Susan J. Cookek argitaratutako Smithen idatzi, hitzaldi eta elkarrizketen bildumarena. Ezabatutako pasarteak —esaldi edo paragrafo osoak— etenpuntu bidez adierazi dira.

Douglas Dreishpoon

HELEN FRANKENTHALER – DAVID SMITH

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Hôtel du Quai Voltaire, Paris

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York 1956ko abuztua [erdialdea/amaiera]

Helen maitea:

... Badakizu Jackson [Pollock] hil zela. Lee [Krasner] Parisen zen. Bill de K [de Kooning] [Herman] Cherryri bisita egitera joana zen Martha's Vineyard uhartera, eta hegazkina hartuta joan ziren biak hiletara. Entzun dudanez, goitik beherako beila irlandarra egin zioten ondoren, Joyceren Finneganena baino hobe. Ez dut uste hartan parte hartzeko gai nintzatekenik. Apur bat gustu txarrekoa da: hartu ahal izango nukeen zerbait lagunekin baina, arrazoiren bat dela medio, izurra izurtzea iruditzen zait haren akolito guztiekin festa bat egitea. Nire ustez, Jack maizegi ibiltzen zen autosuntsiketaren hegian: ez dakit benetan zer arazo zituen. Nik nahiago nuen edana ez zegoenean: isila zen, eta gogoetatsua.

...Clem [Clement Greenberg] nire lanari buruzko artikulu bat idazten ari da Art in America urtekarirako: aldizkari kaskarra da, baina eskulturari buruzko edizioa izango da, [James Johnson] Sweeney, [Andrew] Richie eta abarrek idatzia. Eskultura pintatuaren ordeztu, pintatutako eskulturaren nire kontzeptua sakontzen dihardut: aldea dago, kontzeptualki...

...Maitasunez,

David S

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1957ko apirilak 8

Helen maitea:

Esateko irrikaz nongoen zein ongi gelditu zen zure obra Whitney Museumen [Young America 1957: Thirty American Painters and Sculptors Under Thirty-Five, 1957ko otsailaren 27tik apirilaren 14ra]. Besteen oso gainetik. Kontzeptu argi bat duzu eta ausardia galanta, artearen ohiko koipekeriari amore ez emateko...

...Agur,

David S...

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Provincetown, Massachusetts

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1957ko uztailak 27

Helen maitea:

... Agurtu Hans [Hofmann] nire partes... Arte Ederretako erakusketarako azken brontzea amaitzen ari naiz gaur gauean (larunbata). Larunbatetan amaitu ohi ditut nire lanak, maiz: horrela dira kontuak...

Gure maitasun guztiaz,

David

[P. D.] ... bizitzaren gauzarik onena dira neska osasuntsu eta ongi elikatuak, gauez, etxean, isiltasun erabatekoan, WQXR irrati sintonia bat izan ezik —tailerra jasota—, izena eta data azidotan grabatzen

azken obra amaituan, obra berri bat zoruan, eta amaitutako obrez inguraturik; batzuetan, kontzientziak eta ordenak ekartzen didate plazerik handiena. Ulertzen didazu.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: David Smith, [Bolton Landing, New York?]

1957ko urriak 6

Helen maitea:

... Esan nahi nizun, Helen, ez nuela ia hitz egin, baina adierazi nahi dizut, nire eskerrik beroenak emateaz gainera, zein garrantzitsua izan zen zure festa niretzat¹. Eta eskertu, halaber, gaualdia eta lagunak ditudan pertsona horien guztien adeitasuna... Atsekabetuta nago zenbait gauzarengatik. Baina orain ez, laguna baita pertsona hura zeinarekin ez baita beharrezkoa...

Ez dizut idatzi...krisi pertsonal bat dela medio. Hori da dagoena, eta zein bere aldetik ikusi behar izango gaituzu [Jean Freas eta Smith]. Bakardadea datorkit, baina hor dauzkat nire bi alabak...

Arazoak izaten ari naiz eskulturarekin ere. Orain lantzen ari naizena benetako zentzugabekeria iruditzen zait dagoen puntuan. Baina, itzuli naizenetik, eskulturen moduko lau pintura edo horrelako zerbait egin ditut: 50 cm inguru zabalak eta 2 m inguru altuak.

... Behin eta berriz ikusten ditut alaben pinturak. Une honetan zerbaitek benetan eragiten badit, haiek dira. Zer-nolako lasaitasuna. Zein ekintza bitxia, ezustekoa, inkontzientea, oharkabekoa. Ezaxola, inori ezer zor ez diotela. Eta zein sentimendu aratza eta emozio pertsonala.

Nire maitasun guztia bidaltzen dizut, zoragarri margotu dezazula,

David S

Hartzailea: David Smith

Igorlea: Helen Frankenthaler eta Robert Motherwell, Alassio, Italia

1960ko abuztuak 15

David maitea:

... Asteak behar izan ditugu behingoz nolabait antolatzeko eta lan-ordutegi bat finkatzeko; une honetan, hauxe da, gutxi gorabehera: jaiki eta hamarretarako gosalduta gaudela, nor bere estudioan bazkalordura arte, ordu bata aldera arte; gero, edo pintura gehiago edo hondartzara edo idatzi, irakurri, txoroarena egin, enkarguak hirian, etab. Bizimodu zirraragarriki aspergarria daramagu, badakizu zer esan nahi dudana: hau da, gustukoa dugu eta sinplea da, gorabeheratsua ere maiz, baina emankorra, eta primeran pasatzen dugu elkarrekin.

... Aurreko astean lehen txangoa egin genuen: Nizan izan ginen, burdin beltzezko barandak dituzten 1890eko hotel zuri erraldoi eta dotore horietako batean, oso dibertigarria, eta "denetik egin genuen"... lepo

jan (bi kilo eta erdi hartu nituen) eta Niza eta Cannes arteko herri interesgarri guztiak bisitatu. Ni egina nintzen bidaia hori duela sei urte, baina, Bobekin, dena lehenengoz ikustea bezala izan zen, begi eta arima berri bidez...

... Poztu gara zure gutunak jaso izanaz eta sentitzen dugu halako istilu judizialekin ibiltzea: erruki zaitugu. Kontatzen duzunez, zoragarri egon behar dute Didak eta Beccak [Candida eta Rebecca, Smithen alabak], egiten ari zareten horixe da orainaren eta etorkizunaren alde egin dezakezen onena. Pozten naiz lana hain bide onetik doakizula jakiteaz. Europan eskultura ikusten dudanean eta eskulturari buruz zerbait entzuten edo esaten dudanean, betiko ondorio berera iristen naiz behin eta berriz: David Smith. Eta kito...

Ongi segi, gozatu. Maitasunez, Helen...

Hartzailea: David Smith, Bolton Landing, New York

Igorlea: Helen Frankenthaler, Provincetown, Massachusetts

1961eko uztailak 29

David maitea:

Unetxo batez despistatu, eta akabo eguna: denbora ez zaigu inoiz pasatu hemen egin ditugun azken bi hilabete hauetan bezain bizkor, ez batari ez besteari... Hitzordu bat bera ere ez dugu izan minutu batzuk lehenago zehaztua, eta, telefonorik gabe, oinarri-oinarizkora murrizten da bizitza, zeina baita ezinezkoa New Yorken... Atzo, larunbata, lehen bisita egin nuen erdialdeko kale komertzialetara: beatnikak, eskaleak, turistak. Ez ginen izan inongo taberna edo gau-klubetan, baina zinemara joan ginen... Alokatu genuen mandio-estudioa aparta da. Nire ordutegian etenak izan dira, eta ongi doala uste dut, baina Bob egunero joaten da hara, eta irudi du itzultzen dela pozarren eta adoretu... Nik momentu zailak izan ditut; umeen kontuekin, nire buruarekin, denborarekin, desirarekin, munstro eta gatazka horiekin guztiekin borrokan ibili naiz, baina uste dut gauzak benetan konpontzen doazela pixkanaka...

... Berez, ez dago BERRIKUNTZA handirik ohiko kontuei dagokienez. Esan didate Franz eta Betsy [Kline] ez direla etorriko, Betsy ez dago ongi, eta Franzek etxe berria erosi du 13. Klean, eta konponketetan dabil. Rothkotarrak ekainean etorri ziren, eta alde egin zuten, gero, baina berriro etorriko dira, eta ostatu bat hartuko dute, alokatuta daukatelako hemengo etxea. Janistarrek [Sidney eta Harriet] egun batzuk igaro zituzten hemen, baita goossentarrek ere [Gene eta Jean]. Arte-merkatari, kritikari, jazzaren jarraitzaile eta diletanteen joan-etorri iraunkor samarra dago hemen, baina ez dugu harremanik ia inorekin...

Jarraitu ongi, lan asko egin, eta idatz iezaguzu.

Maitasunez

Bob,

Maitasunez

Helen.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: David Smith, Genoa, Italia

1962ko ekainak 16

Helen maitea:

Zu aukeratu zaitut [Beatrice] Monti [della Corte] eta [Romeo] Toninelliren berri emateko: Espletoko jaialdiaren ondorengo erakusketan parte hartzeko

zirika ari zaizkit.

... Nire zortzi langileek aingeruen bi medailoi (urrezkoak) oparitu dizkidate, Rebecca eta Candida izenak grabatuta dituztela atzealdean... Izugarri hunkitzen naute horrelako kontuek. Oso harreman estua egin dugu berehala; gaur, goizeko seietatik arratsaldeko seietara jardun dugu guztiok. Asteazazpi egunez egon dira nirekin. Ongi moldatzen gara: nire falta sumatuko diotela diote; gauza bera esan diet neuk ere. Konfiantzazko sentimendu aske eta egiati hori Estatu Batuetako fabrikakoaren oso bestelakoa da².

... Guztiontzako maitasunez,

David...

Hartzailea: David Smith

Igorlea: Helen Frankenthaler, Provincetown, Massachusetts

1962ko uztailak 29

David maitea:

Biok genuen zuri idazteko asmoa, baina uztaila desagertu bezala egin da...

... Uda "karratua" izan da, zinez, eta "aspergarria", oro har, baina izugarri gustatu zait...

Irudipena daukat ez naizela ongi enteratu Italiarako zure bidaiaz, arrasto on samarra eman bazidaten ere zure postalek, gutunak eta itzuli zinenean telefonoz izan genuen elkarrizketak: aste biziak izan ziren. Zure obraren argazkiak ikusteko eta gehiago jakiteko irrikaz nago...

Atzo kontatu zidaten Morrisen berri izugarria [Louis, birikako minbizia diagnostikatu berri diote]. Pentsatuta daukat bihar edo hari idaztea, baina hain gaitzituta nago gertatu zaionarekin, ezen kostatu egin baitzait. Jakin dudanez, izugarri ausart eta itxaropentsu dago. Jarri al da Ken [Noland] harremanetan harekin edo Marcellarekin [Brenner, Morris Louisen emaztea]? Hainbeste denbora da berekin ez nagoela, are zailagoa gertatzen zait gertatu zaion hau gertatu zaiola sinestea, berari...

Maitasunez,

Helen.

Hartzailea: David Smith, Bolton Landing, New York

Igorlea: Helen Frankenthaler, Provincetown, Massachusetts

1962ko irailak 19³

David maitea:

... Askotan gogoratzen gara zutaz, eta pozten gara egun haiek hemen igaro izanaz. Izugarri ukitu ninduen Morrisen heriotzak: ezin nuen onartu, denok espero genuen arren. Egundoko ondoeza sortu zidan haren galerak. Saiatu nintzen harremanetan jartzen zurekin + Kenekin telefonoz gau hartan, baina ez nuen lortu; gero jakin nuen, Andrearen bidez [Emmerich], Ken Wash[ington]era joana zela. Asko sentitu nuen zurekin hitz egin ezin izana...

Maitasunez, Helen

Hartzailea: David Smith

Igorlea: Helen Frankenthaler, Provincetown, New York

1963ko abuztuak 9

David maitea:

... [Z]enbat eta gehiago zahartu, orduan eta ezintasun handiagoa dut [koadro batzuk "egiteko"]... Gero eta denbora gehiago behar dut eskumuturra, garuna eta espiritua elkarri lotzeko eta, gero, guztia batera askatzeko, ulertzen didazu. Nire burua behartu beharra daukat poza edo askatasuna ekarriko dizkidan errutinari heltzera (itxuraz, gauerditik goizeko zortziak arte lo egitea, gero ordu bata arte lan egiteko). Horretara itzultzeko, paisaia eta itsas ikuspegi mordoa egiten jardun dut, nire plazer zahar eta ohikoetako bat. Sor eta lor gelditzen naiz leihotik ikusiz ditxosozko itsasaldiak, nola aldatzen diren arrokak formaz eta kolorez, eta izugarri gustukoa dut hortxe eseri eta mihise batean adieraztea orduz ordu. Gero, inprimaziorik gabeko kotoizko olanazko biribilki erraldoiei begiratzen diet. Izugarria da (baina bikaina)...

Maitasunez, Helen.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1963ko urriak 4

Bob eta Helen maiteak:

... Oraintxe, ostegun batean, eguerdiko ordu bata eta erdietan, hormigoi-makina iritsi zain nago, eskultura batzuetarako 30 idulki berri bota ditzan. Laster beteta izango ditut zelaia [Smithen Bolton Landingen zituen etxearen eta estudioaren inguruak]. Jarraitzen dut obra berriekin, materialak eskatzen, bi laguntzaileri lana ematen eta obra handiagoetarako asmoekin...

... Pixka bat txukuntzen ari naiz Benningtongo apartamentua. Aurrekontu xumea edukita nola antolatu eta ekipo berriak nola erosi erakusten ari natzaie. Hogeita hemeretzi soldagailu berri izango dira munduan. Soldatzaile bat kontratatu dut, astean 2 gauzez eskolak eman ditzan...

... Ez dut harreman handirik artearen munduarekin, aldizkari eta egunkariak irakurtzen ditudan arren. Aspalditik nabil horrela, eta zer moduz ote doakizuen galdetzen diot nire buruari. Zoragarria irudi lezake, bakartia ere baden arren: irakurtzeko eta pixka bat gehiago pentsatzeko astia...

Maitasunez,

David–

Hartzailea: Helen Frankenthaler

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1964ko martxoak 9

Bob + Helen maiteak:

Pare bat egun eman ditut gaixo. Gaur, martxoak 9, 58 urte betetzen ditut, lantegira jaitsi naiz... Asteazkenean Benningtonera joan behar dut. Tony Carok hanka hautsi du eski-pista batean. Hari esku bat botatzen saiatuko naiz...

... Hiru Cubi herdoilgaitz amaitzeaz nago, egitura desberdinekoak. Horiek muntatzeko idulkien zain.

Maite zaituztet, bidaiari beltzarandu horiek,

David

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Sainte-Maxime, Frantzia

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1964ko maiatzak 30

Helen + Bob maiteak:

... Wagon III obrarekin nabil: laster behar luke amaituta. Aurreko astelehenean [New Yorkera] alde egin aurretik, hemen aritu ziren hondeamakinak: bi mandio eraitsi zituzten, eta biltegi modura erabiltzeko suaren kontrako estudio bat eraikiko dut, oraintxe diseinatzen eta planifikatzen ari naizena. Hurrengo beharko dudana zimenduak zultatzeko langileak izango da.

... Ehun mihisetik gora ditut Lebronen —irudien marrazki esmaltatuak—, modeloak erabiliz landuak. [Zeramikazko] platerak margotzen eta marrazten hasi naiz, baita irudien zirriborroak egiten ere, oraingoz 40 bat dauzest.

... *Asko sumatzen dut zuen bien falta,*

Maitasunez, David–

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Provincetown, Massachusetts

Igorlea: David Smith, Bolton Landing, New York

1964ko abuztuak 3

Helen eta motherwelldar maiteak:

... *Etorri berriak dira neskak parekoen seme-alabekin, Beatle [sic] taldearen disko berria jartzera... Lan pixka bat daukat hemen lantegian (fakturak, gutunak, etab.). Nekatuta nago, eta laster oheratuko naiz, baina ia amaituta dauzkadan 3 piezak ongi daude...beste bat daukat bidean: atal astunekiko herdoilezko egiturak.*

Azkenaldian, formak ibili ditut gogoan, forma beltzak baino ez, erditik kanporanzkoak: itzulera bat, orain lau urte egin nituen batzuetan baino heldutasun apur bat gehiagoz, baina, tira, beti eduki dut silueta hori guztiaren atzean.

Denentzat, maitasunez,

Izan dezazuela lan on eta emankorra 2ek,

David

[Itzulpena: Rosetta testu zerbitzuak]

Oharra

Besterik adierazi ezean, Smithek Frankenthalerri idatzitako gutunen pasarteak Helen Frankenthaler Papers bildumaren eskaintza dira (Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York), eta Frankenthalerrek Smithi idatzitakoenak, David Smith Archive bildumaren eskaintza (The Estate of David Smith, New York).

1. Museum of Modern Art-en 1956ko irailaren 10etik urriaren 20ra egin zen David Smith erakusketa zela-eta koktel bat antolatu zuen Frankenthalerrek (West End Avenueko apartamentuan, seguru asko).
2. Smithek oso lan emankorra egin zuen hilabetez Voltrin, Genovatik hamasei bat kilometro mendebaldera, fabrika abandonatu bateko egiturak egiten; ikus Michael Brenson, David Smith: The Art and Life of a Transformational Sculptor. Farrar, Straus and Giroux, New York, 2022, 563–79. or.
3. Postala. Eskaintza: Helen Frankenthaler Papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Tokio

1964ko irailak 2

Helen maitea:

Tira, badira sei hilabete etorri ginela, eta maiz izan dut zuri idazteko gogo, une desegokietan beti, ordea, inprimazioaren laugarren eskua ematen ari naizela edo bainuontzian, adibidez...

Lanaren arazoak oso konplexuak dira. Ez dago artistek lan egiteko duten moduari buruzko kontzeptu orokor bat, eta, hortaz, pintura eta abar lortzeko, jardun behar izan dut bulldozer baten adinako erabakimenaz, manera onen moztorropean, hala behar zenean, ahal bezainbeste egokiturik japoniar estiloari... Hemen ongi lan egin beharko nuke. Jendeak "eraginak" aipatzen ditu, maiz, baina, niri dagokidanez, nire lanak bere bideari irmo jarraitzen diola dirudi, niretzat berria den era batean baina testuinguru erabat propio baten barruan beti...

Zure koadroa [May Scene, 1961] egongelan zintzilikatuta daukagu, eta plazer izugarria da... Etsigarria izan zen Kenek [Noland] Bienaleko saria lortu ez izana. Uste dut uler dezakedala, [Robert] Rauschenberg izanik hain liluragarria, askoz ere soilagoa, alderdi guztietatik, eta Pop Artearen irudia zeharo limurtzailea, nik gustukoa ez dudan arren...

... Maitasunez,

Anne

Hartzailea: Anne Truitt, Tokio

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1964ko abenduak 27

Anne maitea:

Urtaroak neurtzen dihardut, Japoniako zigilu berreskuratuak zenbatzen: zure gutunetakoak, postaletakoak, katalogoetakoak...

... Hiru erakusketa harrigarri besterik ez dira egin —[Morris] Louisena, Nolandena, [David] Smithena— eta bada zerbait!...

... Daviden erakusketa... Marlboroughen izan zen, eta hamarkada osoan New Yorken ikusi ditudan erakusketa guztietan onenetakoa izan zen (oharkabean igaro zitzaidan hango dekorazio ezin itsusiagoa ere:

Zig eta Cubi haiek guztiek gaina hartzen zioten hango zabarkeria guztiari eta argiztapenari). Etortzen zarenean, ikusi behar duzu hor zehar barreiatuta dagoen haren obren bilduma. Davidek jenioaren ezaugarri bitxi hori du, sinplifikatzeko gaitasuna, baina esanahia sakrifikatu edo murriztu gabe: hortxe daude nabardura, boterea, magia, eskala monumentalean. Irudipena daukat gero eta obra gehiago ikusten ditudala “itxura soilekoak”, zeinetan ez baitira erabiltzen alfabetoko letra bakar batzuk baizik, eta ez abezedario osoa, eta oso mugatua iruditzen zait eta ez denborak aurrera egin ahala hazten doan ideia, formula-eredu moduko bat, tarterik uzten ez duena zabarkeriarako edo anbiguotasunerako... Esan, noiz zatoz New Yorkera? Zenbat denborarako?...

Utzi behar zaitut: gogoan zaitut, onena opa dizut, beti bezala, segi ongi, maitasunez, Helen.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Tokio

1965eko urtarrilak 15

Helen maitea:

... Otsailaren 3an iritsiko naiz etxera...Bada ni ere etxera itzultzeko garaia, premia dut. Bere gantzetik elikatu den eta ganorazko otordu baten beharra duen norbait bezala sentitzen naiz. Hala nola lagunak ikusi, eta Daviden eskulturaren moduko gauzak. Guzti ados nago “itxura soileko” obren kontu horrekin, kale itsu erabatekoa da. Davidena burutik kendu ezinik nabil. Goi Errenazimentuko artista baten modura ikusten dut, Michelangeloren modura, bat aipatzearen, zeinaren obrak egiten baitu gure garaia erreala edo...

... Maitasunez,

Anne

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Tokio

1965eko maiatzak 25

Helen eta Bob [Motherwell] maiteak:

Egunkarian irakurri berri dut David hil zela igandean, eta zuetaz gogoratu naiz, imajinatzen dut zein triste egongo zareten.

Lake George afaltzen ari ginela David eta Kenekin eta Larry Rubin eta haren emaztearekin [Elisabeth de St. Phalle], Larry telefonotik itzuli zen esanez Morrisi ebakuntza egin ziotela, birikako minbizia zela-eta. Hauxe izan zen Daviden lehen erreakzioa: “Tira. Makina bat gauza on egin ditu”. Daviden beraren epitafioa ere izan zitekeen, baina Morrisena baino eskala are handiagoan eta garrantzizkoagoan, nire ustez. Haren heriotzak jota utzi gaitu guztiak. Nire David maitea. Gogoan dut haren itxura, gorpuzkera, bibotea eta usain sarkorra, eta eskuzabaltasun amaigabea, garrantzizko gauzetan. Gogoan dut nola behin hitz egin nion nire lana eta nire bizimodu arruntaren alderdi guztiak uztartzeko nituen arazoez, eta hau erantzun zidan, hain

ohikoa zuen zentzu komun zorrotz harekin: "Tira, laztana, bizitza sekretu bat beharko duzula uste dut". Arrotz gertatuko zait jakitea ez dagoela hor, Bolton Landingen lanean eta bizitzen, irmo eta erostezin. ... Biei nire maitasun guztia eta doluminak bidaltzeko bakarrik idazten dizuet.

Anne

Hartzailea: Anne Truitt, Tokio

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1965eko ekainak 12

Anne maitea:

Eskertzen dizut Davidenagatik idatzi izana. Gogoan oso bizirik iltzatuta ditugu oroitzapenak (zureak barne), eta halako mina dugu, non ezin baitugu ia sinetsi ere egin joana dela. Egunean zenbait aldiz, gutako batek uste ohi du ikusiko dugula atetik sartzen eta etxeaz "jabetzen", bere urrats handiez, samurtasunaz, umoreaz eta eskuzabaltasunaz. Lehen aldiz ari gara benetan jasaten absentiaren sentsazioa elkarrekin, urte hauetan zehar lotura sendoa sortu baitugu gure lagun minenarekin. Malkoez eta filosofia suharraz gainera, haserrea ere badut, eta nire parte batek inoiz ez du onartuko itzulezintasun hori. Jende mordoa dago itxuraz bizirik egonik bizirik hila dirudiena. David askoz ere hilago dago, hain zuzen ere, zeukan bizitasunagatik.

... Maitasunez,

Helen.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1970eko irailak 19

Helen maitea:

... Sumatzen dut nire pisua euste-puntuaz beste aldera, urteetan zeharreko bultzada sendo, iraunkor eta suharraz haratago...Argi daukat benetan eskatutako guztia ekarri didala bizitzak. Orain, osatzen saiatuko naiz: alabak, lana eta datorrena. Honek guztiak itxura aratza, ordenatua eta segurua badu, hitzez adierazten ari naizelako soilik da. Haizeak marruka jarraitzen du etenik gabe...21 urteko ezkon-bizitzaren ostean Jamesengandik [Truitt] banantzea prozesu jarraitu bat da: askoz ere errazagoa, orain, ikuspegi psikologikotik, nahiz eta izugarrizko nahasmena den alderdi juridikoari dagokionez. Lanaren, tokiaren eta diruaren kanpo-arazoak izugarrizko oinazea dira, izugarri arindua, aurtan, Guggenheimi esker [beka], salbatu baitit bizitza, hitzez hitz. Lehen baino arinago nekatzen zara? Ni bai. Esango nuke gantz gutxiago dagoela, nolabait, erasoak jasateko. Neskak entzuten ditut nahas-mahasean. Amaitu da nire bakealdia. Barkatuko dizkidazu burutapen hauek... Maitasunez, eta dena ongi aterako zaizun itxaropenez, Anne

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Saratoga Springs, New York

1974ko abuztuak 13

Helen maitea:

... Yaddo nire bizitza aldatu duen tokia da. Lehenik eta behin, sendatuta nago orain, are indartsu ere. Nire senera itzuli nau ohiko errutinak —isiltasuna egun osoan (zoriona), ordu lasaiak estudioan, otordu zoragarriak eta konpainia interesgarria—. 75 gauza baino gehiago egin ditut, mihise eta eskultura txikiak eta paper gaineko obrak, baita aspalditik egin nahian nenbilen idatzi batzuk ere. Sekula lehenago bizi gabea nintzen artisten komunitate batean, eta lagunartekotasunaren erabateko agerkundea gertatzen ari zait...

Benningtonera autoz joan, eta Kenekin igaro nuen eguna; benetan adeitsu agertu zen. Bizar zuriak ezin hobeto ematen dio!...

... Maitasun handiz, zaindu; eta ea ahal bezain laster elkar ikusten dugun.

Anne

Hartzailea: Anne Truitt

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1979ko urriak 3

Anne maitea:

... Nire gorputzaren mugak —hau da, neke fisiko izugarria—, batetik, eta iraganeko esperientziak, bestetik, askoz ere hobeto dakit zer ez dudan egin behar, eta ez naiz sentitzen “gaizki” edo zerbait huts egiten ariko banintz bezala. Eta seguru nagoenean, ez dut nire ingurura begiratzen hain isil-gordeka. Agian! Hain dirudi zentzuzkoa!...

... A bientot, maitasunez, Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1980ko urtarrilak 1

Helen maitea:

... Ados nago, "adin ertainekoa" esapide izugarria da. Eta ez da zehazki "ertaina", gainera, ez? Hiru laurden, gehiago. Zalantzarik gabe, baditu abantailak. Nik ere ez dut "nire ingurura begiratzen hain isil-gordeka" nire indarren mugan nagoenean: sentsazio izugarria zen, ustez izan behar nuen bezain indartsua ez nintzelako halako erruduntasun lauso bat. Deserosoa. Ohartu naiz badaukadala "ez" esatea istant bateko gogoeta egite hutsaz. Zoragarria da, eta nahasgarria, ohartzea nire bihotzak beti bezain suhar diharduela taupaka. Ona da hori guztia, nik uste, eta betirako hala izatea espero dut. Baina lagundu nahi nuke suhartasuna erresistentzia sendoagoaz... Sinpleki, ezin dut ohi nuen bezala fidatu nire buruaz. Ez estudioan, handik kanpo baizik...

...eta maiz gogoratzen naiz zutaz, lagunkidetasunezko eta txerazko sentimendu batez.

Anne

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1981eko urriak 26

Helen maitea:

... Gustukoa duzu bakarrik bizitzea? Nik bai. Inguratzen nauten espazioa eta lasaitasuna, eta erabateko independentzia. Batzuetan, irrealia iruditzen zait, James edo "senar bat" baleude bezala bazterren batean, hurbileko tokiren batean, nire parte batek uste izango balu bezala pentsaezina dela hain bakarrik egotea. Baina, denbora gehienez, askea eta independentea izateaz benetan eskertuta nago...

Nik ere "uko egin diot" bizitza sozialari. Agian, urte gehiegiz. Berez, benetan nahi dudan jendearekin besterik ez naiz egoten, luzaroan borrokatu behar izan bainaiz horretarako ere denbora edukitzeko. Orain, aukera dut irekitzeko eta, zentzu askotan, hori eginez neu sentitzeko...

"Bat-bateko umorea", diozu. Nik ere nabaritu dut! Harrigarria da inork ez aipatzea adinaren ezaugarrietako bat dela. Maiz, haurren gogo beraz barre egiten dut. Eta nabaritzen dut nire aurpegia saretzen ari den arren portzelanazko plater pitzatu baten antzera sei-hamar bat urte nitueneko itxura bera daukadala, zortzi urte nituenekoa agian. Nahiko karratua, sinplea eta zurbila...

...Maitasunez,

Anne

Hartzailea: Anne Truitt, Washington D.C.

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1990eko maiatzak 29¹

Anne maitea:

Egun grisa hemen, arrastaka bezala nabil, eta zero grisa hezur-muinetaraino sartuta... Kontuak horrela, eguraldiari buruzko nire aitzakia merkea gorabehera (atzo egun zoragarria egin zuen), oso etsita nago Panorama orokorrekin, Artearen Munduarekin, New Yorkeko Unibertsoarekin, NEAren negozioekin, Errusian, Alemanian, Frantzian, Harlemen zabaltzen ari den antisemitismozko olde berriarekin, eliteko aristokrazia suntsitzeko saiakerarekin, merkatua oro har suntsitzekoarekin... Horrez gainera, sorgogarrria iruditzen zait ia: artea sortzen saiatzea, buru-belarri, eta begiak estaltzea, uharte mortu batean bakartzea... Aldaketa-fase iragankor batean murgilduta sentitzen naiz, baina ez daukat behar adinako perspektibarik jakiteko erreala den edo ez. Iruditzen zait nire adinari buruzko erreakzio berantiar bat izaten dudala hamarkada bakoitzean. 42 urte nituen 40 urte izateaz harrituta gelditu nintzenean! Gero, urtebete edo bi behar izan nituen (handik hamar urtera) konturatzeke, alajainkoa, 50etik gora ditudala! Eta, orain, bat-batean, sentitu dut zaplaztekoa eta gelditu naiz paralizatuta, 61 urterekin. Badira gauza pare bat zerikusia dutenak osasunarekin nahiz maitasunarekin —ez larriak— eta gogoeta eginarazten didatenak. Saiatuko gara horri guztiari, edo parte bati, heltzen hurrengoan elkartzen garenean.

Bitartean, nire maitasun osoa eta mirespena.

Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1990eko azaroak 28

Helen maitea:

Konfiantza sakona dugu elkarrekiko, ez? Artistak garelako, beharbada...biak, baliteke nolabaiteko zerikusia izatea zaurgarritasunarekin. Beti iruditzen izan zait zuk “gordetzen” duzula zurea (gaztelu bateko dorrean edo) eta nik nirea: baliabide bat...Duela bi aste, halabeharrez enteratu nintzen, beti esan izan baitidate bizi osorakoa zela, unibertsitatean dudak plaza 70 urte betetzen ditudan egunean amaitzen dela, martxoan...Behin galdetu zenidan zer egingo nukeen eskolak ematetik libratuko banindute. Fantasiari bide eman nion zuri idatzitako gutun batean, eta gozatu nuen. Baina, fantasia horren azpian, askoz ere sakonagoko geruza bat dago: nire barne-begiaz ureen joanean “ikusten” aritu naizen eskulturak...badakizu, toki hori non baitirudi obra existitzen zela existitu aurretik ere: hazten doazen eskulturak...Partenongo zutabeak bezalakoak... Beti uste izan dut egunen batean aukera izango nuela jartzeko nire arreta osoa obra horiei eta haiek gauzatzeko. Horrexek ematen dit min gehien. Beranduegi hasi nintzen lanean prestazio asko pilatu ahal izateko, eta bizitzeko gelditzen zaidana gelditzen zaidala, inondik ere ez dut izango obra horietarako funtsik...

... Nire maitasun guztia bidaltzen dizut,

Hartzailea: Anne Truitt, Washington D.C.

Igorlea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut

1991ko otsailak 17²

Anne maitea:

“Axolagabe” hitza ez da egokia; gehiago esango nuke nagoela nagi, lotsatuta eta, batez ere, damututa, (bereziki), zure azken gutunaren eta zure albiste ilun guztien ondoren zuri erantzuten hainbeste berandutu izanagatik. Era horretako gutunak hartzen ditut laguntza eske partikula gisa, zeinari hartzaileak baitu — elkarrekiko dugun adiskidetasun eta enpatiazko sentimenduagatik eta historiagatik— gutxi-asko berehala erantzuteko “betebeharra”.

Zoritxarrez, huts egin zuen elkartasunezko edo/eta adore emateko nire senak, bai baintuen nik ere estutasunak. Grrrr. Hortaz, has gaitezen berriro! Jakingo bazenu zenbat aldiz eduki dudane zure gutuna eskuetan, erantzun zain, eta gogoratu naizen zutaz, aspertuko zinateke... Hona hemen nire estudio berri zoragarrian barrenako ibilaldia (ez uste kontuan ez ditudanik lorpenak edo zeharkako bedeinkazioak!)...Jakina, traumatikoa da dena martxan jartzea, fisikoki eta estetikoki, eta plangintza zorrotza eskatzen du, ilusio handia ez ezik. Badakit, halaber, nire baitan, zahartzearekin “martxa aldatzeko” unea iristen dela, zalantzarik gabe, eta kontsiderazio berriei tarte uztekoa...

... Uste dut zu eta biok beranduegi “esnatu” ohi garela, maiz, zuk “ameskeria” deitu zenuen horretatik. Batean, beste zerbait datorrigu gainera. Baliteke hori izatea partekatzen ditugun eta jarraitutasun batean elkartu gaituzten gauza ugarietako bat. Ideia gozo bat.

... Musu asko, Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1991ko otsailak 26

Helen maitea:

... Ongi baino hobeto ezagutzen dut zure “grrr” sentsazio hori: blokeoa. Zorigaiztoko fisikoaren menderaezintasuna da...Bitxia da bizitzak nola garamatzan, ezta? Beharrezkoa da plangintza, baina, azkenean, dena kokatzen da bere tokian, sarraileen zilindroak bezala, harik eta, sinpleki, hor zegoela ez genekien ate bat irekitzen den arte. Atzera begiratuta, mugimendu bakoitzak dirudi ezinbestekoa eta teleologikoa. Zuk diozun moduan, jarraitutasun bat, eta atsegina. Horixe dut gustukoena.

... Eta maitasuna, jakina.

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1991ko uztailak 27

Helen maitea:

Williamsburgen izan nuen Boben heriotzaren berri, hara joana bainintzen Maryri [Truitten alaba] laguntzera alabaz erditzean. Jakina, lehenengo burura etorri zitzaidana galera izan zen —malkoz bete zitzazkidan begiak—, eta Bob bera, zoriontsu, lanean, sukaldean, bere modu zoragarri eta ozen hartan hizketan. Hura ezagutu nuen garaian, zeharka bazen ere; biak ezkontuta zinetenean. Bigarrena burura etorri zitzaidana zu izan zinen, noski. Ezer ez da amaitzen, biek ongi dakigunez, gure kalterako (eta jakintzarako ere). Hain dira sakonak gure sentimenduen sustraiak...Beti pentsatzen dut igelbelarretan: igeri daude ur-azalean, baina elikatzen dira lurretik, oso-oso sakonetik, ernatzen diren bizi-ildoen bidez. Haren heriotzarekin dirudi amaitzen dela aro bat; bizi izan zen bitartean izan balitz bezala duela berrogeita hamar urteko gure estatubatuar xalotasunaren eta gaur egungo artearen kakofonia kaotikoaren arteko amildegiaren gaineko zubia. Hain artista gutxi gelditzen dira humanoa den hori beren obran modu koherentean adierazten ahalegintzen direnak, adimenarentzat eta bihotzarentzat irisgarri egiten dutenak. Guregatik jotzen dute haren heriotzako kanpaiek benetan. Eta zuregatik, hain modu hunkigarri eta sakonki pertsonalean. Helen laztana, nire maitasun guztia eta desiorik onenak,

Anne

Hartzailea: Anne Truitt, Washington D.C.

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York eta Santa Fe, Mexiko Berria

1991ko abuztuak 1 eta 12³

Anne maitea:

Zure gutuna izan da jaso ditudan artetik ederrenetakoa eta sakonenetakoa. Bai, une zaila eta barnerakoia izan da niretzat, eta harrituta nago toki guztietatik jaso dudana laguntza eta enpatia izugarriarekin. Egoerari buruzko zure sentimenduak —zureak eta nireak— hain daude malkoz, une hunkigarri, amorrus, bizi-filosofiaz blaituta: a zer bidaia egiten duguna! Dena amaitzen da. Ezer ez da amaitzen...Igelbelarren zure metafora zinez da egokia.

Asko maite zaitut eta zutaz gogoratzen naiz. Jabetzen naiz zenbat (gure barne- eta kanpo-paisaien desberdintasun fisikoak eta sinbolikoak gorabehera), zenbat “behar” dugun beti elkar eta laguntzen diogun elkarri.

... Maitasunez, Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anne Truitt, Washington D.C.

1994ko maiatzak 16

Helen maitea:

Jakina, berehala gogoratu nintzen zutaz Clem [Clement Greenberg] hil zenean eta Espainian zinela jakin nuenean. Zure falta sumatu genuen hiletako "festan"...Tristeza da berriro apartamentu horretan pentsatzea, Clem bertan ez dela. Berekin eraman zituen hainbat lagunen bizitzako parte garrantzitsu eta oso zehatzak. Ahal duzunean hitz egingo dugu.

Maitasunez, lagun lastana,

Anne

Hartzailea: Anne Truitt, Washington D.C.

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1994ko maiatzak 25⁴

Anne maitea:

Itzuli berriak gara [Frankenthaler eta Stephen DuBrul] Espainian barrena hiru asteko eztei-aurreko bidaia egitetik; Espainiako aurpegian barrenako bidaldi distiratsua izan da, alderdi askotatik: argazkiak, pertsonak, paisaiak eta, batez ere, gu biak. Itzultzean, posta-pila itzela topatu dut, eta horrexegatik ari natzaizu ohar hau idazten, Clemen heriotzagatiko nostalgia eta enpatia adieraziz igorritako hitzen esker onez. Sentitzen dut haren apartamentuko hileta-bilkura huts egin izana. Maiz, era horretako erritualek ematen dute amaiera beharrezko bat, parentesi batean bezala. Zuk eta biok badakigu bandera pila ari direla hemen haren omenez kulunka. Haren argitasuna, ausardia eta indarra, haren hainbat eta hainbat jarrera bezala, sakon iltzatuta daramatzat nire baitan. Harekin haserretzen nintzelarik ere, izugarri maite nuen. Egia ez da hiltzen.

... Nire maitasun guztiaz, [Helen]

[Itzulpena: Rosetta testu zerbitzuak]

Oharrak

Besterik adierazi ezean, Truittek Frankenthalerri idatzitako gutunen pasarteak Helen Frankenthaler Papers bildumaren eskaintza dira (Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York), eta Frankenthalerrek Truitti idatzitakoenak, Anne Truitt Papers bildumaren eskaintza (Special Collections Department, Bryn Mawr College Library).

1. Gutun fotokopiatua. Eskaintza: Helen Frankenthaler Papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
2. *Ibid.*
3. *Ibid.*
4. *Ibid.*

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1969ko apirilak 14

Helen maitea:

Eskerrik asko zure oharragatik, azalean zure koadroa [Swan Lake I, 1961] dakarren Artforumen edizio berriaren egun berean iritsi zen¹. Ez dakizu zein pozgarria zaigun Sheila [Girling] eta bioi koadro hori edukitzea. Maisulan erabatekoa da!

Irrikaz gaude zu eta Bob [Motherwell] ikusteko; datorren hilean New Yorkera joateko asmoa dugu, zure inaugurazioarekin batera ez egokitzea espero dut. Une honetan, buru-belarri nabil lanean, eskultura berriak sortzen, baina gutxi dauzkat amaituta: Swan Lakerekin dena ongi irtetea opa dizut.

Nire desiorik onenak,

Tony

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1969ko urriak 31

Tony maitea:

Eskerrik asko, Benningtongo zure gutunagatik, dagoeneko ari da bere lana egiten. Asko eskertzen dizut nire laguntza-eskeari hain bizkor erantzun izana.

... Gure arteko betiko gai zaharrari buruz, eskultura-pintura trukeaz: ba al dago aukerarik (hitz egin genuen moduan) nire Swan Lake obraren garaitsuko zure eskulturaren bat eskura dezadan? Edo zer iradokitzen duzu?...

... Maitasunez, zuretzat eta Sheilarentzat, eta eskumuinak bientzat, Boben partez

Helen

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1972ko apirilak 27

Tony maitea:

Eskerrik asko zure ohar atseginagatik. Azken esaldia zen onena. Zer diozu elkarrekin eskulturak sortzeko asmo horri buruz?!!!!!!!!!!

...Bientzako maitasunez,

Helen

ez dakizu zer gogo dudan dena ongi atera dadin.

Hartzailea: Helen Frankenthaler

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1977ko urtarrilak 3

Helen maitea:

... Rebeccak deitu zuen, David Smithen alabak, eta estudiora etorri ziren Candida [Smithen alaba] eta biak bazkaltzera. Oso neska sinpatikoak dira eta plazera izan zen haiek ezagutzea, bereziki David gogorarazi zidatelako, modu nolabait urrunean bada ere. Maiz gogoratzen dut ereduako eskultore gisa, eta ereduako gizaki gisa ere bai...

Apirilean ikusiko dugu elkar, han izango naiz ordurako...

Maitasunez,

Tony

Hartzailea: Anthony Caro, Londres

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1977ko urriak 3

Tony maitea:

Iritsi da unea (nirea/zurea/gurea): zergatik ez dugu data bat finkatzen nire estudiora margotzera etortzeko? Proposatu eguna, eta dena antolatuko dugu.

Maitasunez,

Helen

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1981eko otsailak 3

Tony maitea:

... Buru-belarri murgilduta nabil zenbait proiektutan. Haietako bat, John Elderfield prestatzen ari den liburua²: zeregin kolosala, akigarria eta zirraragarria, aldi berean. Pertsona aparta da John, adimen, umore eta nortasun zoragarrikoa. Goitik beherako gizona. Bagoaz aurrera, epeak betez pixkanaka eta koloretako irudiak aukeratuz (zaude, zure luxuzko liburu ilustraturako. Ouy). Etxez aldatzea pentsatzen ari naiz: etxea eta estudioa batera jartzea beste tokiren batean, gaur egun bizi naizen tokitik ez urrun, auzo berean. Nolabait esateko, orain, Connecticuteko landetxearekin, gehiegi da 3 leku kudeatu behar izatea (osasunaren eta lanaren bidean oztopo diren jabetzez gabetu nahi dut!).

... Eta maitasunez, beti, bientzat,

Helen.

Hartzailea: Anthony Caro, Londres

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1982ko apirilak 6

Tony maitea:

Ez dakit zertan gelditu zen gure "maiatzeko hitzordua". Oraindik nire estudiora lanera etortzeko asmotan zabilta? Maiatzerako planen artean bidaia labur bat dut Houstonera maiatzaren 1ean, bestea beste; maiatzaren 4rako itzuliko naiz New Yorkera. Eta honoris causa doktore izendatuko naute...maiatzaren 22ko asteburuan.

... Zatoz!

Maitasun handiz,

Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1982ko apirilak 14

Helen maitea:

Hunkituta eta pozik nago zure gutuna jaso izanarekin. Zaude ziur joango naizela: zuk eskuz idatzitako "zatoz" horrek aditzera ematen dit serio ari zarela. Urduri nago pintura eta mihisea direla-eta, eta

orientazioa beharko dut, baina hitza ematen dizut ez dizudala denbora eta espazio asko lapurtuko; jar nazazu, beraz, traba egingo ez dizudan txoko batean. Eskuzabala zara, eta ausarta: mila esker, hasi aurretik! Datak: has ninteke maiatzaren 17an, maiatzak 30 ingurura arte? Badakit Brandeisko zure doktoregoa [honoris causa] tartean izango dela, baina gustura joango nintzateke zuri animoak eta babes morala ematera.

... Maitasun handiz, nire partez eta Sheilaren partez...

Beti bezala,

Tony

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1982ko ekainak 26

Helen maitea:

Atzo, festa batean, norbaiti azaltzen aritu nion zein zoragarria izan zaren zure estudioan niri tarte bat eginez eta ni ongi baino hobeto tratatuz. Inoiz esan al dizut zenbat eskertzen dizudan hitzez hitz? Badakit esan izan dudala zein ongi pasatu dudan eta zein dibertigarria izan den han lan egitea eta pintatzen saiatzea, baina zure eskuzabaltasunak, laguntzak eta presentziak esperientzia ahaztezina bihurtu dute niretzat, benetan.

Hemen dituzu Brandeisko egun euritsuko argazki batzuk. Une batez, zure falta sumatu nuen Carl Belzen sorbaldaren atzean!...Aldiz, polita da gure bi buruen argazkia: honen bikia gordeko dut. Gogorazten dit...garai zoriontsu bat.

Maitasunez, beti bezala,

Tony

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut, eta Washington D.C.

1982ko urriak 20 eta azaroak 5

Tony maitea:

Eskerrik asko Caroren liburu berri ederrarengatik². Hemen daukat [Stamforden], hemen igaro baitut hilabetearen parte handiena, udazkenaz eta landako bizitzaz gozatzen itsasertzean. Arrazoiren bat dela medio, aurren ez nuen nire burua New Yorkera hain goiz joateko gai ikusten; gero eta gehiago gozatzen dut toki honetan, eta gogaikarria iruditzen zait hiria.

... Az. 5. National Gallery: Smith mintegia. Tony maitea: Hemen jarraituko dut! Eskerrak Jainkoari hemen zauden. Jota nago areto honetan, zeina baitago pontifikatu besterik egiten ez duten artearen historialari gatzgabe eta kritikari txepelez betea, oro har. Hitzik gabe nago, lit. [literalki], ez bada zuzenean deprimituta. Davidek gauza guztietarako zeukan gose eta jakin-min zoragarriaz ari direnean: gose hura haren bakardadea bezain aseezina zen. Eta lan egin beharra zeukan. Hemen ere proiektatzen dute aurrez asko pentsatzen zuelako txorakeria hori: ideiei tira besterik ez zien egiten. Eta gidari hartu zuen orobat eskultura, garatzen zen heinean bere parean + bere ametsetan. Ez zen oinarriei edo buruei buruzko plan bat, baizik figurazio jakin bat, behar zuena oinarri jakin hori hantxe, une hartan, testuinguru batean. Ezingo dute sekula edertasunaren gertaera kudeatu. Jainko maitea! Zenbateraino itsutzen dien handitasunak gogamena...

Edonola ere, urriaren 20ko gutuna aurrez aurre amaituko dut...Minutu bat altxatzen bazara, irten gaitezen orain, oihuka hasi aurretik, eta har dezagun kafe bat...

Maitasunez, Helen.

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

1983ko urtarrilak 15

Tony eta Sheila bihotzekoak:

... Cort Productionsek Davidi buruz egindako filmaren aurrerapen bat ikusi dut: Clem [Greenberg], Ken [Noland], Bob M. eta neure pasarteak. Denak zirudien hain benetakoa eta bizia. Hitz egiten dugu zeinek bere erara eta izendatzaile komun argi batek lotuta: David. Oso hunkigarria, ona: ezer berririk ez, baina “ohegaineko” garbi eta fresko bat bezalakoa izan da.

Gure “arte abstraktuak” duela zenbait hamarkadako —berrogeiko eta berrogeita hamarreko— zorioneko klandestinitatera itzulia dirudi...Aski da museo batean barrena ibiltzea, jakiteko azkenean dena bere tokian kokatzen dela, eta horrela sentitu naiz lehen egunetik: egin zure lana, jarraitu...

... Nire maitasun guztiaz,

Helen

Hartzailea: Anthony Caro, Londres

Igorlea: Helen Frankenthaler, Kyoto, Japonia

1983ko apirilak 20

Sheila eta Tony bihotzekoak:

Gogoeta asko eskultura “basati” edo/eta “kontenplaziozkoari” buruz, eta irudien eta formen errepikapenaren ideari buruz (sentitzen dut prest nagoela berriro eskulturari heltzeko). Tira, erabateko

arrakasta izan da bidaia, baina lana, xilografia bat egitea, oso zaila da egoera honetan. Gaur, lehen aldiz, baliteke oraindik etorkizun den emaitza baten gaineko argi pixka bat ikustea agian...

Maitasun asko, eta jarraitu ongi! Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1986ko abenduak 26

Helen maitea:

... Pozten naiz David Smithen txartela gustatu izana. Berririo joan nintzen erakusketara Gabon bezperetan, David Sylvesterrekin. Galeria itxita zegoen, eta parada izan genuen obrei lasaitasunez behatzeko: pieza zoragarriak, nahiz eta ez den Smithi buruz antola zitekeen erakusketarik onena, haren obra osoa aukeran edukita. Edonola ere, zoragarria, eta hemen, behintzat, eskertzen da. Publiko ugari, artista gazteak eta ikasleak gehienbat; egunean 1.000 inguru, asteburuetan. 20 urte behar izan dira (eta, akaso, [Henry] Mooreren heriotza) hemen ikus genezan behar bezala...

... Adeitasunez,

Tony

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Tarudant, Maroko

1988ko azaroak 20

... Astebeteko oporraldiaren behar bizia sentituta, Marokora hegazkina hartu, eta igerilekuaren aldameneko etzaulki batean ari natzaizu hau idazten...

... Gure buruari galdetzen diogu nola ote doakizun bizimodua; guri dagokigunez, gutxi aldatu dira gauzak. Biak, zu eta biok, hain gabilta gure artearekin eta karrerarekin lanpetuta... Baina gero eta tentatuago nago egin nahi ez dudan hori alde batera uzteko. Sinestezina da nola hitz egiten edo idazten den beti azken urteetan Picassori buruz Jacquelinek (munstroak!) lagunengandik urrundu izan balu bezala. Hitz egiten eta idazten duten horiek haren "lagunak" dira, jakina, eta harengana iritsi ezinik ibili ziren! Izan ere, Picassok denbora behar zuen bere artearentzat eta bere buruarentzat, eta isiltasun apur bat ere bai. Gure heziketak eta nortasunak, ordea, gure kontra dihardu, eta eskultoreak arkitektoak bezalakoak dira apur bat, obra handiei dagokienez, mezenasak eta horrelakoak behar dituzte... Azkenean, hara eta hona balantzaka ibili, eta gure bizitzak nahiko ongi antolatzen dira...

... Helen maitea, besarkada bat bion partez.

Beti zurea, adeitasunez,

Tony

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut

Igorlea: Anthony Caro, Saint John, Antigua

1992ko urtarrilak 2

Helen maitea:

... Antiguatik idazten dizut gutun hau, badia perfektu batean bakartutako turismo gune batean, zeinetan igarotzen ari baikara 4 edo 5 egun, Londresera itzuli aurretik...

Udazken nahasi samarra izan da; izan ere, lan handiko urtea izan da niretzat. Gaingitu dut duela urte eta erdiko nire gaixotasuna, eta ohitu naiz botiketara. Indartsu sentitzen naiz, garai zaharretan bezainbeste ia; baina zaindu egiten naiz eta atsedean gehiago hartzen dut, ariketa fisikoa egiten dut, eta neurritz jaten, zuhurtziaz... badakizkizu jende aspergarriak bere gaixotasunei buruz kontatzen dituen gauzak! Baina, aurten, estudioa fabrika bihurtu zen aldi batez, langile eta guzti, 17, eskultore eta soldatzaile gazte, urritik urtarrilera bitarteko erakusketarako egin nuen Tateko Oktogono Zentralerako dorrean lanean. Arkitekto baten modura sentitu nintzen, urrun eta han egon gabe baina saltsaren erdian, nolabait...

... Beti bihotzez,

Tony

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, Stamford, Connecticut

1992ko martxoak 3

Tony maitea:

Hanka gora jasota eta bendatuta nagoelarik, aukera daukat pixka bat lasaitzeko eta idazteko (zoritarrez, orkatilako zaintiratu bat daukat, baina ari naiz sendatzen).

Nondik hasi? Zenbat aldaketa eta zenbat jarraitutasun gure bizitzetan! Baina gure bizitzako une honetan — mendealdeko munduko berrogeita hamarreko hamarkada ezagututa —, zailtasunak dakartza hutsaltasunaren inaktuak, ez? Eta hainbeste gauza baztertzen dira! Gauza bat da konpromisoa eta aurrerabidearekiko egokitzapena, eta, bestea, balio eta ohituren oinarritzko sistema baten aldaketa eta sakrifizioa. Gainera, logikoa denez, adinaren poderioz lehen baino bakartiagoak gara artistak, baina gaur egun zaila da elkarriketa esanguratsurik izatea adinkideekin (adiskidetasunari nahiz estetikari dagokienez), eta ez dago ia elkarriketarik hurrengo belaunaldiarekin, erronka dakarkizunik ez, behintzat! Beharbada, horregatik daukat “oin” bat irakaskuntzan, tarteka, eta ematen dut urtean behin edo bitan hitzaldi bat publiko on baten aurrean, nire obra erakutsiz. Eta fama, dirua, boterea kudeatzea?! Utikan! Energia ongi

baliatu beharra dauest. Bola handi-handi bihurtu, malabarrak egiteko. Jainkoari eskerrak, umoreak eta ironiak babestu egiten gaituzte ahulduko gintuzkeen nostalgia gehiegizko batez (eta mantentzen gaituzte “gazte”!).

... Maitasun handiz.

Adorea, indarra, “ez galdu fedea!”, esan ohi den bezala (zaindu beharra dago “dibertsioa” ere, edozein moldetan, ezta?). “Gu guztiongatik!”

Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, New York

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1992ko abenduak 3

Helen maitea:

Oso pozik egongo gara laukotea osatzeaz. Entzun nuen bazenuela “jaun zoragarri bat”, eta irrikaz nago hura ezagutzeko [Stephen DuBrul]. 20:00etan elkartuko gara 15ean, Four Seasons jatetxean.

... Maitasunez,

Musu asko, Tony eta Sheila

Hartzailea: Anthony Caro, Londres

Igorlea: Helen Frankenthaler, Darien, Connecticut

1998ko azaroak 23

Tony maitea:

Azkenean, duela egun batzuk joan gara [Frankenthaler eta DuBrul] 94. Kaletik, eta, New Yorken gaudenean, Carlyle Hotelean hartzen dugu ostatu: 212-744-1600...

... Maitasunez!

Helen

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Darien, Connecticut

Igorlea: Anthony Caro, Londres

1998ko azaroak 24

Helen maitea:

Mila esker albistea emateko idatzi izanagatik. Zirraratu egiten naiz etxetz aldatzeak zer dakarren pentsatze hutsaz, zuk 54. [sic] Klean adina denbora baitaramagu ia Frogialen. Gogoan dut zein afari zoragarria eman zenuten Bobek eta biek 1959an, New York lehenengoz bistatu nuenean.

... Maitasunez, bion partez,

Tony

Hartzailea: Anthony Caro

Igorlea: Helen Frankenthaler, New York

2000ko ekainak 18⁴

Tony maitea:

... Eskerrak, bihotzez, London Sunday Observer aldizkariko zure elkarrizketa eskuzabalagatik⁵. Zoragarria. "Pentsan atera berritan" ikusi nuen. Zure hitzak oso hunkigarriak izan ziren, seguru nago badakizula zein garrantzizkoak diren niretzat. Esango nuke adinean aurrera egin ahala orduan gehiago estimatzen dugula adiskidetasunaren iraunkortasuna, oraina nostalgiarekin partekatzeko dohain zorionekoa...

... Irakaskuntzara itzuli nahi nuke pixka bat. Maiz, hor kanpoan nagusi den giro arraro —eta ez bereziki atsegingarri— horrek eragotzen dit azkenaldian, a ze alde beste garai batzuekin, zeinetan eztabaida egin, arriskuak hartu eta, hala ere, hiztegi estetiko beraren izendatzaile komuna senti baikenezakeen. Hiztegi hori hain gertatzen zait arrotza gaur egun... Oraingo obra ospetsu askok ez dute kalitaterik, ez dute eragiten harrimenik ere: okerreko asalduramota bat da, boterearekin, politikarekin, diruarekin, modarekin, gizarte-bizitzarekin nahastua. Eta batek bere buruari galdetzen dio: ez ote da beti horrela izan? Ez hainbestearino.

... Bientzako maitasunez. Musu asko,

Helen...

Hartzailea: Helen Frankenthaler, Darien, Connecticut

Igorlea: Anthony Caro, Saint George, Granada

2003ko urtarrilak 26

Helen maitea:

... 1981az geroztik hartutako oharra ordenatzen ahalegintzen aritu naiz, eta une egokia dirudi horretarako. Seguru nago zuk ere gauza bera egingo zenuela noizean behin. Etorri ahala idazten joan naiz pentsamenduak, sentimenduak, ideiak eta erreakzioak, eta Tate Publications argitaletxeak koaderno txiki

bat argitaratu nahi du nire erakusketa egiten denean. Kontua da, une honetan, oharrek eta gogoetek ez dutela loturarik eta, are gehiago, desfasatuta daudela iruditzen zait: dagoeneko desagertuak diren haize-erroten kontra oldartzen dira, maiz. Clemek beti adierazi ohi zuen zein galkorrak (edo iragankorrak?) diren epe laburreko gure kezkek baina epe luzerako direla benetako gauzak... Zenbat aldatu diren gauzak Clem hil zenetik. Bakar-bakarrik sortu zuen zentzuzko uharte bat bere inguruko artean: isolatu gintuen esparru komertzialetik eta lorpen errazetatik, zeinak, harrezkero, bihurtu baitira jaun eta jabe. Seguru asko, beti hor egongo ziren, baina Clemek, eta geuk, kalitateari jarritako arretak ezkutatu egin zituzten denbora batez... Maitasunez, bien partez. Musu asko,

Tony

[Itzulpena: Rosetta testu zerbitzuak]

Oharrak

Besterik adierazi ezean, Carok Frankenthalerri idatzitako gutunen pasarteak Helen Frankenthaler Papers bildumaren eskaintza dira (Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York), eta Frankenthalerrek Carori idatzitakoenak, The Anthony Caro Centreren eskaintza (Londres).

1. *Beltxargen aintzira I* (*Swan Lake I*, 1961) koadroa *Swan Lake #2* bezala ageri da *Artforum* 7 aldizkariaren 8. zenbakian (1969ko apirila).
2. John Elderfield. *Frankenthaler*. Harry N. Abrams, New York, 1989.
3. Diane Waldman. *Anthony Caro*. Abbeville Press, New York, 1982.
4. Gutun fotokopiatua. Eskaintza: Helen Frankenthaler Papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
5. Anthony Caro, "True Colors", Hilly Jamesek egindako elkarrizketa, *The Observer*, 2000ko ekainak 3.

KRONOLOGIA HAUTATUA

1928–45

Helen Frankenthaler 1928ko abenduaren 12an jaio zen; Martha Lowenstein eta New Yorkeko Estatuko Auzitegi Goreneko epaile Alfred Frankenthalerren hiru alabetan gazteena zen. New Yorken bizi izan zen familiarekin, Upper East Siden, eta txikitatik izan zuen museoetarako eta kulturarako sarbidea. 1940ko urtarrilean hil zitzaion aita, berak hamaika urte zituela. 1945ean, Frankenthaler Dalton Schoolen graduatu zen, non pintura ikasi baitzuen Rufino Tamayorekin.

1946–49

Frankenthaler Vermonteko Bennington College ikastegian sartu zen, eta Paul Feeley izan zuen, han, arte plastikoen irakasle. 1948ko udan, Gaby Rodgers antzezle eta lagunarekin batera, bidaia egin zuen Europara, lehen aldiz: Londres, Amsterdam, Brusela, Geneva eta Paris ezagutu zituen ordukoan. 1949. urtearen hasierarako, Frankenthalerrek estudio bat zuen Ekialdeko 21. kaleko 232. zenbakian, Sonya Rudikoff idazlearekin, zeina baitzuen Benningtongo lagun mina. 1949ko uztailean lizentzia eskuratu, eta New Yorkera itzuli zen.

1950

Apartamentu bat hartu zuen Rodgersekin Mendebaldeko 24. Kaleko 470. zenbakian, baina alokatuta zeukan, artean, Ekialdeko 21. kaleko estudioa. 1950eko udaberrian, Clement Greenberg arte-kritikariaren bikotekide egin zen —bost urtez egon ziren elkarrekin—, eta, haren bidez, New Yorkeko Eskolako adin handiagoko beste artista batzuk ezagutu zituen; esate baterako, Elaine eta Willem de Kooning, Lee Krasner, Barnett Newman, Jackson Pollock eta David Smith. Era berean, Frankenthalerrek harremanetan jarri zituen Greenberg eta Feeley, zeinek izan baitzuten kuradoretza-lankidetzaz luzea Bennington Collegen eta zeinari esker antolatu baitziren Morris Louis, Newman, Kenneth Noland, Pollock eta Smith artisten bakarkako erakusketak, beste batzuenaz gainera. Udan, Frankenthalerrek hiru aste igaro zituen Hans Hofmannen margolaritza-eskolan ikasten, Provincetownen, Massachusettsen. Abenduan, Kootz Galleryko Fifteen Unknowns talde-erakusketarako hautatu zuen Adolph Gottliebek. Urte haren amaieran, Pollocken Betty Parsons Galleryko erakusketa bisitatu zuen Frankenthalerrek, eta, aurrerago gogoratu zuenez, harriturik gelditu zen: “Izan zen bat-batean atzerriko herrialde batean lur hartzea bezala: atzerriko herrialde batean, zeinetako hizkuntza ez bainekien, oraindik, hari buruz nahikoa irakurria nintzen arren eta pasio eta interes bizia eragiten zidan arren eta han bizitzeko irrikaz nongoen arren. Herrialde hartan bizi nahi nuen, han bizi behar nuen, eta bertako hizkuntza menderatu”¹.

1951

Maiatzean, David Hare margolariak Ekialdeko 10. Kalean zeukan estudioa berralokatu zuen Frankenthalerrek. Hilabete hartan bertan, 9th Street Exhibition of Paintings and Sculpture erakusketan parte hartu zuten hirurogei artista baino gehiagok, tartean zirela Frankenthaler bera (taldeko gazteena), Willem eta Elaine de Kooning, Friedel Dzubas, Hofmann, Franz Kline, Krasner, Robert Motherwell eta Pollock. Smithen Bolton Landingen, New Yorken, zeuzkan etxea eta estudioa bisitatzen hasi zen Frankenthaler, eta lehen eskultura erosi zion: [*Arrano-zaintzailearen erretratua*](#) (*Portrait of the Eagle's Keeper*, 1948–49). Azaroan, lehen monografikoa egin zuen Tibor de Nagy Galleryn. Galeria haren bidez,

adiskidetasunharremanak hasi zituen zenbait artista eta poetarekin, hala nola Grace Hartigan, Alfred Leslie, Frank O'Hara eta Larry Riversekin. 1951. urtearen amaieran, Frankenthalerrek Pollocken zuri-beltzeko pinturen erakusketa bisitatu zuen Betty Parsons Galleryn. Data berean, The Club elkarteko kide egin zen; Philip Paviak sortu zuen The Club, 1948an, eta abangoardiako artisten topagunea zen.

1952

Urte hasieran, bere jabetzako apartamentu batera aldatu zen Frankenthaler, Mendebaldeko 23. kaleko 465. zenbakira. Udazken hartan bertan, estudioz aldatu zen; Mendebaldeko 23. kaleko 134. zenbakian hartu zuen estudio berria, zeina partekatu baitzuen Dzubasekin. Urrian, Greenbergekin Eskozia Berrira egindako udako bidaietan inspiraturik, *Mendiak eta itsasoa* (*Mountains and Sea*, 1952) margotu zuen Frankenthalerrek, teknika berezi bat erabiliz, estudioko zoruan zabaldutako mihise bat pinturaz blaitzean eta orbantzean oinarritua. Azaroan, Bolton Landingera joan ziren Frankenthaler, Greenberg, Krasner eta Pollock, Smith bisitatzera, Bennington Collegega bidean zihoazela, Pollocken lehen atzerabegirakora, Feeley eta Greenbergekin antolatua.

1953

Urtarrilean, Frankenthalerrek Tibor de Nagy Galleryko bakarkako bigarren erakusketa inauguratu zuen; han aurkeztu zituen *Mendiak eta itsasoa*, *Eszena, biluziarekin* (*Scene With Nude*, 1952) eta beste hamaika obra. 1953ko apirilean, Greenbergekin Morris Louis eta Kenneth Noland margolariei erakutsi zien *Mendiak eta itsasoa* —Washington D.C.n bizi ziren—, eta, harrezkero, blaitzeko eta orbantzeko teknika erabiltzen hasi ziren haiek ere. Uda hartan, Frankenthaler bakarrik ibili zen Espainian eta Frantzia hegoaldean bidaiari, eta hainbat museo ezagutu zituen; horien artean, Prado, baita Altamirako haitzulo paleolitikoak ere. Hau idatzi zion Dzubasi: “Prado museoaz aparte, [Altamira] izan da orain arteko onena [...]. Gogoa dituzu harea + igeltsua erabiliz egin nituen lehen koadroak? Bada, uste dut horregatik eman zidala hango sabaia halako arreta. Denak horma-irudi baten modura funtzionatzen duela dirudi, eta hezetasunak —urak + iluntasunak— marrazkiei argi gehigarri bat emango balie bezala da”².

1954

Louis eta Noland New Yorkera joan zirelarik Greenbergekin elkartzera, orobat egon ziren Frankenthalerrekin, zeinak aldatu berri baitzituen apartamentua eta estudioa West End Avenueren eta 94. Kalearen arteko kantoiko 697. zenbakira, Behe Manhattaneko eszena artistikotik urrunago. Apirilean, ama hil zitzaion. Udan, Frankenthaler eta Greenberg Espainian eta Italian ibili ziren, eta Paris eta Londres bisitatu zituzten. Ia bi hilabete eman zituzten Italian, lagunekin, arteaz gozatuz Erroman, Napolin, Florentzian, Venezian eta Milanen eta muinoz muino autoan bidaiatuz hiri batetik bestera iristeko. Venezian, Peggy Guggenheimekin elkartu ziren, eta XXVII. Bienalean egon ziren, zeinetan parte hartu baitzuen Smithen AEBren ordezkari, beste bi eskultoreekin batera.

1955–56

1955eko udaberrian, eten egin zen Frankenthaler eta Greenbergen arteko harreman sentimentala. Abuztuan, Conrad Marca-Relli margolariak Springsen, Long Islanden, zituen etxea eta estudioa alokatu zituen Frankenthalerrek, eta, margotzen ez ezik, udaldia inguru hartan igarotzen zuten beste artista batzuekin harremanak egiten jardun zuen. Urrian, Carnegie Instituteko urte hartako Pittsburgh International Exhibition of Contemporary Painting erakusketan parte hartu zuen; museoak *Fatxada* (*The Façade*, 1954) koadroa erosi zion; lehen aldia zen museo batek haren obra bat erosten zuena. 1956ko apirilean, Museum of Modern Art museoak *Troiako ateak* (*Trojan Gates*, 1955) erosi zion (obra bat erosi

zion New Yorkeko lehen museoa izan zen). 1956ko udan, Frankenthalerrek Europara bidaiatu zuen, bakarrik: Austria, Frantzia, Alemania eta Herbehereak bisitatu zituen, hango arteaz gozatzeaz gainera. Tarte labur bat egin zuen Frantzia hegoaldean, Krasnerrekin, hura AEBra itzuli baino lehen, elkarrekin zirela jakinarazi baitzioten Pollock auto-istripuz hil zela. Udazkenean, Frankenthaler, Marjorie Iseman ahizpa eta haren familia, bisitan joan zitzaizkion Smithi Bolton Landingera.

1957

Urte hasieran, Frankenthalerrek bakarkako erakusketa egin zuen Tibor de Nagy Gallery aretoan eta, udaberrian, New Yorkeko hiru museotan artista gazteei eskainitako talde-erakusketetan parte hartu zuen: Museum of Modern Art, Jewish Museum eta Whitney Museum of American Art museotakoetan, hain zuzen. Erakusketa haiek ospe handia eman zioten, zabalkunde handiko aldizkarien bidez, hala nola Time eta Liferen bidez. Burt Glinnek argazia atera zion estudioan margotzen ari zela, baita Smith, O'Hara, Rivers eta Hartiganekin Five Spoten zegoela ere, Esquire aldizkarian argitaratutako "Upper and Lower Bohemia" erreportajerako. Whitney museoak *Eremu urdina* (*Blue Territory*, 1955) erakutsi eta erosi zuen. Irailean, Frankenthalerrek koktel bat antolatu zuen Smithen omenez, Museum of Modern Art hari buruz antolatutako erakusketa ospatzeko. Abenduan, Frankenthaler eta Motherwellek lehen hitzordua izan zuten Leo Castelli Galleryn, non Frankenthaler ari baitzen talde-erakusketa batean parte hartzen.

1958

Urtarrilean, Frankenthalerrek Tibor de Nagy Galleryko azken erakusketa egin zuen. Motherwellen etxera aldatu zen, Ekialdeko 94. kaleko 173. zenbakira. Bikotea apirilaren 6an ezkondu zen. Eztei-opari gisa, urrezko eratzun eskultoriko bat oparitu zion Smithen, okasiorako propio sortua, eta zera idatzi zion gutun batean: "Bi margolari handi, ez zen sekula halakorik gertatu, hobe izango da bietako batek eskulturari heltzea"³. Uda hartan egin zuen bikoteak eztei-bidaia, Espainian eta Frantzian barrena. Donibane Lohizunen, etxe bat alokatu, eta han antolatu zituzten beren pintura-estudioak; handik, Lascaux eta Altamirara bidaiatu zuten. Udazkenean, Frankenthalerrek estudioa alokatu zuen Hirugarren Etorbideko 1682. zenbakian, etxebizitza zuen tokitik etxe-sail batera.

1959

Frankenthaler Andre Emmerich Gallery aretoan erakusketak egiten hasi zen; hantxe jarraitu zuen bere obra erakusten (ia urtero) hurrengo hogeita hamabi urteetan. Beste sortzaile batzuk ere sartu ziren Emmerichen artista-taldean, hala nola Dzubas, Louis eta Noland pintoreak eta Anthony Caro eta Anne Truitt eskultoreak. Frankenthaler eta Motherwellek udako etxe bat alokatu zuten Falmouthen, Massachusettsen. Smith eta Mark Rothko bisitan joan zitzaizkien. HCE Galleryn, handik hurbil, Provincetown hirian, Frankenthaler eta Motherwellek marrazki eta collageen erakusketa bat egin zuten elkarrekin. Carok AEBra bidaia egin zuen, lehen aldiz, eta New Yorken zela, Frankenthaler eta Motherwell ezagutu zituen; bikoteak festa bat antolatu zuen Caroren omenez. Carok festa hartan ezagutu zuen, hain zuzen, Smith, eta, ondoren, hura bisitatzera joan zen Bolton Landingera. Frankenthaler nazioarteko hiru erakusketatarako aukeratu zuten: Kasseleko Documenta II, Alemanian, Hartigan, Motherwell, Rothko, Smith eta abarrekin batera; Sao Pauloko Bienala; eta Parisko Bienalaren lehen edizioa, zeinetan Frankenthalerrek irabazi baitzuen pinturako lehen saria eta parte hartu baitzuen Carok ere.

1960

Frankenthalerrek pinturen lehen atzerabegirakoa egin zuen Jewish Museumen (O'Hara izan zen komisarioa). Uda hasieran, Frankenthaler eta Motherwellek denboraldi bat igaro zuten Provincetownen,

Massachusettsen, Cape Cod lurmuturrean; han igaro zituzten 1960ko hamarkadako uda gehienak. (Frankenthalerrek zenbait tailer izan zituen urte haietan Provincetownen, adibidez Days Lumberyard eta Sea Barn, badia ertzeko beren etxea.) Udaren erdialdera, Parisera joan zen bikotea, eta, gero, Alassiora, Italiara, non antolatu baitzituzten beren estudioak zazpi hilabetez alokatuta edukitako etxe batean; txangoa egin zuten, halaber, Frantziako Kosta Urdinera. Hau idatzi zion Frankenthalerrek Hartigani: “Hemen [Alassion], pozik gaude, eta ongi instalatuta; gure estudioak antolatu ditugu eta lanari ekin diogu (ez gutxi kostatuta). Etxe handia dugu, eta lorategi bat, Mediterraneora begira, non jaten baitugu pasta egunero”⁴.

1961

Frankenthalerrek Hirugarren Etorbidearen eta Ekialdeko 83. kalearen arteko kantoian kokatu zuen bere estudioa, etxetik hurbil. Hartigan eta Riversek akuilatuta, grabatuak egiten hasi zen Tatyana Grosman’s Universal Limited Art Editions (ULAE) estudioarentzat (West Islip, Long Island). Urrian, Frankenthaler eta Motherwellek Europara bidaiatu zuten, Frankenthalerrek bakarkako lehen erakusketa egin baitzuen Parisen, Galerie Lawrencen. Handik Londresera jo zuten, Caro bisitatzera, eta Bryan Robertson ezagutu zuten, Whitechapel Galleryren zuzendaria. Smithek Frankenthaler eta Motherwellekin igaro zituen Gabonak New Yorken.

1962

Martxoan, Frankenthalerrek Italiako bakarkako lehen erakusketa egin zuen Milango Galleria dell’Arieten. Maiatzean, Frankenthalerren hamalau koadrok osatutako atzera begirako erakusketa txiki bat inauguratu zen Bennington Collegen, E. C. Goossen komisarioaren eskutik. Artista pintura akrilikoarekin esperimentatzen hasi zen; 1964rako, akrilikoa besterik ez zuen erabiltzen ia. Irailean, Louis hil zen, Washington D.C.n. Urrian, Frankenthalerrek Truitt ezagutu zuen.

1963

Otsailean, Frankenthaler Truitten bakarkako lehen erakusketara joan zen Andre Emmerich Galleryra; handik gutxira, hainbat hamarkada hartu zituen gutun-truke oparo bat hasi zuten bien artean. Udazkenean, Frankenthaler eta Motherwell Parisera joan ziren, artistak bigarren monografikoa zuela-eta Galerie Lawrencen, eta handik, Venezia, Milan eta Londresera.

1964

Greenbergekin komisariatutako Post-Painterly Abstraction talde-erakusketan parte hartu zuen Frankenthalerrek beste 30 artistarekin batera (horien artean Dzubas, Feeley, Alexander Liberman, Louis, Noland, Olitski eta Frank Stella); apirilean egin zen erakusketa, Los Angeles County Museum of Art-en, eta Minneapolis eta Torontora eraman zuten handik. Maiatzean, Frankenthaler eta Motherwell Londresera joan ziren, artistak Kasmin Limited galerian zuen erakusketaren inauguraziora. Bidaia hura aprobetxatuz, St. Ives eta Stonehenge bisitatu zituzten; eta Nizara joan ziren hegazkinez, non Libermanek harrera egin baitzien Sainte-Maximeko etxean. Bidaiaren aurretik, hau idatzi zion Frankenthalerrek Rudikoffi: “Azken hilabeteetan, aldaketa izan da nire margolanetan ere [...]. Koadro asko sortu ditut tamaina handikoak, forma soil eta kolore bizikoak (pintura plastikoa). Alaiak dira, biziak eta argitsuak, baina, berez, intentsitate handikoak dira, eta, beharbada, ez hain alaiak [...]. Batzuk karratuaren eta markoaren ideia horretara itzultzen dira [...] Irrikaz nago ildo zeharo berri hori lantzen jarraitzeko. Oraindik ez denez irudi moduko bat besterik, arreta gutxiago jartzen diet soslaiei eta marrazketari, eta gehiago gauza edo kolore bat bestearen alboan ‘jartzeari’”⁵.

1965

Henry Geldzahler kritikari eta komisarioak elkarrizketa bat egin zion Frankenthalerri (Artforum aldizkariaren 1965eko urriko alean argitaratu zuten). Maiatzean, Frankenthaler, Motherwell eta beste artista batzuek asteburu bat igaro zuten Smithekin Bolton Landingen. Hurrengo asteburuan, Smithen kamioia landako bide batean errepidetik atera, eta zanga batera jausi zen, Nolandek Vermonten zuen etxaldetik hurbil. Albany Medical Center erietxera iristerako hil zen Smith. Hurrengo hilabetean, hau idatzi zion Frankenthalerrek Dore Ashton arte-kritikari eta lagunari: “Gogoan dugu etengabe, eta ohartzen gara zenbat estimatzen genuen harekin hainbeste ideia eta gertaera partekatzea. Oso presente zegoen —gure espazioaren eta denboraren parte handi bat betetzen zuen bere izaera aberats eskuzabalarekin—, gure etxea betetzen zuten haren bizitasunak, pazientziak eta umoreak [...]. Alderdi askotan, sekula ez gara oneratuko hura galdu izanaren kolpetik. Izugarri sumatzen dugu haren falta”⁶. Uda igarotzera Provincetownera itzuli ordez, Frankenthaler eta Motherwell Europara joan ziren, bi asteoko oporraldia egitera, Smithen bi alabekin; Paris, Venezia, Grezia eta Londres bisitatu zituzten.

1966

Ekainean, Frankenthaler eta Motherwell Veneziara joan ziren hango XXXIII. Bienalera, zeinetan parte hartu baitzue AEBren pabiloian Frankenthalerrek, Ellsworth Kelly, Roy Lichtenstein eta Jules Olitskirekin batera. Caro, bestalde, Britainia Handiaren pabiloiko bost artista ordezkarietako bat izan zen. Uda hartan bertan, Feeley hil zen, leuzemiaren ondorioz, eta O'Hara, lur orotako ibilgailu batek jota, Fire Islanden (Long Island).

1967–68

Frankenthalerrek sekula sortutako formatu handieneko obra, *Gorri gidaria* (*Guiding Red*, 914 × 488 cm), Montrealeko Expo 67 erakusketan erakusgai jarri zen, Estatu Batuen pabiloian. 1967ko udan Provincetownen zen bitartean, Frankenthalerrek estudio bat alokatu zuen basoan, kostaldetik hurbil, hirian aurrez izandako lantokiek baino bakardade handiagoa eskaintzen ziona. Beste bi udaz erabili zuen tailer hura. Motherwellekin Bennington Collegera joan zen, autoz, udako ikastaro bat eman behar baitzuen hark. Han, Nolandekin elkartu ziren. Hurrengo udan, Provincetownen, Barbara Rose arte-kritikari eta historialariak elkarrizketa egin zion Frankenthalerri, Archives of American Art Oral History zentrorako.

1969

Frankenthalerren margolanen atzerabegirako garrantzitsu bat, Goossenek komisariatua, inauguratu zen otsailean Whitney Museum of American Art-en. Maiatzean, Londresko Whitechapel Galleryra eraman zuten erakusketa; abuztuan, Hanoverko Orangerie Herrenhausenera; eta, urrian, Berlingo Kongresshallera. Udazkenean, Metropolitan Museum of Art-en antolatutako New York Painting and Sculpture: 1940–1970 erakusketarako aukeratu zuten Frankenthaler; Geldzahlerrek komisariatutako erakusketa hartako emakume bakarra zen, eta New Yorkeko beste 42 artistarekin batera erakutsi zuen bere obra, tartean zirela Louis, Motherwell, Newman, Noland, Pollock eta Smith, besteak beste.

1970–71

Urtarrilean, Frankenthaler New Yorkeko estudio berrira aldatu zen, Ekialdeko 83. Kalera; han jardun zuen 1991ra arte. Otsailean, Rothkok bere buruaz beste egin zuen. Maiatzean, artistak hamar egun igaro zituen Marokon, turismoa egiten. 1970eko uztailean, Newman hil zen, bihotzekoak jota. 1971ko uztailean,

Frankenthaler eta Motherwell dibortziatu egin ziren, eta Frankenthaler Ekialdeko 94. Kaleko etxean gelditu zen. 1970eko ekainetik 1971ko abuztura, Frankenthalerrek hogeikoadrotik gora sortu zituen Andre Emmerich Galleryren bi egoitzetan (Goi eta Behe Manhattanen) egitekoa zen erakusketa baterako; 1971ko azaroan inauguratu zen erakusketa hura.

1972

Harry N. Abramsek Frankenthalerren lanari buruzko lehen monografia argitaratu zuen, Rosek idatzia. Uztailean, Frankenthalerrek Italian igaro zituen oporrak, Ischian, Rose, Liberman eta haren emazte Tatianarekin; gero, Londresera joan zen, eta altzairuzko hamar eskultura egiten zituen han bi astean, Caroren estudioan. Obra haietako batzuetarako Carok Smithen Bolton Landingeko estudioan zituen materialak erabili zituen. Hau idatzi zuen Frankenthalerrek: "Orobat nahi nuen marraztu eta landu nire eskultura, zeina baitzeturren pinturatik; desberdintasun bakarra zuen ez zegoela ez ertzik ez angelurik, ezta haiekin borrokan aritu beharrik ere, eta bai espazioari eta aireari eta pisuari buruzko ikuspegi berriak [...]. Maiz, arazo eta funtzionamendu bera dute pinturak eta eskulturak. Materialak, Charlie [Brice, tailerreko laguntzailea], Tonyren jarrera eta eskuzabaltasuna, oso presente zegoen han hori guztia, eta elkar gidatzen genuen"⁷.

1973

Apirilean, Frankenthalerrek Erromako 2RC Editrice grabatu-lantegian jardun zuen. Udan, Erromara eta Ischiara itzuli zen. New Yorkeko North Central Bronx Hospital erietxerako azulejuen horma-irudi bat diseinatzeko eta gauzatzeko eskaria jaso zuen (1974ko uztailean ezarri zuten obra). Bere lehen xilografia sortu zuen, *Ekialdea eta harago* (*East and Beyond*, 1973), ULAEn.

1974-75

1974ko ekainean, Frantziara eta Suitzara bidaia egin zuen Frankenthalerrek; Suitzan, bakarkako erakusketa bat egin zuen Zuricheko Galerie Andre Emmerich galerian. Udatik gelditzen zen denbora Shippan Pointen igaro zuen, Stamforden (Connecticut), estudio modura atonduta Long Islandeko itsasartearen parean alokatutako etxeko egongela. Frankenthalerrek Truitt gomendatu zuen New Yorkeko Saratoga Springs hirian kokatutako Yaddoko egonaldien programarako. 1975eko apirilean, Gene Barok komisariatutako Helen Frankenthaler: Paintings 1969-1974 erakusketa inauguratu zen Corcoran Gallery of Art-en, Washington D.C.n; erakusketa hura Seattlen eta Houstonen ikusgai egon zen, ondoren. Ekainean, Frankenthaler Ischiara itzuli zen oporretan. Udazken amaieran, Syracuse Universityk zeramikagileak izan ez eta buztinezko eskulturak egiten zituzten artistei begira antolatutako programa batean parte hartu zuen; Caro, Dzubas eta Olitskik ere izena eman zuten programa hartan.

1976-77

1976ko neguan, Frankenthalerrek Phoenix (Arizona) bisitatu zuen lehen aldiz. Grabatuak egiten hasi zen Kenneth Tylerrekin, Bedforeko Tyler Graphics Ltd. tailerrean (New York). Harekin lankidetzan jarraitu zuen, harik eta 2001ean tailerrak ateak itxi zituen arte. 1976ko udazkenean, Frankenthaler Washington D.C.ra joan zen Caro eta Nolandekin, Louisek erakusketa bisitatzerako. 1977ko udazkenean, Perry Miller Adato zinema-zuzendariak Frankenthaler filmatu zuen, Frankenthaler: Toward a New Climate dokumentalerako; 1978aren hasieran WNETen emititutako Adatoren Originals: Women of Art sailaren parte izan zen dokumental hura. Carori ere egin zioten dokumentalerako elkarrizketa, baina eduki hori ez zen agertu behin betiko bertsioan.

1978–79

AEBko Informazio Agentziak (USIA) antolatutako Helen Frankenthaler: A Selection of Small Scale Paintings 1949–1977 erakusketa inauguratu zen Behe Manhattaneko Andre Emmerich Galleryren egoitzan 1978ko urtarrilean; erakusketa Asian, Australian, Hego Amerikan eta Mexikon ere egon zen ikusgai, gerora. Udazkenean, Frankenthalerrek etxea erosi zuen Shippan Pointen, eta estudioa jarri zuen bertan. Museum of Modern Arteko Marrazkien kontserbatzaile John Elderfieldekin lanean hasi zen bere obrari eskainitako monografia batean.

1980–82

Helen Frankenthaler Prints: 1961–1979 atzera begirako erakusketa, Thomas Krensek komisariatua inauguratu zen 1980ko apirilean, Sterling and Francine Clark Art Institutuen (Williamstown, Massachusetts), eta handik ABeko beste hiri batzuetara eraman zuten. 1982ko maiatzean, Carok Londresen zeukan estudioan eskulturak sortzen jardun zuenetik hamar urtera, bi aste igaro zituen Carok Frankenthalerren New Yorkeko estudioan margotzen. Uda hartan, Frankenthaler artista bisitaria izan zen Carok sortutako Triangle Workshop lantegiaren inaugurazioko edizioan (Pine Plains, New York). Azaroan, Frankenthaler eta Carok David Smithi buruzko mintegi batean parte hartu zuten; Smithi buruz National Gallery of Art egindako atzerabegirakoa zela-eta antolatutako mintegia zen. Erakusketaren komisario E. A. Carmean erakusketaren komisarioak elkarriketa egin zion Frankenthalerri, Smithen gaineko dokumental baterako.

1983–85

1983ko apirilean, Frankenthalerrek hiru aste igaro zituen Kyoton, Japonian, Tadashi Toda maisu grabatzailearekin xilografia bat egiteko: Cedar Hill (1983), Crown Point Pressek estanpatua. Japonian bisitatzeko tokiei buruz Truittek egindako gomendioei jarraituz, Nara eta Tokio bisitatu zituen. 1984ko urrian, Michael Corderren Number Three balleterako dekoratuak eta jantziak diseinatu zituen; balleta 1985eko martxoan aurkeztu zuen Royal Balletek Londresko Royal Opera Housen. Hilabete lehenago, Frankenthalerren paper gaineko obren atzerabegirako bat inauguratu zen New Yorkeko Guggenheim Museoa, Karen Wilkinen komisariatua: Frankenthaler: Works on Paper 1949–1984. Estatu Batuetako beste hiri batzuetan eta Kanadan ere ikusgai egon zen erakusketa hura.

1986–88

1986ko udan, Frankenthalerrek pinturako eskola magistrala eman zuen Santa Fe Art Institutuen (Santa Fe Institute of Fine Arts izenez ezaguna garai hartan). 1987ko maiatzean, bi aste igaro zituen Bartzelonako aldirietan kokatutako La Poligrafa, S.A. tailerrean grabatuak egiten. Han zela, Carori bisita egin zion, zeina une hartan Bartzelonako Taller Trianglen lanean ari baitzen. 1988an, *Sarrera* (*Gateway*, 1982an hasia) amaitu zuen, Tyler Graphics Ltd. estudioarekin landutako bionbo-proiektu bat, 3 panelek osatua eta Tallix Foundry lantegian (Beacon, New York) galdatutako brontzezko markoa duena.

1989

Elderfielden Frankenthaler monografia argitaratu zuen Harry N. Abrams argitaletxeak. Ekainean, Helen Frankenthaler: A Paintings Retrospective erakusketa inauguratu zen New Yorkeko Museum of Modern Art museoan. Carmeanek Fort Wortheko Modern Art Museumarako (Texas) sortu zuen erakusketa, berez, eta berrogei koadro biltzen zituen, 1952 eta 1988 bitartean sortuak. Los Angeles County Museum

of Art, Detroit Institute of Arts eta, azkenik, Fort Wortheko Modern Art Museumen ere jarri zuten ikusgai.

1990–91

1990eko udan, Frankenthalerrek Triangle Workshopen parte hartu zuen, artista bisitari modura, Carorekin batera, eta Santa Fe Art Institutera itzuli zen gero, pinturari buruzko udako eskola magistral bat eta mintegi bat ematera. 1991ko apirilean, Frankenthalerrek Andre Emmerich Galleryko azken erakusketa egin zuen; hurrengo urtean, Knoedler & Company galerian hasi zen bere lanak erakusten. Uztailean, Motherwell hil zen, Provincetownen. Frankenthaler Santa Fe Art Institutera itzuli zen, hirugarren urtez jarraian, eskolak ematera, eta hau idatzi zion Truitti handik: “Magikoa da hau: iluntze zinematografiko harrigarrietatik, goi-ordokiaren ikuspegietatik eta euri-jasa wagnerarretatik haratago. Zerbait [...] disfrutatzen saiatzen ari naiz gehiegi estutu gabe, [...], aprobetxatzen erritmoa, inguratzen nauten eta hemen eskura ditudan kadentzia leun paregabeak”⁸. 1991ren amaieran, New Yorkeko bere estudioa itxi zuen Frankenthalerrek, hogeita bat urteren ondoren. Shippan Pointen kokatu zuen estudio berria, eta hura izan zuen, harrezkero, pintura sortzeko gune nagusia.

1992–93

1992ko uztailean, Frankenthalerrek Stephen DuBrul ezagutu zuen Tony Rosenthal eskultore eta lagunaren bidez. 1992ko abuztuan, Frankenthaler Todi eta Erromara joan zen, eta, Betiereko Hirian zela, Caroren eskulturen erakusketa ikustera joan zen Trajanoren Azokara. 1993ko apirilean Frankenthalerren grabatuen edizioen atzerabegirako bat inauguratu zen National Gallery of Art (Washington D.C.): Helen Frankenthaler: Prints erakusketa, Ruth Finek komisariatua. Erakusketa Estatu Batuetan barrena eta Japonian ere ikusgai egon zen. Maiatzean, Frankenthaler Londresera joan zen, eta Caro eta haren estudioa bisitatu zituen han.

1994

Maiatzean, Clement Greenberg hil zen, New Yorken. Frankenthalerrek honela erantzun zion Truitten dolumin-gutunari: “Zuk eta biok badakigu bandera pila ari direla hemen haren omenez kulunka. Haren argitasuna, ausardia eta indarra, haren hainbat eta hainbat jarrera bezala, sakon iltzatuta daramatzat nire baitan. Harekin haserretzen nintzelarik ere, izugarri maite nuen. Egia ez da hiltzen”⁹. Frankenthaler eta DuBrul 1994ko ekainean ezkondu ziren. Artistak paper gaineko formatu handiko margolanak sortu zituen 1994tik 1995aren hasierara. Papera bihurtu zen haren euskarri kutuna, eta alde batera utzi zuen mihisea 2002ra arte.

1995–97

1996an, Harry N. Abrams argitaletxeak Frankenthaler: A Catalogue Raisonné, Prints 1961–1994 liburua argitaratu zuen, Pegram Harrisonek idatzia eta Suzanne Boorschen hitzaurrea zuena. 1997ko udazkenean, Frankenthaler eta DuBrul Shippan Pointetik Contentment Islandera aldatu ziren (Darien, Connecticut), etxe berri batera eta handik hurbil eraikitako estudio berri batera.

1998–99

1998ko urtarrilean, After Mountains and Sea: Frankenthaler 1956–1959 erakusketa inauguratu zen New Yorkeko Guggenheim Museum, Julia Brown komisarioaren eskutik; handik Bilboko Guggenheim Museora eta Berlingo Deutsche Guggenheimerera eraman zuten. Frankenthalerrek New Yorkeko eta Bilboko inaugurazioetan parte hartu zuen, eta, jarraian, Veneziara eta Erromara bidaiatu zuen. Urte

hartako azaroan, Ekialdeko 94. kaleko etxea utzi, eta Darien (Connecticut) bihurtu zen haren azken egoitza eta estudioa. 1999ko irailean, Frankenthaler: A Selection of Paintings From the Collection of the Artist, 1951–1992 erakusketa inauguratu zen New Yorkeko Purchase Collegem Neuberger Museum of Art museoa; Jack Flam izan zen erakusketa haren komisarioa.

2000–02

Frankenthalerrek elkarrizketa-sorta bati hasi zuen Finerekin liburu baterako, baina azkenean ez zen liburua egin. Frankenthalerri Arteen Nazio Domina eman zioten 2001ean (2002an jaso zuen). 2001eko azaroan, Frankenthaler: The Woodcuts erakusketa, Judith Goldmanek Naples Art Museumarako komisariatua, inauguratu zen Yale University Art Museumen eta Estatu Batuetara eta Japoniara eraman zuten handik. 2002ko udan, ekoizpen artistiko oparoa izan zen Frankenthalerrek, baina, ondoren, asko mugatuta zuten haren sormen-jarduera osasun-arazoez.

2003–10

2003an, Bonnie Clearwaterrek komisariatutako Frankenthaler: Paintings on Paper (1949–2002) erakusketa inauguratu zen Museum of Contemporary Art (North Miami, Florida); gerora, Edinburgora eraman zuten. Truitt 2004an hil zen. 2006ko azaroan, Frankenthaler: Sculpture inauguratu zen Knoedler & Companyn, egilearen 1972ko eskulturei buruzkoa. 2008ko azaroan, 1957 eta 2002 bitarteko paper gaineko obren eta margolanen erakusketa inauguratu zen Knoedlerren: Frankenthaler at Eighty: Six Decades. Noland 2010ean hil zen.

2011

2011ko abenduaren 27an hil zen Frankenthaler, Darienen, Connecticuten.

Kronologia hautatu hau osatzeko, hainbat iturri erabili dira; horien artean, Helen Frankenthaler Foundation Archives, Helen Frankenthalerri buruzko argitalpenetako kronologiak (ikus bibliografia osagarria, 189. or.) eta Anthony Caro, Morris Louis, Robert Motherwell, David Smith eta Anne Truitt artistei buruz honako argitalpen hauetan bildutakoak: Clifford, Tim. “Chronology” in Robert Motherwell: Paintings and Collages: A Catalogue Raisonné, 1941–1991, 1. lib. New Haven: Yale University Press, 2012; Hileman, Kristen. “Selected Chronology” in Anne Truitt: Perception and Rejection. Washington D.C.: Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Smithsonian Institution, 2009; Hopps, Walter. Anne Truitt: Sculpture and Drawings, 1961–1973. Washington D.C.: Corcoran Gallery of Art, 1974; Ng, Tracee. “Chronology” in Lyon, Christopher, arg. David Smith Sculpture: A Catalogue Raisonné, 1932–1965. New Haven: Yale University Press, 2021; Renshaw, Amanda, arg. Caro by Anthony Caro. Londres: Phaidon Press, 2014; Tant, Rachel. “Chronology” in Anthony Caro: 2 de junio–4 septiembre. Valentzia: IVAM, Generalitat Valenciana, [2005]; eta Upright, Diane. “Biographical Outline” in Morris Louis: The Complete Paintings. New York: Harry N. Abrams, Inc., 1985.

[Itzulpena: Rosetta testu zerbitzuak]

Oharrak

1. Barbara Rose, *Frankenthaler* (New York: Harry N. Abrams, 1972), 29.
2. Helen Frankenthaler, Friedel Dzubasi idatzitako postatzartela, 1953ko abuztuak 9. Helen Frankenthaler papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
3. David Smith, Helen Frankenthaler eta Robert Motherwelli idatzitako gutuna, 1958ko maiatzak 22. Helen Frankenthaler papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
4. Helen Frankenthaler, Grace Hartigan idatzitako postatzartela, 1960ko uztaialak 22. Grace Hartigan Papers, Special Collections Research Center, Syracuse University Libraries.
5. Helen Frankenthaler, Sonya Rudikoffi idatzitako gutuna, 1964ko apirilak 26. Sonya Rudikoff Papers; Manuscript Division, Department of Special Collections, Princeton University Library.
6. Helen Frankenthaler, Dore Ashton idatzitako gutuna, 1965eko ekainak 13. Dore Ashton papers, ca. 1928–2014.
7. Helen Frankenthaler, "Making Sculpture", 1975eko maiatzak 28, *Frankenthaler: Sculpture*, erak. est. (New York: Knoedler & Company, 2006), 8. or.
8. Helen Frankenthaler, abuztuaren 1ean Anne Truitti idatzitako gutunaren adenda, 1991ko abuztuak 12, fotokopia. Helen Frankenthaler papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.
9. Helen Frankenthaler, Anne Truitti idatzitako gutuna, 1994ko maiatzak 25, fotokopia. Helen Frankenthaler papers, Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York.